

**Kirola eta aldarrikapena olatu
more itxuran Antzuolan** | 23



**Eguaztenean hasiko dira banatzen Bergaran
edukiontzietarako txartelak** | 14



**Oñatiko historia jolasgai
bilakatu dute** | 8



Bixente Atxa, Juan Mari Aburto, Joseba Asiron, Mixel Etxebeste, Eneko Goia, Gorka Urtaran eta Nekane Goikoetxea. | JAGOBA DOMINGO

Euskara, ezberdinen arteko kooperazio

- Hizkuntzarekiko harremana eta beharrak aztergai izan dituzte MUn
- Euskal Herriko bost alkatek mahai-ingurua egin zuten atzo, eguna | 4

SINADURAK



Ikasteko eta ez ahazteko | 7
HARITZ SOLUPE



7 | Egunkari baten gainbehera
LEIRE KORTABARRIA



Kristauen genozidioa isilaz | 11
JOSU ZUGASTI



14 | Berkultugara
JOSU ELORTZA



Itunaren bertutea | 18
AMAIA MADINA



40 | 'Euskantdunak'
ANDER ETXEBERRIA

Udal Legea ontzat jo dute eskualdeko alderdi politiko gehienek

 | 6

DEBAGOIENA **3** | IRITZIA **7** | HERRIAK **8**
KIROLA **26** | KULTURA **30** | ZURE IRAGARKIAK **34**
ZORION AGURRAK **35** | TELEBISTA-IRRATIA **36**
EZKONTZAK **37** | ESKELAK **37** | NON-ZER **38**



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:


- Justine Masika Bihambari elkarriketa
- Isidro Monzon arkitektoaren etxeak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

GOIENA APP BERRIA

DESKARGATU DOAN !

- Albisteak eta agenda
- Telefono gida
- Parte hartzeko aukera
- Pertsonalizatzeko aukera



goiena



Ibilbide motz bat, plan gastronomiko bat, itsasoan paseo bat, %100 Basque den jarduera bat... Zer gura duzu egin? Bikotekidearekin, taldean, familian... Gustu guztietarako ideiak ditugu! Aste Santuan ezagut ezazu Euskadi, esperientzia baten bitartez. Oroitzapen ezin hobe utziko dizun bizipena izango da!



San Juan Gaztelugatxekoa. Itsasontzian ibilbidea

San Juan Gaztelugatxekoa leku ahaztezin horietako bat den zalantzarik ez dago. Kantauriar kostaldean, euskal kostaldearen labar batean kokatua, Gaztelugatxeko irlatxo mistizismoz eta magiaz beteriko lekua da. Lehorretik ikusita leku ederra bada, zer esanik ez itsasotik! Bermeon hasi eta kantauriar kostaldean zehar, itsas ibilbide bat ematea proposatzen dizugu. Behin Matxitxako lurmuturra utzi ostean, Gaztelugatxeko irla parez pare azaltzen zaigu. Itsasontzitik San Juan Gaztelugatxeren edertasuna ikusi ahal izango duzu!

Aste Santua

(22.03 eta 23.03 / 18:00) - (24.03, 25.03, 26.03 eta 27.03 / 13:15 eta 18:00) (28.03 / 13:15)

Apirilean, maiatzean, ekainean eta irailean: zapatuan 18:00etan

Uztailean eta abuztuan: ostegunean (12:00etan), zapatuan eta domekan (18:00etan)

Euskal Pilota eta itsasoa

100 urte baino gehiago dituen Bermeoko frontoi ikusgarria marinel-herri honen portuan bertan dago. Izan ere, euskal pilota, euskal jokia antonomasiar, arrantzaleen aisialdian ezinbesteko jardura zen. Esperientzia honek arrantzaleen mundura gerturatuko gaitu, kantauriar kostaldeko herririk enblematikoetako batean, Bermeon. Gainera, arrantzaleen eta euskal pilotaren arteko harreman estuarengatik, gidari profesional baten laguntzarekin, kirol honen modalitateak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izango dugu, bi pilotari profesionalen laguntzarekin. Bisita honi ezin amaiera eman Bermeoko kontserba-fabrika tipiko bat bisitatu eta eskualdeko txakolin fresko bat dastatu gabe.

- Hegaluze itsasontzian Bermeo eta Elantxobe arteko paseo gidatua.
- Bermeoko frontoian bisita gidatua (bi pilotarirekin eta gidari batekin)
- Kontserba-fabrika batera bisita, bertako produktuak eta txakolina dastatuta.

Aste Santuan (22.03, 23.03, 28.03)

Apiriletik urrira (zapatuan eta domekan / 11:00)

Uztailean eta abuztuan (martitzenean, barikuan, zapatuan eta domekan / 11:00)

Aste Santu honetan (baita aste bukaera honetan) ezagut ezazu Euskadi esperientzia ahaztezin baten bitartez! Informazio gehiago euskaditurismo.eus eta viajesporeuskadi.es webguneetan.

EUSKADI

Lanbide Heziketaren eskaintza eta balioak Goiaz azokan

- ▶ Martxoaren 15ean eta 16an bisita gidatuak, tailerrak, eta abar izango dira
- ▶ 19 ikastetxek eta hainbat erakundek jarriko dituzte informazio mahaiak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Arrasateko Kulturateko klaus- troan jarriko dute Lanbide Hezi- ketako eskualdeko eskaintza osoa batzen duen azoka: Goiaz. Deba- goieneko Mankomunitateak anto- latuta, zortzigarren edizioa duen honetan, Lanbide Heziketak lane- rako eskaintzen dituen aukerak eta heziketa mota horren bali- a- garritasuna erakusteko, bisita gidatuak, tailerrak, erakusketak... dituen bi eguneko erakusleiho erraldoia da Goiaz.

Martitzenean zabalduko ditu at- eak –09:30-13:30 eta 16:00-19:00–, eta eguazten eguerdian itxi –09:30-

13:30–. Dagoeneko 15-18 urteko 300 ikasleren interesa erakarri du ekimenak. "Martxoaren 15ean joango dira 180 ikasle eta mar- txoaren 16an, 120 ikasle; ikaste- txeetatik joango dira, DBHkoak eta Batxilergokoak. HHItik ere joango dira –Helduen Heziketa Iraunkorra–, Lanbide Heziketako beste batzuk hitzaldiak entzutera joango dira, eta Mankomunitate- ko orientazio zerbitzutik beste 30 bat langabe bertaratuko dira", zehaztu du Amaia Irizarrek, Man- komunitateko enplegu teknikariak.

Zentro guztiak eta beste

Izan ere, azokak ateak zabalik izango ditu lanerako prestakun- tzarekin interesa duen edozei- nendako, ikasle izan edo ez. Eta antolatutako ekintzak helburu horrekin pentsatutakoak dira. Hori horrela, aukera egongo da eskualdean Lanbide Heziketa lantzen duten zentro guztien –zaz- pi– eskaintza bisita gidatu bitar- tez ezagutzeko. Prestakuntzarekin lotutako bestelakoen eskaintzen berri jakiteko ere bai: Helduen Heziketa Iraunkorra, oinarritzko lanbide hastapenekoak, Bastida eta Ikasi akademienak; Bizikasi- rena eta Heziplus webgune berri- rena, zuzenean lanera begira dauden erakundeenak: Lanbide eta Eures –lanbide zerbitzuen Europako sarea–; eskualdeko uda- lena eta Mankomunitateko Gara- pen Agentziarena berarena. Eta, adibidez, enpleguarekin lotutako esperientzia praktikoen berri emango dute, gurasoei zuzendu- tako eskaintza berezitua izango

da, lana bilatzen laguntzeko tai- lerrak, ikasleen esperientziak... –egitaraua ondoko taulan–.

Aukera ona

Azokaren garrantzia eta prakti- kotasuna nabarmendu ditu Man- komunitateko ordezkariak: "Anto- latzen hasi ginen, ze eskualdean eskaintza zabala dago Lanbide Heziketarekin lotuta, eta enpresek teknikariak behar dituzte, maila horretako langileak behar dituzte, sektore desberdinetako Lanbide Heziketa eskaintza daukagu, lane- ratzea ona da...".

Baieztapen hori sendotzeko,

urteetako esperientziak erakutsi- takoa partekatu du: "Badaude kasu asko ze ikasi oso argi izan ez, eta Lanbide Heziketako titulazio bate- kin hasi ondoren unibertsitatean bukatu dutenenak; edo DBHn emai- tza onak eskuratu ez edo sistema hori gustatu ez... eta hasten dira erdi mailako ziklo bat egiten, gus- tätzen zaie aukeratu duten alorra eta pasatzen dira goi mailakora, unibertsitatera... Eta alderantziz- ko kasuak ere badaude: unibertsit- atearen hasi, adibidez Arkitektura ikasten, baina gustura ez, eta buka- tzen dute egiten eraikuntza arlo- ko zikloa Lanbide Heziketan".

SEI ARRAZOI LANBIDE HEZIKETA IKASTEKO

1: Debagoiengan kalitatezko zazpi ikastetxe ditugulako.

2: Titulazio eskaintza zabala dugulako: 11 familia profesional, 13 erdi mailakoak eta 19 goi mailakoak.

3: Bi urtean lanerako prestatzen zaituztelako.

4: 10 ikasleetatik 7 lanean hasiten direlako Debagoiengan LH ikasi ondoren.

5: Eginez ikasten delako: metodologia praktikoa lantzen da eta enpresetan praktikak bideratzen dira eta Dual sistema erabiltzen da: lana eta esperientzia uztartuz.

6: Debagoieneko lan-merkatuak maila horretako teknikariak behar dituelako.

ITURRIA: DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

EGITARAUA

MARTXOAK 15, MARTITZENA
09:30 Ekintzailetasuna, ideietatik ekintzara.
11:00 Reputacion digital: ¿Quien eres en Internet?
17:30 3. Nineu Bideo Curriculum lehiaketako sari banaketa.
Lan bilaketarako tailerrak:
10:00 ¿Que me puede diferenciar del resto en la busqueda de empleo?
16:30 ¡No encuentro nada! ¿Que puedo hacer?
Gurasoentzat:
18:00 bisita gidatua, Lanbide Heziketa ezagutzeko
18:30 Solasaldia: Zein da nire seme-alabentzat bide profesional onena? Seme-alaben aukeraketa, gurasoentzako erronka.
MARTXOAK 16, EGUAZTENA
09:00 Lanbide Heziketa, primerako aukera: Dual, Ethazi eta Erasmus +
11:00 Hemen eta han aurkitu lana: Europako aukerak Baliabide eta programa zaparrada.

AMAIA IRIZAR | MANKOMUNITATEKO ENPLEGU TEKNIKARIA

"Lanera begira antolatutako ekimena da, ez ikasleendako bakarrik"

Lanbide Heziketaren baitan dagoen eskaintza, hasiera batean, ikasleekin eta, ondorioz, gazteekin lotzen den arren, helduendako interesgarria ere badela azpimarratu du Amaia Irizarrek.

Azoka ez da ikasleendako bakarrik, ezta?

Ez. Adinak ez du mugarik: ikastetxeetan galdetuta, diote Lanbide Heziketaren ziklo askotan aldatu egin dela ikasleen profila: lan gabe geratu direnak –Fago- rreko asko ikasten hasi dira–; enpresek eurek ere langileak–eta prestatzeko exijitu egiten diete ikasketarik ez dute–

nei ikasketak egitera; Helduen Hezike- ta Iraunkorrekoendako ere interesgarria da. Langabeei dagokienez, berriz, asko- tan, lan gabe egoteko arrazoietakoa bat izaten da ez dutela prestakuntzarik, eta horregatik inportantea pentsatzen zai- gu gonbidatzea eurak ere bai, begiak apur bat zabal ditzaten, ze lan bila dabil- tzan askok esaten dute: "Baina nik lana gura dut, ez formazioa". Baina presta- kuntza batera izan ezean...

Bestalde, gurasoei zuzendutako eskaintza ere iragarri duzue; kolekti- bo horri garrantzia ematen diozue...



UBANE MADERA

Bai; bisita gidatua zein solasaldia dira ikasketak aukeratzeko sasoiaren dauden seme-alabak dituzten gurasoendako. Gako batzuk emango dira: aukeratze prozesuan laguntzeko zer izan kontuan...

Eta gurasoen zalantzak eta kez- kak konpartitzea da ondorengo helburua. Askotan, ikusten dugu gurasoak tema- tu egiten direla euren seme-alabek ikas dezaten eurek gura dutena eta ez seme-alabek eurek gura dutena; edo Lanbide Heziketa ez dute ezagutzen, edo nahiago dute euren seme-alabak unibertsitatera joatea... Gurasoek infor- mazio egokia izaten ahaleginduko gara.

Gomendioren bat egingo zenuke azokara begira?

Bisita egiteko; ez dela ikasleei bakarrik zuzendutako ekintza, baizik eta pres- takuntzarekin, lanera begira antola- tutako ekintza da. Aukera ona da, ze bertan egongo dira eskualde mailako prestakuntzarekin eta enpleguarekin lotutako erakunde gehienak, eta asko- tan tokatu daiteke bisitarien intere- sekoa den zerbait. Gure leloa da: *For- mazioa, lanerako zure aukera*. Uste dugu egokia dela, ekimenaren oinarria ere badelako.

Epeleren etorkizunaz galdetu diote Elkorori

U.M. | DEBAGOIENA

Hiru galdera dituen dokumen- tua entregatu dio Debagoiena Eredu, Zabortegirik Ez! plata- formak Debagoieneko Manko- munitateko presidente Unai Elkorori oraingo astean: ea Gipuzkoako Hondakinen Kon- tсорzioan –GHK– landu den Gipuzkoako zaborrak Epelera ekartzearen gaia; ea Manko- munitateak jaso duen horre- tarako eskaririk GHKren esku- tik, eta, eskaera jaso bada, zein den Elkororen jarrera edo zein izango den haren jarrera eska- ra jasotzen duenean.

Plataformako ordezkariak Mankomunitatearen egoitzan entregatu dute dokumentua, adierazita duten kezkek sortzen dizkieten "galderei bide ema- tera" joan direla eta nahiko luketela "epe laburrean" eran- tzunen bat jasotzea. Salatzen dute "komunikabideetan adie- razpenak egon egon izan diren arren, (...) GHK-ko Foru Aldun- diko ordezkariak direnen aho- tik soilik" entzun dituztela. Baina "Debagoieneko Manko- munitateak ere GHKn hiru ordezkari dituen eta azken erabakia berea den unetik" zuzentzen direla Mankomuni- tateko presidentearengana.

Erantzunak jasotzeko, pos- ta elektroniko helbidea eman, eta bilerarako prestutasuna erakutsi dute.

Erantzuna, datorren astean

Debagoieneko Mankomunita- teko presidente Unai Elkorok Goienari jakinarazi dio hurren- go astean erantzungo diola plataformari.

Ordainduren eta Eskuraturen demanda tramitera onartuta

Bergarako Lehen Auzialdiko Epaitegiak Fagor Etxetresnen eta Edesaren itxieraren ondo- rioz kaltetutakoen demanda tramitera onartu du. Aben- duaren 2an jarri zuten deman- da Ordaindu eta Eskuratu elkarteek, Mondragon Korpo- razioari 48 milioi euroko kal- te-ordaina erreklamatzuz, ia bi mila kalteturen izenean.

Korporazioari leporatzen diote ekarpen boluntario, mer- kataritza-mailegu eta itzulke- ta gisa kobratzeko zuten dirua kinkan zeuden kooperatibetan mantentzea bideratzeko infor- mazioa eman zietela. Uste dute kooperatibisten konfian- tzaz baliatu zela korporazioa.

Auzi-jartzaileek pozarren hartu dute albistea, adieraziz "pixkanaka-pixkanaka" bada ere", aurrera doazela euren eskaerak.



Huheziko kapera jendez gainezka egon zen atzo, eguena, taula gainean Euskal Herriko bost alkatek egindako mahai-ingurua jarraitzen. | JAGOBA DOMINGO

Hiriak euskararendako gakoa direla esan dute alkateek

- Euskal Herriko bost alkatek euskararen gainean hitz egin zuten
- Ezagutzak aurrera egin du, baina erabilerak ez hainbeste, haien esanetan

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Euskara normal erabiltzea hiriburuetan, bereziki orain arte euskararen presentzia nahi baino txikiagoa izan den horietan: horra hor Hego Euskal Herriko lau hiriburuetak eta Mauleko alkateek eguen iluntzean MUko Huhezi fakultatean egindako Euskal Herriko hiriburuetak alkateten *Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronkak* izeneko mahai-inguruan plazaratu zuten mezua.

Mahai-inguru historikoa izan da Huheziko Euskara Batzordeak antolatu zuena, lehenengo aldiz Hego Euskal Herriko lau hiriburuetak eta Iparraldeko bateko alkateak euskal hiztunak direla aipatzen zuten.

Hiri guztietan aurrerapausoak

Aurkezpenean, Euskara Batzordeko kide Asier Irizarrek azpimarratu zuen "euskara balioan" jartzea zela helburua. MUko errektore Bixente Atxak esan zuen "harro" zegoela erakundea lau alkateok eta Mauleko auzapezak gonbidapena onartu zutelako, unibertsitatea euskararendako "plaza bikaina" delako.

Euskara eta hiriaren gaia planteatu zuen segidan Nekane Goikoetxea moderatzaileak. Juan Mari Aburtok esan zuenez, "hiriak garapenerako leku egokiak" izango dira, eta baita "euskararen

arloa aztertzeko" ere. Bilbon, 80.000 euskal hiztun daudela esan zuen: "Bide luzea daukagu, baina ez gaude hasieran". Azken 10 urteotan, "denon artean", administrazioaren eta gizartearen artean, "izugarritzko aurrerapauso" eman duela azpimarratu zuen: "Erronka nagusia da euskararen ezagutzatik erabilpena ibiltzea". Udalak 10 ardatzeko euskalduntze plangintza diseinatu zuen eta 9. pausoa daudela esan zuen.

Joseba Asironek begirada atzera bota zuen Iruñeko ibilbide politikoa eta euskararen egoera eskutik joan direla azalduz: "Eskutik joan direla azalduz: 'Eskutik joan direla azalduz'". 2011n, euskaldun aktibo eta pasi-

ESANAK

"Unibertsitatea plaza ezin hobea da euskararen gaineko egitasmoak agertzeko"

BIXENTE ATXA | MU-KO ERREKTOREA

boen kopuruak bikoiztu egin direla azaldu zuen: "Biztanleriaren %22a euskalduna da; guretzat, datu onak dira, euskararen gorakada nabarmena delako, baina

hori erabiltzen erabiltzen duzunean gauzak asko aldatzen dira", onartu zuen. "Euskarari prestigioa eman" behar zaiola esan zuen, eta horretan dagoela Udala. "Asko hobetu beharra dago".

Etxebestek Frantziaren zentralismoaren ikuspuntutik azaldu zuen frantsesaren nagusitasuna, hango Konstituzioak hala ezartzen baitu. Alderdi pertsonaletik jo zuen euskararen egoera azaltzeko: "Nik euskara maite dut, baina aita-amek ez dute ulertzen". "Azken 10 urteotan berreskuratzen ari da Iparraldean euskara, bai gizartearen eta bai hautetsiek ere", gaineratu zuen, eta haurren %10ek D ereduaren ikastari dutela. Euskaldunon batasunari dei egin zion Iparraldean euskarak aurrera egiteko.

Eneko Goiak "harrotasunez" errepikatu zuen Donostia dela hiriburu euskaldunena: erabat euskaldunak, %40; kuasi-euskaldunak, %10. "Denok erronka parekoa dugu: erabilera da gure kasuan ere erronka nagusietako bat". Goia "sinistuta" dago "ingurune urbanoan duela euskarak bere etorkizuna, hiriok izugarritzko papera dutela". Hizkuntza sistemaren "fededun peto-petoa" aitoritu zuen bere burua: "Euskara berreskuratzeke oinarria da".

Urtasunen esanetan, "hiriak estatuak baino boteretsuagoak izango dira XXI. mendean", eta haien rol estrategikoa nabarmen-

Ikusmin handia jardunaldi historikoak

50 urtean lehenengoz eman den konjuntzioak eta mahai-inguruak bailarako alkateak, Euskal Herri osoko komunikabideak, euskalgintzako eragileak, MUko irakasle eta arduradunak... batu zituen Huhezin. Entzuleen izen-emate zerrenda egon zen eta aparkalekuak ere neurtuta zeuden.



Ezagun ugari adi entzuten. | J.D.

FITXA BIOGRAFIKOA

JUAN MARI ABURTO

BILBOKO ALKATEA (1961).

Enplegu sailburu izan zen iaz arte.

► **Gobernua:** 1991n hasi zen Jauriritzen lanean, Atutxaren ondoren.

► **Karguak:** Bizkaiko Foru Aldundian kargu garrantzitsuak izan ditu.

GORKA URTARAN

GASTEIZKO ALKATEA (1973).

EAJko afiliatua 1994tik.

► **Aurrekariak:** Ama, M. Jesus Agirre, Cuadren ondokoa izan zen.

► **Zinegotzi:** Soziologoa da ikasketaz, eta zinegotzi 2011tik.

ENEKO GOIA

DONOSTIAKO ALKATEA (1971).

EAJ eta PSEren botoekin alkate.

► **Politika:** Legebiltzarkide eta Bide Azpiegitura diputatu izandakoa da.

► **Zuzenbidea:** Europako Batasuneko zuzenbidean aditua da.

JOSEBA ASIRON

IRUÑEKO ALKATEA (1962).

Euskal Herria Bilduko alkatea.

► **Historialaria:** Nafarroako Unibertsitatean egin zuen doktoretza.

► **Historia egiten:** Iruñeko lehenengo alkate abertzalea da.

MIXEL ETXEBESTE

MAULEKO ALKATEA (1961).

Agir Ensemblerekin 2. agintaldia du.

► **Luzaroan:** 2008a ezkerreko Mauleko alkate.

► **Lanbidea:** Enpresaburua eta Artzainak taldeko kidea da.

du zuen: "Euskararen etorkizuna definituko da hirietan". Gasteizen, euskarak aurrera egin duela orain 20 urte euskararen aurkako jarre-
rak zeudela esan zuen baina "erabilerak ezagutzarekin bat ez" datorrela onartu zuen. Alkate gisako lehen neurria "euskaraz egitea" izan zuela esan zuen.



JUAN MARI ABURTO
BILBOKO ALKATEA

"Alkateok eredu izan behar dugu baita arlo linguistikoan ere"

"Amak trakets egiten zuen euskara eta aita erdalduna zen. Nire ama hizkuntza euskara izan zen, baina eskolan hasi nintzenean, ia-ia galdu egin nuen. Lasalle ikastetxean, gero, errekuperatzen hasi ginen. Unibertsitatean, errekreoetan, euskara ikasten nuen, eta Bizkaiko Foru Aldundian funtzionario hasi nintzenean, hartu nuen konpromisoa euskararekin. Abertzalea naiz eta uste dut gure hizkuntza maite behar dudala eta nire hizkuntza erabili behar dudala. Horrexegatik alfabetatu nintzen momentu horretatik, nahiz eta gaur egun ere erraztasun handiagoa daukadan, batez ere gai teknikoetan, gaztelaniaz egiteko. Alkateok, azkenean, bakoitza bere arloan behintzat, eredu izan behar dugu, baita arlo linguistikoan ere, eta adibide hori ematea oso-oso garrantzitsua da. Nik zorte handia izan dut".



JOSEBA ASIRON
IRUÑEAKO ALKATEA

"Nire eguneroko hizkuntza naturala euskara da"

"Gazte-gaztetatik izan zen nire helburu bat euskalduntzea, eta hiru urte eman nituen horretara; harro nago horretaz. Zertxobait banekien txikitatik. Aita baztandarra nuen, Elizondokoa, eta bere patua euskalduna izatea zen, baina patu hori hautsi zen gerra zibila piztu zelako eta ezin izan zuelako euskara ikasi. Baina aita seme-alaboi euskararen pozoia sartu zigun. Gaur bere iloba guztiak euskaldunak dira, eta seme-alaba guztiak ere bai. Bestalde, 24 urtez izan naiz irakasle; nire bizitzako ordu gehien euskaraz dira; hala ere, autokritika ere egin behar dut: nire idatzizko zientifikoak ia beti erdaraz izan dira. Orain, alkatetzan, euskara inkorporatu dut lanera ere, belaunaldi bateko parentesiarekin. Nik neuk, heldua nintzela ikasi arren, orain nire egunerokoaren hizkuntza naturala da".



MIXEL ETXEBESTE
MAULEKO AUZAPEZA

"Zuberotar gehienek ikusten dute euskara begirunez"

"Ni ez naiz euskaldun berria. Nire aita-amek euskaraz hitz egiten bazuten, euskara debekatua zegoen eta debeku horrek bazuen eragin bat. Nire bi anaiak ildo horretan sortu dira eta gu hazi ginenean esaten ziguten euskara ez zela geroa, frantsesa baizik. Gerora, ordea, Zuberoko ikastolako lehendakari izan naiz. Maule da Zuberoako hiriburua, eta Maulek ez bazuen euskararen alde egiten Zuberoak ere ez. Orain Maulek indarra egiten du Zuberoa euskaldun izan dadin; biztanleen %25ek euskaraz egiten dutela diote; Iparraldeko hiru euskalkietatik ahulena da zuberotarra. Ni abertzale naiz; Zuberoan badira abertzale ez direnak baina euskara gogoz maite dutenak. Baserri guneeetan eta kostaldean euskaldun gehiago daude; hirietan, gutxiago. Orain jende arteak hartzen du euskara begirunez eta positiboki".



ENEKO GOIA
DONOSTIAKO ALKATEA

"Nire lanean, euskararen txipa beti piztuta daukat"

"Ni naiz donostiar prototipikoa; ama Donostian jaioa zen, baina aita ez zuen etxean euskaraz egiteko aukerarik izan. Nire amak berreskuratu zuen euskara 20 eta piku urterekin, eta etxean seme-alabek euskaraz jakin behar zutela; beraz, nik ez nuen erabakirik hartu, eta ikastolara sartu ninduten oraindik legezkoak ez zirenean. Gurasoek erakutsi zidaten bi gauza: ez dago euskararik gabeko Euskal Herririk, eta euskara izango dela gu hari eusteko gai bagara. Orduan, erabakiak hartzen dituzu: karrera bukatu nuen %54 baino gehiago euskaraz ikasi izanda. Nire hiru seme-alabak, noski, euskaldunak dira. Eta nire lanak duen garrantziaz jabetuta nago; gaur, ekitaldi baten, lehenengo hitzak euskaraz egin ditut, eta bigarrenak, ingelesez. Euskararen txipa beti daukat".



GORKA URTARAN
GASTEIZKO ALKATEA

"Euskara ikastea plazera izan da niretako"

"Egoera sozio-linguistikoa, Gasteizen, Donostiakoaren oso desberdina zen. Aita-amak abertzaleak ziren baina amak ez zuen euskara menderatzen. Amama Otxandiokoa zen eta bazekien euskaraz. Familia abertzalekoa naiz baina ez euskalduna. Horrek kontraesan handia sortzen zuen nire baitan. Fakultatean ekin nion euskara ikasteari, gogor. Egunero joaten nintzen euskaltegira, eta plazera zen niretzat. Iruñeako jaietara ere joaten ginen, dena euskaraz egiten. Euskaldun berri bilakatu naiz eta aitortu behar dut erraztasun handiagoa dudala gaztelaniaz, baina beti saiatzen naiz euskaraz egiten, are gehiago alkate naizenetik; euskara da euskaldun egiten gaituena. Lau anai-arreba gara eta hiru euskaldun berriak gara; nire seme-alabak eta ilobak euskaldunak dira, guztiak. Ekitaldietan saiatzen naiz euskaraz egiten".

BADATOR HARRIRA



GONBIDATUA: AINTZANE OIARBIDE | BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATUA
MARTITZENA 22:00-ETAN



35 urtetik gora zain egon ostean iritsi da Udal Legea

EAJk eta EH Bilduk akordioa lortu zuten martitzenean eta aurrera egingo du legebiltzarrean

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Luze itxaron dute euskal udalek, 35 urtetik gora, Udal Legea izateko; Euskal Autonomi Erkidegoa, da gainera, horrelako lege bat ez duen bakarra estatuan. Urteetako saiakeren ostean, azkena 2014ko azaroan, martitzenean lortu zuten akordioa EAJk eta EH Bilduk udalen finantzazioaren gaineko desadostasunak gainditu ostean; izan ere, ordurako legearen zati handiena adostuta zeukaten.

Finantzaketan lagundu

Debagoieneko udal ordezkariak oraindik ez dituzte legearen nondik norakoak ezagutzen: "Orain urte pare bateko zirriborroa badugu, baina ez azkena. Zer lortu den eta emendakinak sartu osteko lege proiektua oraindik ez dugu jaso", jakinarazi du Unai Elkorok, Aretxabaletako alkateak. Hala ere, "pozik" hartu dute albiste gehienek, eskumen gehiago izango dituztelako eta finantzaketan zeresan handiagoa.

Legeak udalen eskuduntzak eta finantziarioak arautuko ditu, eta, besteak beste, ezarriko du "ahotsa eta botoa" izango dutela Finantzen Euskal Kontseiluan, hain zuzen ere, diru-sarrerak nola banatu erabakitzen den erakundean: "Orokorrean, espero dugu finantzaketan laguntzea,

eta hala izanez gero zalantzarik gabe, lasaiago ibiliko ginateke", dio Elkorok.

37 eskuduntza

Bestalde, udalek izan ditzaketen 37 eskuduntza ere zehaztuko dituzte legearekin; adibidez, honako hauek: gizarte zerbitzuak, berdintasun politikak... Euskararen normalizazioa eta erabile-

ra sustatzeko eta parte-hartzea bultzatzeko baliabideak jartzeko eskumenak ere izango dituzte. Hala, herri kontsulta lotesleak egin ahal izatea baimenduko du. Bestetik, laguntza sozialei dagokien, diru-sarreraren bermerako sistema osoa erreformatzea aurreikusten dute. Hori horrela, eskumenak ondo zehaztuta egotea garrantzitsutzat jo du Elkorok:

UNAI
ELKORO
EAJ



"Azken urteotan adostasunik ez da lortu lege hau aurrera ateratzeko, Estatuan erkidego bakarra gara ez duguna, eta asko laguntzea espero dugu. Oso garrantzitsua da, berriz, adostasuna lortu izana; sozialistak ez dira batu, baina euren emendakinen heren bat kontuan izan dira eta EH Bilduren eta EAJren artean Erkidegoko udalen %80 baino gehiago ordezkatzeko; beraz, babes zabala du. Legeak bermatzen du udal autonomia. Ondo zehazten du konpetentziak zeintzuk izango diren udal gobernuarenak".

MIKEL
BIAIN
EH BILDU



"Pozik egoteko arrazoa da; hamarkada luzeetan izan dugun gabezia handi bat izan da. Horrek eragiten du, batez ere krisi garaian; badaude zerbitzu batzuk udalek eman beharrekoak, batez ere herritarrendako gertuko erakundea izanik eta finantzaketa fluxu horiek lotu barik zeuden, eskumenak ez zeuden zehaztuta, eta hori Udal Legearekin argi geratuko da. Eskumen aldetik eta finantzazio aldetik ere segurtasuna egongo da, batez ere, alderdi soziala edo gizarte zerbitzuekin zerikusia duten hainbat zerbitzu emateko".

"Ondo zehaztuko ditu udal gobernuaren eskumenak. Eta gainera, bermatuko du eskumen bat izanez gero, haren finantzaketa".

EAJ eta EH Bilduren artean

EAJko eta EH Bilduko kideak "gustura" agertu dira adosteko gai izan direlako: "Denbora gutxian EAJk eta EH Bilduk lortu duten bigarren akordioa izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, urtetan maila horretako akordiorik eta adostasunik lortu ez denean. Bai Eudelen, bai Udal Legearen kasuan akordio zabala lortzeak aurrerantzean bide hori sakontzeko itxaropena ematen du", azaldu du Elkorok, eta Oñatiko alkate Mikel Biain bat etorri da horrekin: "Balioan jarri behar da EH Bilduren eta EAJren arteko akordioaren bitartez herritarrendako garrantzitsua den legea aurrera atera izana".

Sozialistek babestu ez

Alderdi Sozialista, baina, ez da akordioarekin "pozik" agertu. Debagoieneko sozialistekin harremanetan jarrita iritzia eman aurretik legea ondo ezagutu gura dutela jakinarazi dute. Dena den, PSE-EEko idazkari nagusi den Idoia Mendiak esan du egunotan lege proiektuarekin ez dutela konponduko udalen finantziarioaren gaia, eta haren berbatan "Aldundien esanetara" jarraituko dute udalek. Ezker Anitzak eta Ahal Duguk, ostera, guztien arteko adostasuna bota dute faltan.

Udal Legearen lantaldeak joan den martitzenean onartu zuen proposamena, ondoren, batzordean eta osoko bilkuran eztabaidatu beharko da. Dena den, bi erakundeetan gehiengoa dute jeltzaleek eta EH Bildukoek, hortaz, aurrera aterako da ezustekorik ezean.

JUAN LUIS
MERINO
IU-EZKER ANITZA



"Gu Legebiltzarretik kanpo gaude, eta ez dugu parte hartu horretan. Bi alderdik bakarrik babestutako legea da, eta, gehiengoa izan arren, pena da gainerakoekin ez adostu izana. Legea bera gainetik begiratuta ona dela uste dugu; Finantzen Euskal Kontseiluan ahotsa zein botoa izatea garrantzitsua da eta. Gizarte Zerbitzuen finantzaketa, herri galdeketa lotesleak deitu ahal izatea eta enplegu plan lokalak egitea da onuragarriena gure ustean. Hala ere, datozen egunetan aztertuko dugu zehatzago lege hori".

Jon Iparragirre | LABeko Deba aldeko arduraduna

"Sindikatuok badugu zer pentsatu eraginkorragoak izateko"

L. KORTABARRIA / M. ALTUBE |
DEBAGOIENA

Azken urteotako krisiaren ondorioz, egoera aldatu egin dela antzeman, eta erantzun berriak emateko, LABek birpentsatze prozesua hasi zuen. Horretan jarraitzen dute oraindik eta datorren urtean bukatuko da, LABen kongresuarekin batera.

Zergatik prozesu hau?

Uste dugulako aldaketa fase baten aurrean gaudela. Azken 6 edo 7 urteotan izan dira sekulako aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak, eta guk pitzadurak sorra-raz nahi diogun sistema horren mesedetan egin dira aldaketa guztiak. Uste dugu sindikatuok badugula zer pentsatu benetan langile klase subjektu bateratu bat sortzeko eta eraginkorragoak izateko.

LABen barruan hobetu beharrekoak ikusi dituzue?

Bai, baina guk diogu sindikal-



Jon Iparragirre. | LEIRE KORTABARRIA

gintzak oro har izan nahi badu konfrontaziorako subjektu, gauza asko hobetu behar dituela. LAB inoiz baino indartsuago dago ordezkartzari dagokionez, eta guk hausnarketa hau sendotasun posizio batetik egiten dugu. LABen helburua da langile subjektua benetan boteretzeko eta langileen batasunarekin, patro-

nalarekin eta sistemarekin konfrontatzeko gaitasuna izango duen subjektu bat artikulatzea.

Afiliatuekin zein pauso eman dituzue?

Euskal Herriko eskualde guztietan delegatuekin eta gertueneko afiliatuekin ariketa bat egin dugu ikusteko gure eremu naturalak diren enpresetan eta LAB dagoen mugimendu sozialetan ze gabezi ditugun eta zeintzuk diren gure ezintasunak. Gure delegatuekin hausnarketa hori egin dugu, identifikatzeko zeintzuk diren arazoak eta hurrengo batean nahi dugu arazo horiei nola egin behar diegun aurre zehaztea. Prozesu hau hasi genuen iragan urtean eta asmoa daukagu bukatzeko 2017an, LABek egingo duen kongresuan. **Zelako sindikatua izango da LAB?** Nahi dugu sindikatu hobea, indartsuagoa izatea eta, batez ere, sindikatu eraginkorragoa; mugitzeko gai izango den sindikatu bat. Azkeneko lan erreformek eta negozioazio kolektiboaren erreformak langile subjektua zatikatu egin dute, eta hor konfrontazio eremu berriak ireki beharko ditugu, lehendik irekitako borroka moldeei uko egin gabe.

Erizaintza jardunaldiak egunean, zortzigarrenez

KOMUNITATEA GOIENA |
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Lanbide Heziketak antolatuta, *Erizaintzako laguntzaileak*, gaur jardunaldiak egingo dira zortzigarrenez. Aurten honako gaia jorratuko da: Norberaren burua zaintzen ikasi besteak zaintzeko. Eta lan arriskuen prebentzioa landuko dute hainbat hizlarik.

Martxoaren 17an, osteguna, Kulturaren izango dira jardunaldiak, 08:30ean hasi eta 17:30ak bitartean. Ikastolako LHko osasungintza arloko profesionalen ekimena da eta erizaintza munduan murgilduta dauden profesionalentzat eta interesatuentzat dira. Izena emateko epea astelehenetik aurrera bukatuko da, martxoak 14; Arizmendi Ikastolara jo (943 77 20 25).

Otoitz-topaketa egingo dute zapatuan Arantzazun

M.A. | OÑATI

Arantzazuko fraideek, laiko talde batekin elkarlanean, sustatu dute otoitz-topaketa: "Bila dabilzan pertsonak elkarrekin topo egiteko aukera eskaini nahi du, isiltasuna eta aditza elkarbanatzeko", jakinarazi dute antolatzaileek. Hala, edonorentzat irekia dela iragarri dute: fededun, fedegabe, mugan aurkitzen direnak, bila dabilzanak... "San-tutegiak aukerako gunea eskaintzen digu, gure bizitzan isiltasuna egin eta arnasa hartzeko. Kanpoko zaratak eta geure barrukoak isildu eta geure buruari aditzeko unea izango da".

Bihar, zapatua, da topaketa hori, 17:00etatik 18:00etara bitartean, Arantzazuko basilikan (Jubileuko txokoan).

ZABALIK



HARITZ SOLUPE
goiena.eus/komunitatea/

Ikasteko eta ez ahazteko

Gazte egin nuen nire hautu politiko eta militantea, 90eko hamarkada hasieran. Garai konplikatuak. ETaren indarkeria eta bere inguruko presio mugimenduak eguneko platera ziren albistegietan. Eta nola ez, biktimak.

Egiten zuten guztiengandik urrun nengoen, oso. Eta erailak ziren eta indarkeria sufritzen zuten biktima asko ere urrun sentitzen nituela aitortzen dut.

Duela aste pare bat, barrenak hunkitu dizkidan hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen. Elkarren eskutik, Mari Carmen Hernandez eta Amaia Etxaniz, ETaren eta BVERen indarkeria-ren biktimak, hurrenez urren. Eskuzabalak izan ziren biak euren galera eta sufrimendua han geundenokin partekatzean. *Memoria plaza* erakusketa ibiltariaren egitarauko hitzaldietako bat zen, salbuespenik gabe, alderdi politiko guztien babesa jaso duen proiektua. Entzuleen artean ETAko bi kide ohi.

Zer pentsa eman dit erakusketaren edukiak. Ikus-entzunezko testigantzak dira guztiak; biktimenak, herritarrenak eta kultur sortzaileenak. Terrorismo desberdinen, polizia gehiegikerien eta frankismoaren indarkerien biktimen memoriek, garai baten urrun edo hurbil sentitu banituen ere, guztiek hunkitu naute, guztiak baitira sufrimendu. Eta herritar ezezagunen eta euskal sortzaileen hausnarketa askorekin bat eginez, hasierako aitortzarekin bada ere hasi naiz.

Garai berriak bizi ditugu, itxaropentsuak. Gertatutakoaren gotorlekutik atera eta aurrera egitekoak. Baina itxaropen horrek ez gaitzala eraman ezer gerta ez balitz bezala egitera. Sufritu dutenek esateko daukatena entzuteko aukera daukagu; begirada gure zilbor-hestetik jaso eta ikasteko aukera daukagu. Erakusketan hausnarketa batek memoriaren aukeraketari buruz dioen bezala, "selekzio horretan ez dezagun soilik selekzionatu gure patxadarako behar duguna baizik eta ikasteko komeni zaiguna ere".

USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.eus

Egunkari baten gainbehera

Gainbehera ez da beti zaratatsua; batzuetan, pixkana-pixkana gertatzen da, baina beti eskaintzen du konturatze-une bat. Joan den astean gertatu zitzaidan hori Espainiako ezkerren erreferente handi izan den egunkari batekin. Ez naiz ni horren jarraitzaile amorratua izan, baina, kazetari naizenez, batzuetan irakurri izan dut. 90eko hamarkadako aktore batzuen itxura aldagetak jasotzen zituen erreportaje bat argitaratu zuen, lehena eta oraina alderatuz, oso errespetu txikiarekin. Hura irakurrita, bazirudien zahartzea legez kanpokoa izatearen alde zeudela egunkaria eta kazetaria. Erreportaje horrek laburtzen du egunkari haren gainbehera.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

Aske, baina ez libre

Josu Lizarralde Aia
tui Oñati

Aste honetan pasa da urte bat ihesi alde egin behar izan huenetik. Maite dituan etxeak, lagunak eta herria atzean utziz, iparraldeko bideak urratuz, hegoaldeko bideak ahaztuz, gauaren eta txakurren erpin zorrotzak sumatuz, lur gordinean eta leku arrotzean babesa bilatuz.

Bakean utzi ez eta hegoak ebaki eta kaiolan sartu nahi izan hinduten. Eta irailean lortu zuten. Txori bezala hegoak ebaki eta kaiolan sartu nahi hinduten, baina arrano bihurtua hintzen jada. Kaiola hautsita alde egin zuen arranoa, aske hintzela sinestaraziz.

Aske agian bai, baina ez libre. Ezin baituk etxera itzuli, maite dituanen ondoan nahi beste egon, batez ere ia mendea duen aitaren ondoan, hire nahi eta gogoaren bezala.

Besarkada bat, Aitto! Laster arte!

Isilik gurago nituen

Zihara Enbeita
http://goo.gl/GGm0r5

Martxoaren 8an ere, momentu batean behintzat, gizonezkoek izan zuten protagonismoa sare sozialetan. Atzo Angel Errok aipatu eta Gorka Bereziartuak salatu legez, gizonezkoak bete zitzaidan niri ere Twitterreko *timeline*-a. Gizonezkoen elkartasun mezuak, gizonezkoen martxoaren 8ko aldarrikapenak. Haur kontuetan gurasok egiten dugun legez, berdin-berdin. Emakumeekin batera berba egitea edo eurak baino gehiago berba egitea ez baita emakumeei ahotsa ematea. Edota elkartasunaren izenean, berdintasunaren izenean, lilatoian gizonezkoek parte hartu behar luketela aldarrikatzen denean ere berdin.

Baten bat haserretuko da, baina nik, egia esan, gurago nuen herenegun gizonezkoak isilik baleude eta euren burua eta eguneroko jarrerak aztertuko balituzte. Eta baten batek esango dit emakume asko baino feministago diren

gizonezkoak badirela, baita gizonezkoak baino matxistagoak diren emakumeak ere. Oso ondo. Baina emakumeen nazioarteko egunaz ari gara. Beraz, gizonezkook, entzun. Entzun zer dugun esateko, zer aldarrikatzeko. Edota zuen elkarte, erakunde, enpresaren funtzionamendua aztertu. Gurago nuke soineko motxila apurka-apurka hustu eta aztertuko balute. Edota, bestela, nahikoa lukete emakumeen mezuak zabaltzen laguntzea. Beren hartan zabaltzea. Edota babesa ematea protagonismorik ostu gabe.

Gurasoon jarrera ikusi baitut atzo nik. Gure seme-alabek hau behar dute edota bestea behar dute esanez. Edota hau bizi dute eta era honetan sufritzen dute. Eta seme-alaba batzuk ausartuko dira hitz egitera, eta, beharbada, egingo diete gurasoei kontra, baina beste asko isilik geldituko dira badaezpada, konforme egon ez arren. Gizonezkoak betetako maratoni edo plazatan gustura sentitu ez eta etxean gelditzen diren emakume asko legez. Korrika egitea edo abestea gustuko izan arren.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otarora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundirano, Zieritza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Antzuolako Udala

Aramaioko Udala

Elgetako Udala

Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

HERRIAK



Martxoaren 4an jakin zituzten gazteek, gaztelekuan, azken probaren xehetasunak. | O.E.

ONATI

Herriko historia izan dute jolas

- Arazerixan! ginkanak arrakasta izan du gaztetxoetan
- Oñatiko Udalak antolatu du, Topaguneak lagunduta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arazerixak egin: Bestiei traba egiten dostenak egin. Definizio horixe jasotzen du *Oñatiko Euskeria* eskuliburuak. Eta herriko gaztetxoak pixka bat zirikatzea izan da Arazerixan! jolasaren jokoa.

Oñatiko Herri Curriculum lantzen ari da Oñatiko Udalak, eta, hezkuntza arautuan ez ezik, aisialdira ekartzeko saiakera egin du. Hala, herriko kultura, kondaira, historia eta ondarea oinarri izan dituen Arazerixan! ginkana antolatu du, Topagunearen laguntzarekin, eta herriko kontuak eta herritarrak astintzen ibili dira hainbat gaztetxo, telefono mugikorra eskuetan dutela. Izan ere, egin beharreko ia proba guztietan erabili behar izan dute telefono mugikorra edo ordenagailua, entregatu behar izan dituzten ikus-entzunezkoak grabatu eta muntatzeko.

Bost proba

Proba horietako bat izan da, adibidez, ikerketa soziologiko bat egitea. Oñatiko kaleetan gora eta behera ibili behar izan dute, adin

DATUA

24

TALDE

Batxilergo mailako gaztetxoek hartu dute parte; 24 taldek, guztira.

askotariko oñatiarrei eurek presatutako galdera sorta egiteko. Beste proba bat izan da errepor-taje bat egitea bost gai konkretutan agertzen diren istorioak, datuak, pertsonaiak-eta konbinatuz. Bost gai horiek hauek izan dira: bizimoduak eta bizimoduak!; emakumeak, moda eta lihoa; jauntxoak, bandoak eta liskarrak; kontrabandistak; eta Oñatiko txokolatea. 70 urtetik gorako herri-tar bat ere elkarriketatu behar izan dute gaztetxoek. Baita kondairetan oinarritutako istorio bat moldatu eta interpretatu ere.

Probak egiteko astebete izan dute parte-hartzaileek. "Bost egu-bakoitz jarraian aurkeztu dizkie-

gu probak, aste bakoitzean bat, eta hurrengo proba esan arteko epea izan dute aurreko lana entregatzeko. Astelehena, martxoak 14, zen azken eguna", adierazi du gaztelekuko Jose Mari Azpitartek. Izan ere, gaztelekua izan da gazteen topalekua. Hantxe ezagutu dituzte egin beharreko probak. "Mugikorrarekin grabatu, eta askok mugikorrarekin berarekin editatu dituzte bideoak, baina gaztelekuko ordenagailuak ere erabili dituzte hainbatek lanak egiteko. Topagunera bidali dituzte egindako bideo eta argazkiak, eta sarean zintzilikatu gero", azaldu du Jabi Bujanda *Txebi*-k.

Jaialdia

Martxoaren 18an jaialdia egingo dute, gaztelekuan, Arazerixan jolasean parte hartu duten gaztetxoek eta eurek gonbidatuko dituzten lagunek. DJ Oihan Vega etorriko da. "Eta jaialdi horretarako, bost aste hauetan zer moduz ibili diren erakutsiko duen bideo, ikuskizun, bertso, kantu edo dena delakoa prestatu behar-ko dute", gehitu du Arantzazu Agirrek.



O.E.

ANDONI, EKAIN, JON, JON ETA JULEN | OÑATI

"Sei gara taldean eta asko gustatu zaigu Arazerixan jolasa, oso ondo pasa dugu. Asteazkenean eta asteburuan elkartzeko gara, zer eta nola egin pentsatzeko eta bideoak grabatu eta muntatzeko. Gaztelekuko eta ikastolako liburutegiko ordenagailuak erabili ditugu. Pisutsuena kalean jendearekin galderak egin behar izatea izan da. Taldean lan egiten ere ikasi dugu, eta Oñatiri buruz gauza mordo bat. Adibidez, badakizu zer dan *Ttakaun ittea* esaera zaharra? Txortan egitea".



O.E.

JON, UNAI, AITOR, KEPA, ELEDER ETA EÑAUT | OÑATI

"Oso ondo pasa dugu. Barre asko egin dugu lanak egiten, eta bideoak nola editatu ere ikasi dugu. Tripodearekin eta telefono mugikorrarekin grabatu ditugu irudiak eta bideo batzuetan ahotsa ere sartu dugu. Gure telefonoak erabili ditugu bideoak egiteko. Bestalde, Oñatiko historiari buruzko gauza pilo bat ikasi ditugu; adibidez, duela zenbait urte Oñatin txokolate-fabrika asko zeudela. Herriko zein tokitan zeuden ere badakigu orain; egun, beste eraikin batzuk daude leku horietan, kaleak ez dira lehengoak bezalakoak. Primeran ibili gara".



O.E.

GURUTZE, AINHOA ETA TEO | OÑATI

"Azterketak tokatu zaizkigu parean eta proba guztiak ezin izan ditugu astez aste entregatu; azken egunera arteko epea aprobetxatu dugu. Oso ideia ona izan da jolas hau; oso ondo pasa dugu. Taldean iritzi ezberdinak izan ditugu maiz, eta moldatzen ikasi dugu. Oñatiko kondairen inguruko proban, adibidez, Zafiartuko meteoritoaren historia asko gustatu zaigu, eta horren moldaketa egitea pentsatu dugu. Sorgin-errekarena ere polita zen".

GOIAZ! 2016
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

martxoak 15-16

FORMAZIOA LANERAKO ZURE AUKERA!

Kulturte (Arrasate)

Prestakuntza eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimenduak

Antolatzailea:



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babeslea:

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Sostenible Territorio

ikasmina:

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

EKINTZAK

Martxoak 15, asteartea

09:00 - Irekiera ekitaldia

09:30 - "Ekintzaileetasuna, ideietatik ekintzara"

>> Aitor Gisasola (Manahmana. Bazkide langilea)

>> Itsaso Pagoaga (Olgeta)

>> Berrekin-Berregin esperientzia

11:00 - "Reputación digital: ¿Quién eres en Internet?"

>> Miguel Fernandez Arrieta (MGEF - Mondragon Unibertsitatea)

17:30 - 3. Nineu Bideo Curriculum lehiaketako sari banaketa

■ GURASOENTZAT (15-19 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat)

18:00 - Gurasoentzako bisita gidatua. Lanbide Heziketa ezagutzeko

18:30 - Solasaldia: "Zein da nire seme-alabentzat bide profesional onena?. Seme-alaben aukeraketa, gurasoentzako erronka"

>> Virginia Espin (NORGARA)

>> Clownclusiones saioa Oihulari Clown antzerki taldearen eskutik.

[Eta ondoren luntxa]

■ LAN BILAKETARAKO TAILERRAK [_Biteri gela_]

10:00 - "¿Qué me puede diferenciar del resto en la búsqueda de empleo?"

► Iraupena / Duración: 1:30 >> María Alonso eta Amaia Corrales (MU-ko Enplegurako Orientazio Zerbitzuko arduradunak)

16:30 - "¡¡NO encuentro nada!! ¿Qué puedo hacer? 3 claves para seguir luchando cuando no sale nada"

► Iraupena 2:00 >> Alex Beltran de Lubiano (Lan-arloko coach-a eta formatzailea)

[Plaza mugatuak

izen-ematea: airizar@debagoiena.eus 943793090]

Martxoak 16, asteazkena

09:00 - "LANBIDE HEZIKETA, PRIMERAKO AUKERA. Dual sistema, Ethazi eta Erasmus +"

>> Ikasle eta ikastetxeen esperientziak

11:00 - "Hemen edo han aurkitu lana"

11:00-11:45 - "Europako aukerak"

>> Violeta Morcillo (EURES-Kontseilaria)

11:45-12:30 - "Baliabide eta programa zaparrada"

>> Global training / HAZILAN proiektua / Berrekin-Berregin / www.heziplus.eus / PICE programa / Bizikasi

INFORMAZIO-MAHAIAK

Azoka ordutegia

{ 9:30-13:30 eta 16:00-19:00 (martxoak 15)
9:30-13:30 (martxoak 16) }

Kulturteko klaustroan (Arrasate)

ERAKUNDE PARTEHARTZAILEAK

Lanbide Heziketako Zentroak

- Oñati Gestio Heziketa - MU (Oñati)
- Zuazola-Larrañeta Institutua (Oñati)
- Mariaren Lagundia Ikastola (Bergara)
- Miguel Altuna Institutua (Bergara)
- Arizmendi Koop. Elkartea Ikastola (Arrasate)
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa - MU (Arrasate)
- Aretxabaleta Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa (IHI - EPA)
- Oinartzko Lanbide Heziketa (Lanbide Hastapena)

Formazio Zentroak

- Bastida Akademia (Arrasate)
- Ikasi - Prestakuntza Zentroa (Bergara)

Beste erakunde batzuk

- Bizikasi
- www.heziplus.eus
- Laneki-Jakinbait
- Enplegu Zerbitzuak
- Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua)
- EURES (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea)
- Udaleko Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak
- Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udalak
- Ekintzaileentzat Zerbitzuak
- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia
- Saiolan



Maria Ubarretxena alkatea adierazpen instituzionala irakurtzen; atzean, udal talde guztietako ordezkariak. | GORKA URIARTE

Parekidetasunean bizi ahal izateko konpromiso zehatzak

Martxoaren 8a dela-eta udal talde guztiak bat etorri dira zortzi puntutan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Martxoaren 8aren bueltan adierazpen bateratua onartu du Udalak, konpromiso zehatzak hartuta: Emakume Txokoa eta Ahal-duntze Eskola herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean babestea, sendotzea eta indartzea, Udaleko idazki guztietan hizkuntza ez sexista erabiltzea, diru-laguntzetako genero klausulak betearaztea, Biontzentzia Plana eta haren barruan dagoen Biontzentzia Matxistaren kontrako protokoloa berritzea, emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan

parte hartzera dei egitea, emakume eta talde feministekin elkarlanean herriko puntu ilunen mapa osatzea eta ekimen politiko guztiak genero ikuspegitik hausnartzea.

Martitzenean osoko bilkuren aretoan irakurri zuen adierazpen instituzionala Maria Ubarretxena alkateak. Ondoren, *Gora feminismo!* lelopean egindako manifestazioan hainbat herritarrek hartu zuten parte.

Ekintza interesgarriak oraindik
Egitarian ekintza interesgarriak geratzen dira oraindik. Bihar,

zapatua, emakume artisau eta baserritarren azoka egingo da Seber Altube plazan, goizean zehar, eta 15:00etan bazkari feminista egingo dute Jai Zale elkartearen. 20:00etan Virginia Imazen *Sex o no sex* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da Kulturateko areto nagusian. Hilaren 16an *Aportes del zapatismo al feminismo* hitzaldia eskainiko dute Sylvia Marcos ekintzaile mexikarrak eta Itziar Gandariasek Kulturaten (19:00). Amaizteko, hilaren 22an, Zinegoak Hedapena 2016 film laburren jaialdia helduko da Amaiara (20:30).

Arbolapeta eta Muzibar arteko proiektuak, interes handia

J.B. | ARRASATE

Arbolapeta eta Muzibar arteko kale zatia berrantolatzeke proiektuan herritarrek izan duten parte-hartzearekin "oso pozik" dago Udala. Otsailean Kulturaten jarri zen erakusketak 531 bisitari izan zituen, 21 aukera posibleetarako 430 boto baino gehiago eman ziren eta 90 bat ekarpen jaso dira Hirigintza Sailean. Apirilean bilera bat egingo dute obrak zuzenean eragiten dien bizi-lagunekin, nondik norakoak "zehaztasunez" azaldu eta orain arte jaso diren proposamenen berri emateko. Ondoren, gainerako herritarrekin parte-katuko da informazio guztia.

Adostasun bila

Udalak ahalik eta adostasun handiena bilatu nahi du alderdi politikoen artean: "Proiektu oso garrantzitsua da, baina ez da agintaldi honetan gauzatu. Hori bai, prest geratuko da exekuziorako; proiektu konpartitu bat izatea nahi dugu. Hurrengo agintaldian datorrena datorrela, ez dadila oztoporik egon gauzatzeko", dio Maria Ubarretxena alkateak.

Baleike: "Ordenantza aukera ezin hobea da partaidetza sustatzeko"

Baleikek Udal Gobernuak onartu nahi duen garbiketa ordenantza salatu du: "Puntu batzuk daude arazoak konpondu baino beste asko eragiten dituztenak. Uste dugu aukera ezin hobea dela Udala benetako partaidetzaren alde dagoela erakusteko. Ateak eragileei, oposizioari eta hiritarrei zabaldu behar zaizkie eta denon artean prozesu bat adostu behar da, Mozal Ordenantza hau benetako garbiketa ordenantza hiritarra bihurtzeko", adierazi dute prentsa ohar bidez.

Umea soinean eramateak dituen onurez eta arriskuez

Belun dendak ume eramaleen gaineko ikastaroa antolatu du hilaren 17rako (17:00): "Haurra soinean eramatea oso onuragarria da bere garapenerako, baina oso arriskutsua izan daiteke modu egokian egiten ez bada". Sabeletik Mundura ekimeneko Nahia Alkortak gidatuko du tailerra, eta umeen zein helduen ergonomiaz hitz egiteaz gain, haur eramale mota ezberdinak eta horien erabilerrak azalduko ditu. Prezioa 10 euro da; argibide gehiagorako: 943 04 03 20.

Kontratazio Behatokia eskatu du Irabazik, lan-baldintzak bermatzeko

J.B. | ARRASATE

Udalak, gaur egun, azpi-kontratatutako 28 zerbitzu ditu. Horiek ordaintzeko aurrekontua 9,5 milioi euro dira eta guztira 237 langilek dihardute lanean zerbitzu horietan. Udalak zerbitzuen deialdia egin eta kontratatuko duen enpresa aukeratzeko du. Azken horrek, beharrezko langileak hartzen ditu.

Enpresa horrek langileekin dituen hartu-emanak nolakoak diren edo enpresa horrek ematen duen zerbitzua egokia den edo ez, ez da Udalaren erantzukizuna. Hala jasotzen da kontratatutako klausuletan.

Proposamena, erregistroan

Irabazik Kontratazio Behatokia eskatu du: "Udalak azpi kontratatzen dituen zerbitzuen jarraipena egin dezan nahi dugu, lan baldintzak onak direla ziurtatu eta zerbitzua kalitatezkoa dela bermatu dezala", adierazi zuen koalizioko bozeramaile Juan Luis Merinok. Behatokian honako ordezkari hauek aurreikusten dituzte: alderdi politikoak, zerbitzuen ardura duten teknikariak, Udalean ordezkariak duten sindikatuak, kontratatutako enpresaren ordezkariak, sindikala eta udal ordezkariak. Irabazik aurkeztu du proposamena Udaleko erregistroan.



ELI ALZOLA

Arrasaten bizi diren txantxikuarren ospakizuna

Arrasaten bizi diren oñatarrak martxoaren 5ean elkartu ziren urteroko ospakizuna egiteko. 41 lagun elkartu dira aurretik. Luntxa izan zuten Ederra tabernan, talde argazkia atera zuten elizako arkupeetan, eta gero, Aldape jatetxean bazkaldu zuten: "Oso ondo ibili ginen, euria egin arren. Datorren urtean ere errepikatzeke asmoa dugu; ea jende gehiago animatzen den!".

arbolapeta

arrasate

beinke

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

OHARRAK

1975EAN JAIOTAKOAK

Bihar, zapatua, elkartuko dira. Eguna hasteko, Kurtzetxikira joango dira, 08:30ean anbulatorio paretik irtenda -puntualak izan!-. 10:45ean bisita gidatua izango dute alde zaharrean. 12:30ean talde-argazkia aterako dute Monterronen. Gero, txikiteoa egingo dute. 14:30erako Garaia Guneko jatetxera joango dira bazkalatzera. Bazkalostean, *dultze meneoa* izango dute. 21:30ean alde zaharrera joango dira, eguna gauzez borobiltzera.

Autogestioaren bidea 25 urtez aldarrikatzen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1991n sortu zen Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua (AGAKO). Urteen joan-etorrian Gazte Asanblada sostengatu duten pertsonak eta lekuak aldatu arren, horien lanari esker iritsi da gaztetxea gaur egun dena izatera, "jendarte anitzez osatutako gune autogestionatua". Lan egiteko modu autogestionatua izan da mende laurden honetako "gakoa", prentsaurreko jendetsuan azaldu zutenez. "Errespetuan, konfiantzan, berdintasunean eta denen arteko hartu-emanean" oinarritu dute ibilbidea.

Apirilak 9: AGAKO Eguna

25. urteurrena merezi den moduan ospatu nahi dute, hiru helbururekin: "Gaztetxea gazte guztiona dela aldarrikatzea, norbanako ezberdinen parte-hartzea sustatzea eta herriko eragile ezberdinen arteko sarea ahalbidetzea". AGAKOk kide Lide Galdosek eta Ekaitz Aranburuzabalak eman zituzten urteurreneko ekintzen berri, kultura taldeen eta hainbat eragileren babesarekin.

Antolatzaileendako egun handia apirilaren 9a izango da, AGAKO Eguna: "Ospatzeko modukoak dira azken 25 urteetan belau-naldi ezberdinek asanbladaren bitartez herriari egindako ekarpenak eta proiektuak".

APIRILEKO EGITARAUA

HILAK 2, ZAPATUA

22:30 Kontzertua: Ain_1 eta Mor-More.

HILAK 4, ASTELEHENA

18:30 Kortxoenea, irautea sortzea delako dokumentala.

HILAK 7, EGUENA

22:00 Kooltur Ostegunak: Vendetta.

HILAK 8, EGUBAKOITZA

18:00 Galdakaoko komunalaren gaineko hitzaldia.

22:00 Ez gara Palestinaz ari antzezlan.

HILAK 9, ZAPATUA

Egun osoan zehar AGAKO Eguna.

HILAK 13, EGUAZTENA

18:30 Gure kabuz ala hil dokumentala.

HILAK 14, EGUENA

22:00 Kooltur Ostegunak: Bi bala.

HILAK 16, ZAPATUA

09:30 Malben bidietatik gazterixia aurrera mendi buelta eta hitzaldia.



25. urteurrena aurkezteko prentsaurreko jendetsua egin zuten. | XABIER URZELAI

14:30 Sagardotegia gaztetxean.

APIRILAK 17, DOMEKA

18:30 Gatza 30 urte dokumentala eta herriko presoei gutunak idaztea.

HILAK 20, EGUAZTENA

18:30 Zakila duten neskak eta bulba duten mutilak hitzaldia.

HILAK 21, EGUENA

22:00 Kooltur Ostegunak: Ainara Legardon.

HILAK 22, EGUBAKOITZA

22:30 The Lookers taldearen kontzertua.

HILAK 23, ZAPATUA

22:30 Anestesia taldearen kontzertua.

HILAK 26, MARTITZENA

18:30 Jauziak dokumentala.

HILAK 28, EGUENA

18:30 Kooltur Ostegunak.

HILAK 29, EGUBAKOITZA

19:30 Azken Ostirala.

HILAK 30, ZAPATUA

22:00 Eskean Kristo taldearen kontzertua.

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI



Kristauen genozidio isilaz

Normalean kakanahastuta entzuten ditut Elizaren hierarkia erreakzionarioa, pederastia, sorginen erreketak, Franco–inoiz ez Francok fusi-latutako Arrasateko hiru apaiz euskaltzaleak–, Opus Dei, kristautasuna, oro har... Horrek, egia izan arren egia osoa ez denak, gure kulturaren alderdi inportante bat ukatzera eta gurata ahaztera garoatza eta herritar ugariri sentsibilizazioa kendu die, uneotan munduan gertatzen dabilen sarraski ikaragarri batekiko.

Kurduak, palestinarrak, siriarak, libiarrak, amazighak, Estatu Islamikoak mehatxatutako emakumeak, homosexual exekutatuak... Euskal Herrian, kolektibo erasotu horien guztien aldeko kanpainak ikusi ditut, edo kezka gutxienez; baita esku-hartze inperialisten aurkako salaketa asko ere. Baina sistematikoki eraildako edo erbesteratutako ehunka eta ehunka mila kristauetz, piperrik ere ez.

Sirian, Iraken, Egipton... Kristauak bizi izan dira Euskal Herrian baino lehenagotik, kristautasuna jazarritako sinesmena zen garaitik. Estatu Batuek eta Europak Irak berriro konkistatu zutenetik, hango gobernu laiko aurrerakoiak botatzeko, ia desagertu dira ia 2.000 urtez bizi izan diren herrialdeetatik. Ez zaigu gertzen eurekiko enpatiarik, bereziki ezkertiarroi? Ez ote gara konturatzen Egiptoko zabortegietan lan egiten duen kristau zapalduak ez duela zerikusi putarik Munillarekin?

"Ez zaigu geratzen eurekiko enpatiarik, bereziki ezkertiarroi?"

Ekainaren 12ko herri galdeketarako 700 bat sinadura, oraingoz

Gure Esku Dago dinamikaren hazitik sortutako Erain Deba-goiena ekimena sinadura bilketarekin hasi zen joan den zapatuan, Herriko Plazan egindako ekitaldiaren ostean. Egun hartan 700 sinadura inguru batu zituzten, eta, iragarri dutenez, sinadura bilketa kanpainak bi hilabete iraungo du. Maiatzaren 5a bitartean erdigunean eta auzoz auzo jarriko dituzte mahaiak; hilaren 15ean San Andres auzoan egongo dira eta hilaren 17an, berriz, alde zaharrean. Arrasateko lantaldearen asmoa da astez aste mahaiak lekuz aldatzen joatea.

Merkemerkaua egingo da bihar berriro, bezeroek hala eskatuta

Otsailaren 27ko Merkemerkaua eguraldiak erabat baldintzatu ostean eta bezeroen eskaerei jarraituz, Ibai-Arte merkataritza elkarteak erabaki du berriro ere antolatzea udazken eta neguko stockaren azoka. 26 saltokik hartuko dute parte, eta 10:00etatik 20:00etara –etenik barik– askotariko arropa eta osagarriak erosi ahaliko dira, "oso prezio murriztuetan". Eskaintza zabal izango da: "Arrasatearrek eta bisitari-turistek deskontu handiez gozatu ahal izango dute emakume, gizon eta haur modan, lentzerian, mertzerian, osagarrietan, oinetakoetan...".



ANDONI ALTZELAI

Uribarriko erretiratuei omenaldia

Uribarriko erretiratu elkarteak 80 urte baino gehiago dituzten bazkideei egindako omenaldian Maria Ubarretxena alkateak eta Ongizate zinegotzi Amaia Azpiazuk hartu zuten parte. Jovita Elortza da emakume nagusiena (92 urte) eta Eugenio Apaolaza gizon nagusiena (96 urte).

Renault CLIO

Pasioak bidera zaitzala

4 urterako mantentze-zerbitzua eta errepideko laguntza*

Renault Clio IV gama: kontsumo mistoa, 3,3tik 5,6ra bitartean (l/100 km). CO₂ isuria, 85 eta 127 bitartean (g/km). *Eskaintza honek partikularrentzat; autonomoztat eta flotistak ez diren enpresentzat balio du, betiere 2016/03/01etik 2016/03/31ra. Renault gamako auto bat eskatzen badute (ez dira eskaintzan sartzen Merkataritza Ibilgailuen Renault Gama eta Renault ZE gama). Eskaintza honekin, 4 urterako edo 80.000 km-ra arteko mantentze-zerbitzua izango duzu (lehenbizi gertatzen dena) Renault sareko adozein talleretan, Renault ibilgailu horien Mantentze Programarekin bat etoriz. Halaber, 4 urteko laguntza izango duzu, errepidean mautsurarik, zulaketarik edo erregaia-akatsik gertatzen zailunerako edo giltzak galtzen dituzenerako.

Renault gurekin du

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE www.autoberri.com



RENAULT
Passion for life

reault.es

Igor Isasi: "Atsedena ondo etorriko zaigu bigarren faseari aurre egiteko"

Ligako lehen porrota jaso zuen ARTk Gernikan (26-14); hainbat jokalaria min hartuta daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Arrasate Rugby Taldeak denboraldiko lehen porrota jaso zuen Gernikan, bigarren fasearen estreinaldian. Gogora ekarri behar da arrasatearrak Lehen Mailara igozteko baliagarria den multzoan lehiatuko direla. Igor Isasiren mutilek Gernikako bigarren taldeari egin zioten bisita joan den zapatuan, eta, lehen zatian markagailuan aurre hartu bazuten ere, azkenean, etxekoak nagusitu ziren (26-14). Lokatza eta euria izan ziren nagusi Urbietako zelaian. Horren aurrean, baina, Kanpanzar Arrasate ez zen kikildu. Oso kontzentratuta zelairatu ziren eta zuri-moreek aurre hartu zuten markagailuan lehenengo zatian Iparragirrerren eta

Lezamizen entseguiei esker. Transformazioetan Arizaletak ez zuen hutsik egin, eta, horrenbestez, hasierako 40 minutuak agortuta 0-14ko emaitzarekin joan ziren aldageletara Isasiren mutilak.

Min hartuta, eta hipotermia

Talde arrasatearrak ordezkotako bi jokalarirekin baino ezin izan zion aurre egin norgehiagokari. Hori gutxi balitz, lehenengo zatian Erkorekak min hartu zuen esku-muturrean, eta Zubizarretak zelaia utzi behar izan zuen hipotermiak jota. Gauzak horrela, Arrasateko taldeak ordezkotako jokalaririk gabe ekin zion bigarren zatiari, eta, orduantxe, bi taldeen arteko aldeak –Gernikak 23 jokalaria zituen– nabaria izan zen.



Gernikako partidua ostean ateratako talde argazkia; jokariak, goitik behera lokaztuta. | ARRASATE RUGBY TALDEA

Isasiren mutilek asko sufritu zuten meleetan, eta amorerik eman gabe amaierara arte borrokatu baziren ere, Gernika B-k lau entsegu egin eta markagailua irauli egin zuen, amaierako 26-14koa ezarrita. Esan bezala, honako hau Kanpanzar Arrasatek aurtengo denboraldian jasotzen duen aurreneko porrota da.

"Oso harro nago ekipoaz"

ARTko entrenatzailea oso pozik azaldu zen taldeak erakutsitako jarrerarekin: "Jokalariek dena eman dute berdegunean, eta oso harro nago ekipoaz". Gernikarrek "merezimendu osoz" irabazi zuten, Isasiren arabera: "Guk, jokalaria gutxiagorekin egon arren asko zaildu diegu lana, horren adie-

razgarri da epaileak partidua amaiera adieraztean garaipena zelan ospatu duten".

Aste bukaera honetan ez dute partidurik izango: "Atsedena ondo etorriko zaigu, hainbat jokalaria ditugu-eta min hartuta". Bigarren faseko bigarren jardunaldian Iruñea hartuko dute Mojategin; hurrengo asteburuan izango da.

Arrasate Dragoiko gimnastak Gasteizera eta Hernanira doaz

J.B. | ARRASATE
Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeak hitzordu garrantzitsuak izango ditu aste bukaera honetan. Bihar, zapatua, Gasteiz Hiria txapelketa jokatu dute; San Andres kiroldegian izango da, 17:15ean. Kadete, gazte eta senior mailetan lehiatuko dira honako gimnasta hauek: kadetetan, pilota eta uztaiarekin, Maialen Diaz, Leire Elizaran, Maite Iraeta, Aritz Altube, Haizea Uzarraga, Kimi Lopez de Aretxaga.

Gazte mailan, mazoekin, Maite Oliden, Eneritz Lage, Andrea Hernandez, Alba Revuelta eta Amaur Mendizabal.

Udaberriko txapelketa

Domekan, ordea, Hernaniko kiroldegira joango dira Arrasate Dragoi taldeko kideak. Udaberriko txapelketa barruko lehen fasean, alebin, infantil eta kadete mailetako gimnastak izango dira protagonista. Alebin mailan 15 gimnasta joango dira eta pilotarekin eta esku libreen modalitatean lehiatuko dira. Infantil mailan ere 15 gimnastak hartuko dute parte, eta uztaiarekin arituko dira.

Kadete mailan, amaitzeko, 13 gimnasta joango dira Arrasatek; sokarekin egingo dute erakustaldia. Txapelketa 10:00etan hasiko da.



Murua eta Egiguren azpi-txapeldun, Gasteizen. | ARRASATE PILOTA

Kadete mailako Euskadiko Txapelketako finalerdiak Uarkapen zapatuan

J.B. | ARRASATE
Bihar, zapatua, jokatu dute Euskadiko kadete mailako Txapelketako finalerdietako bigarren partidua, hau da, itzuliko norgehiagoka, Uarkapen (18:30). Eta Arrasateko bikote Llodeo eta Iturriotz ahaleginduko da joanekean Zumaiako pilotarien kontra lortutako abantaila mantentzen –22-20 irabazi zuten joanekean–.

Gasteizko finala galdu

Bestalde, Arrasateko beste bikote batek –Murua eta Egiguren– osatutakoa –finala jokatu zuen joan den astean Gasteizen. Egia esateko, Arrasateko pilotariek ez zuten pilotalekuan beste batzuetan moduan gozatu, eta 22-10 galdu zuten. Arabarrak azkarrago sartu ziren partiduan, eta arrasatearrek ezin izan zioten partiduari buelta eman.

Artzaintzaren bideko lehen etapa domekan, Besaideren eskutik

Besaide elkarteak mendi irteera antolatuta du domekarako. Artzaintzaren bideko lehen etapa egingo dute, Arantzazu eta Arlaban artean. Ia 23 kilometroko txangoa izango da, zazpi ordutan egitekoa. Izen-ematea zabalik dago herritar guztientzat; 07:30ean elkartuko dira Garibain. Federatuta egotea ezinbestekoa da.

Tolosan irabaztera derrigortuta dago bihar Mondra

Mondrak (44 puntu) Tolosako (27) Usabal futbol zelaian jokatuko du bihar (16:00). Josu Zubiaren mutilak derrigortuta daude hiru puntuak ekartzera, bigarren postuan jarraitu eta Amaikak Bat (52) lider sendoari lehen postua borrokatu gura badio. Amaikak Bat taldeak ez du huts egiteko itxurarik eman, oraingoz.



DORLETAKO AMA TXIRRINDULARITZA ELKARTEA

Dorletako Ama, ondo Beasainen

34. Usurbe Txirrindularitza Sarian "lan oso ona" egin zuten Dorletako Ama taldeko ziklistek. Eguraldi txarrari aurre eginez, Iñigo Aranburu hirugarren sailkatu zen eta Joseba Rodriguez laugarren. Asier Azkaratek, hori bai, ez zuen eguna izan; eroriko baten ondorioz proba utzi behar izan zuen. Domekan Azpeitiko lasterketan egongo dira.

ZALDIBAR

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
--------	---	---

A MULTZOA

1 Aldatz	7	0
2 Lasagabaster	5	0
3 Sonografos	3	0
4 Betrayer	2	0
5 Rayo Makabro	1	0

B MULTZOA

1 Dribling	7	0
2 Monte Taberna	5	0
3 Abokajarro	3	0
4 Elorra JMA	2	0
5 Olympiakojos FC	1	0

PARTIDUAK (2. FASEAREN HASIERA)

MARTXOAK 12, ZAPATUA

11:30 Monte Taberna-Olympiakojos FC /

Rayo Makabro

12:30 Sonografos-Rayo Makabro /

Olympiakojos FC

MARTXOAK 13, DOMEKA

11:30 Lasagabaster-Betrayer /

Elorra JMA

12:30 Elorra JMA-Abokajarro /

Lasagabaster

Bigarren fasea

Aldatz izan da liga erregularrako txapelduna. Zorionak eskoriatzarrei! Orain, bigarren fasean murgilduko da liga txapelketa. Aste Santuagatik hurrengo hiru jardunaldietan ez da partidurik egongo; hau da, bigarren faseko bigarren jardunaldia apirilaren 9 eta 10eko aste bukaeran jokatuko da. Bestalde, kopako txapelketako finala Driblingek eta Rayo Makabrok jokatuko dute maiatzaren 7an.

'Guerra': umore garratza darabilen musikala etzi Amaian

Pla, Muguruza eta Fernandez ditu protagonista; sarrera asko geratzen dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ezohiko ikuskizun batez gozatzeko aukera egongo da domekan Amaia antzokian (19:00). Pepe Miravetek zuzendutako *Guerra* musikala dator, eta Euskal Herrian ikusi ahalko den azken emanaldia izango da. Izen handiko hiru sortzaile ikusi ahal izango dira Amaia antzokiko agertokian: Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raul Fernandez *Refree*. Aktore bakoitza pertsonaia bat da: Plak hiria salbatzera datorren armada humanitaria antzeztuko du, Muguruzak hiria bera eta Fernandezek "pertsonaia abstraktu bat" interpretatuko du: "*Refree* Espainiako Estatuan Ibex35-a izan daiteke", dio Muguruzak. Eta zein hiri den Muguruzak antzezten duena? Ikuslearen esku uzten dute interpretazio hori: "Garrantzitsua da hiri zehatz bat ez dela esatea. Hiri bukatu gabea, hiri harroa, hiri handia naiz, metropolia", dio musikariak.

Musikal bat da, baina ez ditu musikal batek izan ohi dituen osagarriak; antzerkia, musika eta ikus-entzunezkoak tartekatzen ditu. Eta umorea ere badu, baina



Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raul Fernandez, *Guerra* promozionatzen. | UDALA

umore garratza.

Sarrera asko salgai oraindik

Salmenta motel doa, eta domekarako ez da arazorik egongo sarrerak eskuratzeko. Udalaren webgunean, www.arrasate.eus atarian, eta Amaia antzokiko

leihatilan ere erosi ahalko dira, 20 eurotan. Arrasate Irratian sarrerak zozkatuko dituzte; zozketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da 943 25 05 05 telefono zenbakira deitzea edo irratia@goiena.eus helbide elektronikora mezua bidaltzea.

Eskola antzerki jardunaldiak hilaren 15ean hasiko dira, ikasleen saioekin

J.B. | ARRASATE

Udaleko Hezkuntza Sailak, herriko ikastetxeekin elkarlanean, beste urtebetez antolatu ditu eskola antzerki jardunaldiak. Ekimenaren helburu nagusia da ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea, eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek hartuko dute parte.

Hiru fase izango ditu ekimenak: lehen fasean, martxoaren 15ean, DBHko lehen zikloko ikasleek lau antzezlan taularatuko dituzte Amaia antzokian, LHko 5. eta 6. mailetakoko ikasleen aurrean. Bigarren fasean, HHko, LHko eta DBHko ikasleek antzer-

ki talde profesionalen lanak ikusi ahalko dituzte, guztira zazpi emanaldi. Saio horiek apirilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an izango dira. Eta amaitzeko, hirugarren fasean, LHko 6. mailako ikasleak Amaiara joango dira instalazioak modu didaktikoan bisitatzeko; maiatzaren 2an, 3an eta 4an.

100 ikasle inguru agertokian

Ekimenak datu esanguratsuak uzten ditu urtez urte; izan ere, ikasturte honetan 100 ikasle aritu dira aktore lanetan, 188 ikasle bisitatuko dute antzokia modu didaktikoan eta antzezlanak ikustera 2.832 ikasle joango dira. Jardueraren aurrekontua 13.198 euro da.

Nepalgo ipuinak entzungai datorren astean

M.T. | ARRASATE

Mundutik Arrasatera ipuin kontaketak bueltan izango dira hilaren 17an, datorren egunean, 18:00etan Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

Oraingoan Nepalgo ipuinak kontatuko dituzte, euskaraz zein nepaleraz. Euskarazko kontaketa Lander Juaristi arduratuko da, eta nepalerazkoez, Uma Gurungu eta Parbati Poudel, Arrasaten bizi diren nepaldarrak.

Bost urtetik gorako umeei eta familiei zuzenduta dago, eta helburua herrian dauden, kultura, hizkuntza eta ohitura desberdinak ezagutzeta da.

Txorbela kontzertua eskainiko du bihar

Pazko astean Galizian izango da otxotea; Betanzosen eta Santiagoko katedralean

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Mikel Arregik zuzentzen duen Txorbela otxoteak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Frantzisko elizan. Eguerdiko ordu batean hasiko da eta ordubete inguru iraungo du emanaldiak; sarrera doan izango da. Hamabost pieza interpretatuko ditu otxoteak, eliza-ahestiak eta bestelakoak tartekatuta, baita klasikoak eta gaur egungoak ere.

Gaur-gaurkoz, hamasei gizonek osatzen dute Arrasateko Txorbela otxotea.

Galiziara bidaia

San Frantziskoko kontzertuaren ostean, Arrasateko otxotearen hurrengo bi emanaldiak Galizia aldean izango dira. Hilaren 28an abiatuko dira hara, eta itzulera apirilaren 2an izango dute. Hala, egonal-

dia bera lekua bisitatzeko ere aprobetxatuko dute.

Lehen kontzertua Betanzos herrian izango dute (Coruña), bertako Pai Menni ospitalean, Arrasateko Aita Menniren sare beraren parte den zentro batean. Izan ere, horren bitartez lotu dute emanaldia.

Hurrengo egunean, berriz, martxoaren 30ean, Galiziako hiriburura joango dira: Santiagoko katedral ospetsuan emango du kontzertua Arrasateko otxoteak, eguerdiko hamabietako erromesaren mezan, hain zuzen ere.

Bada, bi hitzordu horiek ahalik eta ondoen prestatu nahi dituzte Txorbela otxotekoek. Hori dela eta, ohiko entseguetaz gainera, asteburu honetan ere elkartuko dira taldeko kideak, gaur eta bihar goizean, elkarrekin lan egiteko.



Urtarrilean gaztetxean abestu zuen Txorbela otxoteak. | IMANOL SORIANO

Aste Santuko kontzertua eskainiko dute Arrasate Musikaleko ikasleek gaur Kulturaten, 18:30ean

Aste Santuaren bueltan antolatu ohi duten kontzertuaren barruan, askotariko instrumentuak joko dituzte gaur Arrasate Musikaleko ikasleek: eskusoinuak, tronpetak, pianoak, oboeak, flautak... Eta hari instrumentuez gozatzeko aukera ere egongo da. Ikasleek eskainiko duten emanaldiaren errepertorioa zabalago izango da: F. Van Gorp, Benito Lertxundi... Kontzertua gaur izango da, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian (18:30). Sarrera doakoa izango da.

BERRIRO



BIZI EZAZU

300€

FOCUS TREND BERRIA, 1.0 ECOBOOST AUTO-START-STOP 100 ZP 5 ATE 13.490 EURO

BERRIRO BIZI EZAZU AUTO BAT PROBATZEA ZER DEN. PROBATU ECOBOOST MOTOR DUN FORD BAT: GASOLINA MOTOR BATEN POTENTZIA ETA DIESEL-MOTOR BATEN ERAGINKORTASUNA IZANGO DITUZU.

MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua: 3.8-7.7 l/100 km, CO₂ emisioak: 99-175 g/km.

Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate, atzeko kristal-jasagailu elektrikoak eta lanotako argiak. Eskaintzaren baina gailde: BEZA, IEDMT (garraibide mota batzuei ezarritako zerga berriz, autongia erkidego bakoitzaren arabera), konerri da lekuan lekukoa azeritza, garraioa, sustapen deskontuak, konpentsazioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC. Serekin finantzatzearren "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez, 24 hilabeteko gutxienezko iraupen-konpromisoarekin. Gobiernuaren Five planaren ekarpenaren mende dago eskaintza. Penintsulan eta Balear uharteetan balagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarrian agertzen den modeloek ez du zertan eskainitakoa izan. EcoBoost motorrak %20 hobetzen ditu kontsumoak motor konbentzional batekin alderatuta. Ford.es

DESKONTU GEHIGARRIA

FORD AUTO BAT EROSITA

ECOBOOST MOTOR DUN FORD BAT PROBATZEARREN



Apirilaren 18tik aurrera, emaitza bera helburu

- Datorren hilean jarriko da martxan hondakinak biltzeko sistema berria
- Eguaztenean hasiko da Udala edukiontzietarako txartelak banatzen

JULEN IRIONDO | BERGARA

Apirilaren 18an hasita, zonaka eta progresiboki ezarriko da herrian hondakinak batzeko sistema berria; aldaketa, errefusa eta organikoa zintzilikarioetan utzi ordez, edukiontzietara bota beharko direla ordutik aurrera. Edukiontzi horiek, ordea, lehen-gotan jarraituko duten ontzi arirenak eta paperarenak ez bezala, txartelarekin irekiko dira –txartelean jarriko du bakoitzari ze edukiontzi dagokion; aldatzeko aukera egongo da–, eta Udalak hainbat egun eta leku ezarri ditu txartel horiek jasotzeko.

Eguaztenean, hilak 16, hasiko dira txartelak banatzen: Arrizuri, Artzamendi, Iparragirre, Martzial Agirre eta Mintegi kaleetako, Espoloiko eta Toki Eder plazako bizilagunek Zabalotegi aretora joan beharko dute, 10:00ak eta 13:00ak artean edo 16:00etatik

19:00etara. Hurrengo bi egunetan ere egingo dute banaketa, eta Aste Santu eta Pazko Aste ostean, apirilaren 4an, jarraituko dute, hilaren 14ra arte –bakoitzak txartela noiz jaso behar duen, zehaztasunez, goiena.eus/bergara helbidean edo Udalaren webgunean; bandoa ere jarriko dute atarrietan–.

Etxebizitza bakoitzeko txartel bat banatuko dute, doan, baina besterik eskuratzea ere egongo da, udaletxeko Hondakinen Informazio Bulegoan, bi euroren truke. Dagokien egunean txartela jaso ezin duten bizilagunek, bestetik, hainbat aukera dituzte: beste norbaitek jaso diezaieke –aurrenekoaren telefono zenbakia utzi beharko du horretarako–; Oxirondon egingo diren banaketetan jaso daitezke –azken sei banaketak izango dira han–; edo udaletxeko bulegoan, apirilaren 18tik aurrera.



Bergaran jarriko diren moduko edukiontzi grisa eta marroia. | MAITE TXINTXURRETA

Herriko paisaia izango den aldaketari dagokionez, zintzilikarioak kendu egingo dituzte, "ahalik azkarren", Obra eta Zerbitzu batzordeko buru Lander Arregiren arabera –Mankomunitatea zintzilikarioak saltzen saiatuko dela azaldu zuen; kontzeptuz, berrerabiltzea deritzote egokien–; eta haien ordez 180

edukiontzi inguru jarriko dituzte –apirilaren 11n hasiko dira jartzen–. Ia denak izango dira grisak eta marroiak, baina bost gunetan gainerako edukiontzien gabezia ere antzeman dute, eta gune horietan puntu berriak jarriko dituzte, edukiontzi guztiekin: Masterrekan, Zurraderon, Alkabietan, Torrekuan eta Zubietan.

Beste gune batzuetan, berriz, puntu berriak jarriko dituzte, baina grisarekin eta marroiarekin bakarrik, horien beharra sumatu delako batez ere, eta kasu guztietan ez dagoelako bost edukiontzi jartzeko lekurik: San Pedron, Artekalen, Zabalotegin eta Zubietan. Zenbait gunetan hondakinetarako erabili diren karkabei dagokienez, aurrerantzean ez dira erabiliko.

Auzo eta landa gunetan, azkenik, zenbait kasutan kaleko sistema bera erabiltzera pasako dira –izan daiteke bilketa puntuen kokapena apur bat aldatzea–, eta beste batzuetan orain arte moduan jarraituko dute –giltzadun edukiontziekin eta–.

Etxean gauzak berdin

Udal arduradunek azpimarratu dute sistema berriarekin erosotasunean irabaziko dutela herriarrek, nahi dutenean atera ahal izango dituztelako hondakinak; baina etxean egin beharrekoa ez dela aldatuko ere nabarmendu dute, "oso inportantea" dela edukiontzi marroira organikoa bakarrik botatzea –etxean, orain arte bezala, ontzian eta poltsa konpostagarriarekin batzeko aholkatu dute–, eta alkateak adierazi du helburua dela orain arteko gaikako bilketa portzentajeak "mantentzea eta hobetzea" –aurreko abenduan, adibidez, %81,82–.

Edozein zalantzatarako 688 65 72 43 eta 943-76 46 18 telefono zenbakiak daude herriarren eskura.

NIRE USTEZ

JOSU ELORTZA



Berkultugara

Kostata izan bada ere, iritsi zaigu negua azkenean. Sasoi bakoitzak berea baitu, otsailean baino, nahiago uztailean hondartzan ibiltzea, ezta? Aukera paregabea estalpeko ekintzez gozatzeko.

DSS2016 kultur hiriburutza bertan dugu. Proiektua babestu arren, ez pentsa, orain arte kul-

tur mugimendurik egon ez denaren sentsazioak nahastuta nauka... Pozten naiz, behintzat, jendearen ilusioa piztu eta kulturari merezi duen lekua emateko balio izanaz. Bergara, zorionez, 2013an, 2014an, 2015ean... eta 2017an, 2018an kultura hiriburu izango da. Izendapen instituzionalik behar gabe, daukagun kultur potentzialaz harro egoteko moduan gaude. Zer esan

"Altxor handia dugu, zaindu dezagun gure kultura!"

La Traviata bergararraren arrakastaz, Bandaren eta Orkestraren *The Love boat* ikuskizunaz, edota Bergarako Orfeoaren eta Candem Town dantza akademiaren *Adiemus Colores* kontzertuaz. Azken hilabeteko hiru adibide besterik ez dira.

Zoritarrez, aurtengo aurrekontuetan ere, kulturak ez du merezi duen partida izango; jaitsi egin baita, norbaitek kontrakoa aurreratu bazuen ere! Seminarioko auditorioa belaxe amaitzea eta ikuskizun handietarako areto baten proiektua beharrezko ditugu. Pilotalekua pilotan jolasteko baita, ditugun artisten mailako aretoa merezi dugu.


Altxor handia dugu, zaindu dezagun gure kultura!

Euskararen Txantxangorriarekin bat egin du Bergarako Udalak

J.I. | BERGARA

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik euskararen erabilera sustatzeko sortu duten irudia –Euskararen Txantxangorria– erabiltzeko eta hari zabalpena emateko gonbita jaso du Bergarako Udalak.

Gonbitari erantzunez, Udalak bat egin du kanpainaren helburuekin, eta txantxangorriaren irudia erabiliko du webguneetan, sare sozialetan eta udal eraikinetan. Bide batez,



Euskararen Txantxangorria. | GOIENA

Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko gonbidapena egin die herriar guztiei.



GOIENA

Hainbat alderdi, galdeketarekin

Erain elkarteak antolatuta, ekainaren 12an Bergaran eta Debagoieneko gainerako herrietan egingo den herri galdeketarako sinadura bilketa hasi zuten zapatuan –200dik gora jaso zituzten asteburuan–, eta horrekin batera haritz bat landatu zuten EAJ, EH Bildu, Irabazi eta Podemos alderdietako ordezkariak, babesa agertuz.

AITONAK

TABERNA

(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak

• Afariak

• Ospakizunak

• Kintadak

ETOR ZAITEZ!

08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486

Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urate 8 BERGARA

Tel.: 943 76 11 99 / 14 47

Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK,

ARTIKULU

ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozi plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Askotariko gaiak eta formatuak jorratu ahal izanagatik pozik Martxanterak

- ▶ Arrakastatsuak izan dira Martxoaren 8aren bueltan antolatutakoak
- ▶ Omenaldi "hunkigarria" astelehenean, eta kalejira jendetsua martitzenean

JULEN IRIONDO | BERGARA

Aste bete-betea izan da joandakoa Bergaran, Martxoaren 8aren harira Martxanterek, Jardunek, Auzokok eta Udalak elkarlanean antolatutako ekitaldiei dagokienez. Martxanterak "oso pozik" agertu dira antolatutakoek herritarrengandik jasotako erantzunarekin, eta baita aurtengorako egindako planteamenduak eman dizkien aukerengatik ere: "Martxoaren 8ra mugatu beharrean egitarau oso bat egin dugu oraingoan, eta horrek eman digu aukera gai desberdinak lantzeko eta formatu diferenteak jorrazteko", zioen Elena Eginok.

Aste honetan egindako ekin-tza nagusietakoak asteleheneko Bilgune Feministaren *Gure genealogia feministak* liburuaren aurkezpena eta haren ondoren egindako omenaldia izan dira. Lide Oregi, Mari Paz Alustiza, Mila Elortza, Anaje Narbaiza eta Arrate Bengoa (*in memoriam*) omendu zituzten: "Denak oso pozik atera ginen ekitalditik. Oso polita izan zen, hunkigarria. Aurretik aurkeztutako liburuan egiten den herriz herriko kontaktetan Bergara ez da agertzen, eta ondorengo omenaldiak balio izan zigun herriko zuhaitz genealogiko feministak bat egiteko. Bost emakume omendu genituen, gizarteak urteetan errekonozitu ez dituen emakumeen ordezkari", zioen Eginok. "Belaunaldi desberdinetako ema-

kumeak" elkartu izana ere polita izan zela bazioen.

Martxoaren 8an, berriz, kalejira berezia egin zuten dozenaka herritarrek. Musika lagun eta hainbaten artean eramandako

oihal more baten atzetik, ibilbidea egin zuten herriko kaleetan. Hainbat geldialdi egin zituzten, eta horietan testuak irakurriz askotariko aldarrikapenak egin. Plazan hasi eta Simon Arrietara



Martitzenean egindako kalejira-performanceko une bat. | MAITE TXINTXURRETA



Martxoaren 8ko triki-poteoan Osintxun batutako kuadrilla. | GOIENA

Osintxun ere ospatu zuten Martxoaren 8a

Elkarretaratzea egin zuten aurrena, eta ospakizunarekin jarraitzeko triki-poteoa ondoren, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. 45 bat emakume batu, eta elkarrekin ekarri zuten gogora parekidetasuneranzko borrokaren garrantzia.

egin zuten; handik frontoira, eta Irala kalera gero, plazan amaitzeko berriz. Geldialdietan irakurritako testuetan hainbat gai jorratu zituzten: pentsioak, etorkinak, prekarietatea... Hainbat mito desmuntatzeko datuak ere eman zituzten, tratatu txarregatik egiten diren salaketen artean salaketa faltsuak diren gainerakoak, adibidez.

Ekitaldia amaitzeko, Maite Aristegik eta Nerea Madariagak bertsoak kantatu zituzten, eta denek batera *Zutik emakumeak* abestia ere bai. Martxoaren 8koa-

ri buruz, ondorengo zioen Martxanterak taldeko kideak: "Egun horrek ikusgarritasun handiagoa ematen digu, eta aurrean egindakoak aukera eman digu aldarrikapen, mezu eta gai bat baino gehiago jendarteratzeko. Jai giroan egin dugu, baina ez da zoriontzeko eguna, borrokan jarraitzeko baizik".

Egitaraua ixteko, datozen bi eguaztenetako zineklub emanaldiak falta dira. Horrez gain, hila-bete osoan zehar herriko emakume artisten lanak egongo dira ikusgai Bergarako tabernetan.



Narbaiza, Oregi, Elortza eta Alustiza omenduak. | AMAIA TXINTXURRETA



Demasa leloarekin Lilatoian parte hartu zuten lagunak. | KILOMETROAK 2016

Bergaratik joandakoei saria, Lilatoian

120 neskak egin zuten bat aurreko domekako Lilatoian *Demasa* leloarekin korrika egiteko Kilometroak 2016ren antolakuntzak egindako deiarekin, eta talde jendetsuenaren saria jaso genuen horregatik.

KOMUNITATEA GOIENA
KILOMETROAK 2016 | BERGARA

Josu Garitaonandia | 'Oparitu zuhaitz bat' ekimenaren bultzatzailea

"Kontua litzateke ohitura moduan ezartzea zuhaitz bat oparitzea"

J.I. | BERGARA

Zuhaitz azoka eta landaketa sasoi bete-betea, bertako espezieak landatzea helburu duen ekimena hilero-hilero ezagutu nahi duenari azaltzen bost urte egitera doa Garitaonandia. Elorregiko Elorri Goiti baserrikoa, ekimena praktikara ere badarama, bere

baso baten, nahiz eta gutxi izan oraindik zuhaitz bategatik ekarpena egin dutenak. Ekimena azaltzeko hurrengo hitzordua, hilaren 17an, 19:30ean, kultura etxean.

Nondik dator ekimen hau?

2007an saritu egin zuten nire ideia Deba Garaia eta Debemen elkartearen lehiaketan. Geu, base-

rritar moduan, lehenagotik gabil-tza pinua bota ondoren hurrengo landaketak hostozabalenak egiten. Izan ere, konbentzituta gaude pinua eta eukalipto behin eta berriz landatuz gero, lurra gero eta okerragora joan daitekeela. Nik proposatzen dudana izan daiteke modu bat beste zuhaitz mota batzuekin lortuko liratekeen diru sarrerak pinuak ematen dituenekin berdintzeko. Honela, 3.000 pinuk 35 urteren ostean emango luketen kopuru bera emango lukete beste hainbeste hostozabalek, bakoitzagatik inork



Josu Garitaonandia. | JULEN IRIONDO

1,45 euro ordainduko balitu urtean. Kontua litzateke, kontsumo gizar-te honetan, opariak egiterakoan, ohitura moduan ezartzea zuhaitz bat oparitzea.

Onuradun bat baino gehiago luke halako ekimen batek, jendeak parte hartuko balu.

Gizartearentzat onuragarria litzateke; natura aldetik, basoarentzat ere mesedegarri; eta baserritarrentzat abantaila litzateke ordaina lortzeko 35 urte itxaron beharrean [pinudiei ematen zaien bizi aldia], urtero diru sarrera txiki bat izatea.

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almindrekin

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: **606 58 18 10**
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Bergarak Urnietaren aurka jokatu zueneko. | IMANOL SORIANO

Bergarak Decotena Pulporen aurka lehiatu beharko du kanpoan

IMANOL BELOKI | BERGARA

Gipuzkoako eskubaloitxapelketajokatzen ari den Bergara Kirol Elkartek Zumaian jokatu du hurrengo partidua, Decotena Pulpotaldearen aurka. Denboraldia amaitzeko lau partiduren faltan, garaipen beharrean daude Edu Orgazen taldekoak.

Zumaiarren aurkako partidua domekan izango da, 11:30ean, Lubaki kiroldegian. Partidu arriskutsua izango dute bergararrek, eta aurkarietara duten lau puntuko aldeari buelta eman nahi diote distantzia handitzeko.

Jaisteko beldur

Bergararren denboraldiko partidugarrantzitsuena izan daiteke aste bukaera honetakoa, eta dena emango dute jokalariek etxera puntuak ekartzeko.

Jose txo Muniategi bigarren entrenatzaileak hau x adierazi du: "Garaipen beharrean gaude; izan ere, teorikoki bi talde jaisten dira gure mailan, baina lau ere jait si daitezke. Bigarren Nazional Mailatik bi gipuzkoar jaisten badira, eta gipuzkoar bakar bat ez bada igotzen, kategoriatik jait si gaitezke."

Santxo eta Ugalde finalera lau'terdikoan

I.B | BERGARA

Lau'terdiko pilota txapelketan, gazte mailan, Salaberriak 22-7 irabazi zion Rioli, martitzeneko partiduan, eta nagusien mailan, berriz, Ugaldek 22-8 irabazi zion Lasori. Bestalde, aurreko asteko finalaurrekoan, Alberdik 22-18 irabazi zion Zubizarretari, eta Santxok emaitza berarekin Errandorenari. Gauzak horrela, martxoaren 15ean, 19:30ean, promesen mailan Alberdi-Salaberria eta nagusietan Santxo-Ugalde izango dira finala jokatu du tenak Bergarako munizipalean.

Finala nortzuek jokatu du ten erabakita, Reyes Azkoitia pilota entrenatzailearen esanetan: "Ez dago faborito garbirik. Salaberriaren eta Alberdiren arteko neurrketa gogorra izango da. Nagusietan ere antzeko gerra izango da; Ugaldek, agian, maila altuagoa erakutsi zuen, sakez tanto asko eginaz Lasoren aurka, baina ikusi beharko da..."



Pol-Pol Mendi Elkarteko Gazte Taldea elurretan. | POL-POL MENDI ELKARTEA

Pol-Pol Mendi Elkarteko gazteek, apirilerako ibilbidea prestatuta

I.B | BERGARA

Bergarako Pol-Pol Mendi Elkarteko beteranoen azken irteera otsailaren 21ean izan zen; Mendaro-Kalbarixo-Deba bidea egin zuten, eta, eguraldia lagun izanda, giro bikainean ibili ziren. Hurrengo irteera, berriz, martxoaren 13an, domeka honetan, izango dute. Goizeko zortzietan Bergarako Udal Pilotalekutik irtengo dira, eta Meñaka-Sollube-Bermeo bidea egingo dute. Egun osoko irteera izango da, eta joateko hoge euro ordaindu beharko da.

Azkenengo irteeran moduan, eguraldia lagun izatea espero dute antolatzaileek.

Mendi Elkarteko gazteek, berriz, aurreko domekan, martxoaren 6an, Bergarako Mugarrien zati bat burutu zuten eta elur artean gustura aritu ziren.

Gazteen hurrengo irteera

Gazte taldearen hurrengo irteera eguna eta ibilbidea prestatu dute dagoeneko. Apirilaren 24an izango da, eta Arantzazu-Elgea-ko mendilerroa-Andarto-Urkulu bidea egingo dute.

'Ayer Gauean' lana izango da gaur Zabalotegi aretoan



'Ayer gauean' antzezlanean, Ipintzako ikasleak dantzatzen. | IMANOL SORIANO

I.B | BERGARA

Ipintza institutuko batxilergoko ikasleek *Ayer Gauean* obra taularatu zuten Torresoroa aretoan, Antzuolan, aurreko zapatuan, martxoaren 5ean. Gustura geratu ziren antzezleak, Ipintzako batxilergoko antzerki taldeko kideak, eta lanaren egile eta zuzendari Pello Lezertua. 100 lagun inguru batu ziren antzezlanaz disfrutatzen, eta dantzak eta abestiek garrantzi handia izan zuten obran.

Gazteek euskara erabiltzeko (edo ez erabiltzeko) duten ohituraz dihardu lanak, eta tren baten dago girota, Zumarraga-Bartzelona ibilbidea egiten duen Alvia baten. Obra osatzen duten hiru abestiek zerikusia dute trenarekin; horietako bat Gatiburen *Zumarragako tren*a da.

Gaur, Bergarako Zabalotegi aretoan izango da antzezlanak ikusteko aukera, eta sarrerak lau eurotan daude salgai.

Lesakarrak eta debagoiendarrak bertsotan

I.B | BERGARA

Zapatuan, Debagoieneko eta Lesakako bertso eskolen topaketa izango da Bergaran: *Bertso-truk*. Bertsoen aitzakian, egun osoko egitaraua prestatu da, batez ere, Lesakako bertsolariekin harremana estutzeko helburuarekin.

Poteoarekin hasiko dira motorrak berotzen, 13:00etan, eta ondoren, Gaztetxean bazkaldu ostean, nahi duenak libreki bertsoak egingo ditu. 19:00etan, berriz, Arrano tabernan desafioa egingo dute. Debagoieneko lau bertsolari Lesakatik etorriko diren beste lau bertsolariren aurka lehiatuko dira, lagun artean, elkar ezagutzeko.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Sanpe United-Komando Piperrak	3-7
Arrano Zabalik-Vodka Juniors	13-8
SVC-River City	5-8
Estrella Coja-HIS	4-3
America-Birgerias	8-5

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	36	14
2 Errefuxa	30	13
3 Komando Piperrak	30	14
4 River City	29	14
5 Poteo Izarrak	23	13
6 America	23	13
7 Birgerias	15	13
8 Arrano Zabalik	15	14
9 Vodka Juniors	10	13
10 Sanpe United	9	13
11 HIS	9	14
12 SVC	7	14

PARTIDUAK

Martxoak 13, domeka
16:00 Arrano Zabalik-HIS / Birgerias
17:00 Birgerias-River City / HIS
18:00 Poteo Izarrak-Estrella C. / Errefuxa
19:00 Errefuxa-Vodka J. / Poteo Izarrak
20:00 America-Sanpe United / Vodka J.

Bergarako musika eskolan ate irekiak izango dira zapatuan

Bergarako musika eskolan 12:00etatik 14:00etara ate irekiak izango dira zapatu honetan, musika eskola bera ezagutzeko; haur, gazte zein helduentzat bideratuta dago. Bertan, *Musika zertarako?* hitzaldia izango da aurrena, bisita gidatua ondoren, eta, azkenik, musika tailerrarekin amaituko da. Hitzaldia eta bisita gidatua ordu erdian behin izango da.

Helduentzako eta umeentzako ipuin kontaketak izango dira

Helduentzako ipuin kontaketa hilaren 15ean izango da, Tania Muñoz ipuin kontalaria eskutik. *Album de Familia* kontaketa Udal Liburutegian izango da, 19:30ean. Umeentzako saioa, berriz, martxoaren 17an izango da Rakel Imazen eskutik, *Barita magikoa bakarrik* kontaketa 18:00etan izango da.

Loreto Aramendik organo kontzertua eskainiko du

Bergarako Stoltz-Frères Organoaren Lagunen Elkartek antolatutako emanaldia izango da domekan, Santa Marina elizan. Loreto Aramendi organo-jotzaileak eskainiko du kontzertua, 19:00etan, eta sarrerak bost eurotan izango dira salgai. Ateratako dirua Stoltz-Frères Organoa konpontzeko erabiliko da.

Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua domekan

Bergarako Udal Musika Bandak martxoaren 13an kontzertua eskainiko du, frontoian, 12:30ean. Hain zuzen ere, Alfredo Gomez Chirlaque zuzendariaren gidaritzapean, R. M. Azkueren *Vizcaytik-Bizkaiara* obertura eta F. Cesariniren *Old Russian Romances* suitea interpretatuko dituzte, besteak beste.

Soraluze Bergara taldeak Hernani hartuko du etxean

Senior mailako Soraluze Bergara saskibaloitaldeak Hernaniren aurka jokatu du hurrengo jardunaldia. Zapatuan Labegaraletan izango da, 16:30ean. Aurkariak bosgarrenak daude sailkapenean, eta Soraluze Bergara, berriz, azkena da. Sei jardunaldiren faltan zulotik ateratzea izango dute helburu bergararrek.

Arrikrutzen ere ospatuko dute Koben Eguna

- Lehoiaren hezurdura nola aurkitu zuen kontatuko du zapatuan Zubeldiak
- Itxita dagoen galeria ikusteko irteera egongo da, 50 urte bete direlako

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Euskal Herriko kobazuloen elkar-
teak antolatuta, Koben Eguna
ospatuko dute datozen bi astebu-
ruetan. Arrikrutzen kasuan, zapa-
tuan eta domekan izango dira
ospakizunak. Zapatuan, bisita
berezia egongo da, duela 50 urte
lehoiaren hezurdura aurkitu zuen
Iñaki Zubeldiarekin. Domekan,
berriz, erdi-prezioan izango dira
sarrerak.

Itxita dagoen galeria
Lurpea izeneko elkartean batzen
dira Euskal Herriko kobak. Zor-
tzi dira, eta elkarrekin antolatzen
dute Koben Eguna. Aurtengo egi-
taraua Arrikrutzen aurkeztu dute,
lehoiaren hezurduraren 50. urteu-
rrena delako. "Denek dute balio
esanguratsua duen ondare geolo-
gikoa, paleontologikoa edo arkeo-
logikoa, adibidez, eta horiek era-
kusteko bisita eta ekintza ezber-
dinak egingo ditu koba bakoitzak
datozen bi asteburu hauetan",
azaldu du Arrikrutz Kobak kudea-
tzen dituen Oinatur kooperatiba-



Kobetako ordezkariak eta Oñatiko alkatea Arrikrutzeko sarreran. | O.E.

ko Leire Garaik. Karrantzako
Pozalaguako, Ekainberriko eta
Mendukiloko ordezkariak egon
ziren aurkezpenean, Arrikrutze-
koak ez ezik, eta eskerrak eta
ongietorria eman zien denei Mikel
Biain alkateak. "Herritarrak gon-

bidatu gura ditut bisitetan parte
hartu eta kobazuloak ezagutzera",
gehitu zuen segidan.
Iñaki Zubeldiak 1966an aur-
kitu zuen lehoiaren hezurdura
Jesus Maroto ikaskidearekin bate-
ra. Galdu egin ziren biak koba-

zuloan, ez zekiten non zeuden eta
nola atera handik, eta halaxe
aurkitu zuten hezurdura, kasua-
litatez. Bizipen horiek kontatuko
ditu Iñaki Zubeldiak, bertatik
bertara, zapatuko bisita berezian.
16:00etan izango da.
Penintsulan ez da oraindik
Arrikrutzeko lehoiaren besteko
hezurdura osorik aurkitu. Zubel-
diak eta Marotok zapaldu zuten
galeria hori itxita dago egun, kon-
tserbaziorako. Baina apirilaren
16an bisita berezia egingo dute
galeria horretara. Hamar pertso-
na sartu ahal izango dira bakarrik
eta asteburu honetako bisitetan
parte hartzen duten lagunen artean
zozkatuko dira hamar txartel
horiek.
Arrikrutzen bezala, gainerako
kobetan ere ekintza ezberdinak
egingo dituzte, eta prezio erdian.
Hala, Karrantzako Pozalaguan
dolomiten museoa ikusteko auke-
ra ere egongo da; Ekainberrin,
margoak egiteko eta etxera era-
mateko aukera izango dute bisi-
tariak; Mendukilon, Kinada tal-
dearen kontzertua egongo da;
Isturitzen, bertatik bertara ikusi
ahal izango dira musika egiteko
erabil daitezkeen txirula natura-
lak, munduko bakarrik; Sarako
leizean, berriaz, euskaldunen jato-
rriaren eta mitologiaren bila joan-
go dira, Urdazubin arkeologiako
tailer experimental bat egingo
dute eta Zugarramurdin rally
fotografikoa. *Lurpea.eus* atarian
dator bisiten xehetasun guztiak.
Asteburu bat Karrantzan zozka-
tuko da bisiten artean.

Produktuak batuko dituzte Siriara bidaltzeko

O.E. | OÑATI
Hotz Oñati taldea Siriara giza
laguntza bidaltzeko material
bilketa kudeatzen hasi da.
Gaurtik, egubakoitza, hilaren
19ra arte, materiala biltzeko
guneak egongo dira herriko
hainbat puntutan.
Bilketa puntuak hauek
dira: Eroski, BM, Dia, Erre-
kalde autozerbitzua eta San
Migel kooperatiba dendak.
Gaur eta bihar, gainera, aurrez
aurreko bilketa egingo da
Eroskin, baita hilaren 18an
eta 19an ere. Egun horietan
boluntarioak egongo dira Hotz
Oñati taldeak martxan jarri
duen bilketa sustatzen.

Oinarrizkoak
Bilketa kanpaina honetan
oinarrizko lehengaiak jaso
gura dira. Adibidez: haurren-
tzat pixoihalak eta ipurdiko
toallak, emakumeendako kon-
presak, janaria latan (txerri-
kirik ez eta ireki errazak),
arroza, pasta, lekaleak (kristal
poteetan ez), haurrentzat
esne-hautsa, biberoiak eta
tetinak, xaboia eta material
medikoa (gasak, esparatra-
puak, bendak, iodoa...). Bar-
tzelonan egoitza duen Alham-
bra elkartearen bidez bidera-
tuko da bilketa. Oñatitik
Bartzelonara Seur Fundazioa-
ren bidez bidaliko dituzte.
Batutakoa sailkatzen lagun-
du gura izanez gero, mezua
bidali behar da helbide hone-
tara: *hotzonati@gmail.com*.



O.E.

Arkupeetako lurra konpontzen

Foruen plazako arkupeetako lurzorua konpondu egingo dute, irisgarritasuna hobetzeko. Hainbat harri apurtuta edo gastatuta daude eta konpondu eta berdindu egingo dituzte denak. Fasea egingo dituzte lanak eta udaletxe pareko arkupeetatik hasi dituzte. Urtea amaitu orduko lurzoru guztia egongo da eraberrituta.

Hiru etxebizitza sozial errentan emateko deialdia zabaldu du udalak

O.E. | OÑATI
Bidebarrieta kalean dauden
hiru etxebizitza sozial errentan
emateko deialdia zabaldu du
udalak. Izaera sozialeko etxe-
bizitzak dira eta helburua da
diru sarrera urriak eta etxe
premia dutenei alokatzea. Alde
horretatik, ez da hileroko erren-
ta kopurua zehazten, eta maiz-
terren diru sarreraren arabera

finkatuko da. Etxebizitzak oku-
patuta daude orain, udazkenean
geratuko dira hutsik baina alo-
katzeko interesa duten herri-
tarrek eskaera egin dezakete
dagoeneko. Udal bulegoetan
egin behar dira eta bete beha-
rreko baldintzei buruzko infor-
mazioa ere hantxe eskatu dai-
teke. Martxoaren 31 da eskaerak
egiteko azken eguna.

Konpostagailuen erabilera egokia zein den gogorarazteko bilerak

O.E. | OÑATI
Konposta egiteko 44 ontzi daude
banatuta herriko zazpi auzo-kon-
postgunetan. Udalak ikusi du
guztietan ez dela behar bezain
ondo egiten konposta, ohitura
edo jarrera ezegokiak hartu dituz-
tela hainbatek, eta, horiek zuzen-
tzeko, bilerak deitu ditu Udalak
erabiltzaileekin egiteko.
Aste bakoitzean gune bakoit-
zeko erabiltzaileendako bilerak
egingo dituzte. Joan den astean,
esaterako, Ugarkaldeko gunea
erabiltzen dutenekin bildu ziren
udal ordezkariak eta hurrengoan
Olapotoko gunekoekin bilduko
dira. Martxoaren 15ean, A, B eta
C ontziak erabiltzen dituztenen-
dako bilera izango da eta mar-

txoaren 16an, hondakin organikoa
D, E, F eta G ontzietara botatzen
dituztenekin. Bilerak Eltzian
izango dira, 19:00etan.
Oharrak
Udal ordezkariak astean behin
joango dira guneetara erabilera
zuzena den edo ez ziurtatzeko.
Ezetz ikusiz gero, itxi egingo dute
aldi baterako ontzia eta erabil-
tzaileek zintzilikarioetan atera
beharko dute hondakin organikoa,
dagokion egun eta orduan. Den-
bora bat pasatzen denean, zein
sistemarekin jarraituko duten
galdetuko zaie herritar horiei.
Ontzietan postontzi moduko
batzuk jarriko dituzte, oharrak
eta jakinarazpenak sartzeko.



Olapotoko erabiltzaileen konpostagunea. | O.E.

Atzeko kaleko lanak esleitzeko epea zabaldu da

O.E. | OÑATI
Atzeko kalea oinezkoendako
egokitu gura du udalak. Kalea-
ren zati bat horrela dago egun,
eta bigarren zatia egiteko
lanak esleitzeko deialdia
zabaldu du aste honetan.
Gipuzkoako Aldizkari Ofi-
zialak jaso du deialdia, eta,
horren arabera, lanak hiru
hilabete eta erdian egin behar-
ko ditu aukeratutako enpre-
sak. Aurrekontua, berriaz,
346.100 euro pasatxo da, BEZa
kanpo. Orain, lan hauek egi-
teko interesa duten enpresek
eskaerak egin beharko dituz-
te udaletxean apirilaren 13a
aurretik.
Bigarren fase honetako
lanak Ramon Irizar kaleko
bidegurutzetik alondegirai-
noko kale zatian egingo dituz-
te, hain zuzen.

Emakumeen eskubideak eta mugimendu feminista berbagai

Gaur, hilak 11, zinea, txokolate-jana eta musika, eskubideak aldarrikatzeko

MAIDER ARREGI | OÑATI

Martxoaren 8ko aldarrikapenak jarraipena izango dute. Hala, Emakumeen Egunaren bueltan, gaur, *Las chicas de la lencería* filma izango da ikusgai Lagun Lekun (Eltzia), 17:30ean. Gero, solasaldia eta txokolate-jana izango da.

Artisau azoka

Bihar, zapatua, Sare Feministak antolatuta, emakume artisauen azoka egingo da, 10:00etan. Plazako kioskoaren atzealdean dagoen


plazatzon jarriko dute (eguraldi txarra eginez gero, gazteleku-ko Topalekuan). 16 artisau izango dira euren lanak erakusten: bitxiak, poltsak, larruzko edo artilezko artisau lanak... jarriko dituzte salgai eta ikusgai. 15:00etan Emakume Bazkaria egingo da gaztetxean eta 19:00etan, Puro Luegoren kontzertua.

Mahai ingurua

Borroka feministaren bitartez gizartearen izandako lorpenen gai-

nean jardungo dute Anabel Sanzek (Feminis), Joana Etxanok (Mugarik Gabe) eta Rebeka Maestrok (Sare Feminista). "Nazioartean eta Euskal Herrian egun bizi dugun egoeraz eta emandako urratsez jardungo da solasaldian. Nik ikuspegi lokalaz jardungo dut", azaldu du Rebeka Maestrok. "Oñatin orain hiru-lau urte berriro jarri genuen abortuaren gaia mahai gainean. Izan ere, atzera pauso erraldoi horiei nola aurre egin behar izan genien azalduko dut mahai inguruan. Orain 30 urte Oñatiko emakumeen borroka nolakoa zen eta izan zituzten lorpenak ere ekarriko ditut". "Martxoaren 8a aldarrikapenak egiteko eguna da. Berdintasunaz jardutea da mugimendu feministaren zer den azaltzea eta honen lorpenak errekonozitzea. Asko dago egiteko; lorpenak prekarioak dira-eta. Gizarteak aitortu gabeko zorra dauka mugimendu feministarekin", dio Berdintasun teknikari Maitane Iribarrek.

Hitzaldiaren aurretik, *Dantzari: logros feministas por el derecho a decidir* dokumentala eskainiko dute. Martxoaren 16an, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrietan) 19:00etan izango da.



Elkar Heziko ikasleak. | ELKAR HEZI

'7 emakume 7 eredu' erakusketa

Emakumeen lana azpimarratu gura duen erakusketa gaurtik martxoaren 21era arte izango da ikusgai Kale Barriko zazpi dendetako erakusleihoetan. Elkar Hezi ikastetxeak landu duen hezkuntza proiektua da, ikasleekin egina. "Iragarki kanpainak egiteko emakume perfektuetara jotzen da. Guk estereotipo horiek baztertu nahi izan ditugu. Emakume perfektu horietatik at, emakume arrunten perfekzioa azaleratzeko kanpaina egin dugu", diote Elkar Heziko proiektuan parte hartu duten ikasleek. "Adin eta kultura ezberdinetako emakumeak bilatu nahi izan ditugu, guztiak Oñatin bizi direnak. Nahiz eta batzuetan kontatzeko ezer ez dugula pentsatu, guztiok dugu zerbait



7 emakume 7 eredu lana. | ELKAR HEZI

gure bizitzari buruz partekatzen. Argazkietan emakume bakoitzari buruzko informazioa dago, hizkuntza erraz eta sinplean idatzia, baina errealitate hutsa islatzen duena", diote.



Martxoaren 8an gaztetxoek murala margotu zuten klarionaz. | LEIRE ZUMALDE

NIRE USTEZ

AMAIA MADINA

Itunaren bertutea

Herriarrok, gure eguneroko zereginetan eta elkarren artean bizikidetasun ezin hobea lortzeko, etengabe itunak egiten ditugu, hala nola gure bikotekideekin, gure seme-alabekin, gure lagunekin, gurasoekin, anai-arrebeekin, bizilagunekin eta lankideekin... Izan ere, elkarbizitzak, nahitaez, itune-

tara bideratzen gaitu, eta lortu ere, lortzen ditugu.

Berriz, gure interesak kudeatzeko hautatu ditugun ordezkari politikoek irudikatzen digute eszenatoki bat, non bakoitza bere baitan gelditzen den, ituna eta adostasuna bigarren mailako planoan ezartzen duelarik.

Baina posible da akordiorik gabeko elkarbizitza? Ez litza-

"Bizikidetasun hobea lortzeko, etengabe itunak egiten ditugu"

teke gure bizitza, gogobetekoagoa, orokorrean eta politikoki ere, ituna bagenuke ardatz politikotzat, idealena ez balitz ere norberaren banakako helburuak lortzeko? Demokrazia itunera behartu gabe, babes daiteke? Eraiki dezagun, ituna balore bezala, ituntzea bizikidetasuna eraikitzeke oinarritzen duen kontzientzia eraikitzeke; eta horrela soilik, Groucho Marx-ena bezalako definizioak alde batera utziko ditugu: "Politika da arazoak bilatzeko, haiek aurkitzeko, diagnostiko faltsua egiteko eta erremedio okerrak gero emateko artea", gaur egun, errealitate penagarria egokitzen dena.

Euskarari lotutako diru laguntza deialdia zabaldu du udalak

O.E. | OÑATI

Euskararen sustapenari lotutako diru laguntzen deialdia zabaldu du Oñatiko Udalak.

Adibidez, errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen dituzten entitateek eskatu ahal izango dute (2.000 euroko gastua guztira). Eskaera errotulua jarri aurretik egin beharko da, betiere,

2016. urtearen barruan. Bestalde, euskara ikasteko (4.000 euro guztira) eta aisialdiko begirale ikastaroa egiteko (4.875 euro guztira) laguntza ere egongo da. Horien eskaerak ikastaroa egin eta hurrengo hila-betean aurkeztu beharko dira.

Udal bulegoetan egin behar dira baterako zein besterako eskaerak.

Nafarroaz berba egiteko Floren Aoiz eta Pruden Gartzia gonbidatu dituzte gaztetxera

I.E. | OÑATI

Nafarroari buruz berba egiteko bi ekitaldi antolatu dituzte aste honetan Antixena gaztetxean. Eguaztenean, esaterako, Floren Aoiz izan zen hizlari eta Nafarroaren aldaketaren gakoak izan zituen hizpide. Haren esanetan, Nafarroako aldaketa 2015eko hauteskundeak baino lehenago hasi zen mamitzen eta ez da soilik maila instituzionalean gertatu. "Nafarroakoa ez da kolore aldaketa huts bat izan, erregimen oso bat desmuntatzen ari da", esan zuen.

Pruden Gartzia gaur

Gaur, egubakoitza, berriz, Pruden Gartzia historialari oñatiarrak *Nafarroako Auziaz* liburua aurkeztuko du, 18:00etan. Lau saiakera labur biltzen ditu eta Errenazimenduan kokatu ditu saiakerak Nafarroako Erresumaren galerarekin lotuz. Liburua irakurri ahala atzera begiratzea helburu bada ere, Gartzia burua eta gogoa gaur egungo Euskal Herrian ditu. Hausnarketarako gai ugari azaltzen dizkie irakurleei idazle oñatiarraren liburuan.



Floren Aoiz, gaztetxean, eguazteneko hitzaldia hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA



**CALZADOS
ALDASORO**

Martxoaren 31n denda itxiko dugu.

Aprobetxatu eskaintzak eta denboraldi berriko artikuluetan ditugun deskontuak.

Tel.: 943 78 07 55



Erain taldeko 25 ñatiarrak otsailaren 27ko Kultureteko ekitaldian. | ERAIN DEBAGOIENA

Bihar hasiko dira herri galdeketaren aldeko sinadurak batzen

12:00etan hasiko dira sinadurak biltzen Oñatiko Santa Ana antzokian

IRATI ELORTONDO | OÑATI
Bihar, martxoak 12, hasiko dira herri galdeketaren aldeko sinadurak biltzen Oñatin, 12:00etan. Erain taldeak iragarri duenez, Santa Ana antzokian izango da

aurkezpen ekitaldia, eta sinadura eta amaierako luntxa kanpoko arkupeetan egitea espero da. Bideo labur bat eskainiko dute ekitaldiari hasiera emateko, nondik norakoa, ideia eta taldearen his-

toria azalduz. Testuaren irakurketa ere egingo da, bi hizkuntzatan, eta, horretarako, hiru irakurle nagusi igoko dira oholztza gainera. Kanpoan dauden ñatiarren bideo bat ere proiektatu-

ko dutela dio Jotxo Larrañana antolatzaileak, herritarrei babesa emateko asmotan. Amaieran ehun bat ñatiarren argazkia ateratzeko asmoa ere badute antolatzaileek. Ekitaldiaren aurkezpena amaitu ostean, arkupeetan sinadurak biltzen hasiko dira luntxa egiteaz batera.

1.100 sinadura helburu

Gure Esku Dago ekimena gogora ekarrita, otsailaren 27an Kulturaten eginiko aurkezpen ekitaldian 150 debagoiendar batu ziren, Oñatitik 25. Herri bakoitzeko sinadura bilketa egunak pasa den astebukaeran hasi ziren Debagoieneko herri gehienetan, datoren ekainaren 12an egingo baita botazio nagusia, *Nahi al duzu euskal estatu independente bateko herritar?* galdetuta. 16 urtetik gorakoek izango dute botazio honetan parte hartzeko aukera. Oñatiko Erain taldeko antolatzaileek 1.100 sinadura lortzeko helburua dute; herri bakoitzeko biztanleria kontuan hartuta, bertako %10 lortu behar baita ekaineko galdeketa burutu ahal izateko. 16 urtetik gorako guztiek izango dute bozkatzeko aukera, eta antolatzaileek herritar guztiak animatzen dituzte sinadura eta botazioetan parte hartzera.

Sinadurak biltzeko mahaiak Santa Anan jarriko dira ekitaldiak irauten duen bitartean, eta domeka eguerdian Foruen plazan ere bai. Santa Anako ekitaldian bideo emanaldia egongo da, eta hainbat ñatiar agertuko dira.

Osinalde sariketan parte hartuko du Maider Arregik

Maider Arregi bertsolari ñatiarra Gabirian jokatu den Osinalde sariketarako sailkatu da. Zapatuan egin zuten sariketa horretarako lehen kanporaketa Ordizian, eta hantxe lortu zuen txartela bertsolari ñatiarrak.

45. Osinalde sariketa datoren apirilaren 2an jokatu da Gabirian, eta oraindik beste bi kanporaketa izango dira txapelketa horretan parte hartu ahal izateko. Zaldibian eta Gabirian egingo dira kanporaketa horiek datozen bi zapatuetan. Sei gazte lehiatuko dira.

Otoitz topaketa bat egingo dute bihar Arantzazun

Otoitz egiteko jardunaldia antolatu dute biharko, zapatua, Arantzazun. Basilikan izango da, Jubileuko txokoan, 17:00etatik 18:00etara. Euskaraz izango da.

Iñaki Beristainek azaldu duenez, herritar guztiei zuzenduta dagoen jardunaldia izango da. "Urte asko ditugu gure agendak gainezka ditugula, batez ere lana, familia eta aisialdia direla eta, geure barruari axola handirik eskaini gabe, eta horretarako aukera eskaintzen du Arantzazuk", dio Beristainek.

Lenao eta Zingira talde ñatiarrak Gaztelekuan



Lenao talde ñatiarra. | GOIENA

I.E. | OÑATI
Proiektu berriarekin datoz bi taldeak: Zingirak lehen aldiz aurkeztuko du *Bidaia* diskoa eta Lenao laukoteak izen bera duen lana aurkeztuko du. Bihar, zapatua, izango da kontzertua 22:30ean, Gaztelekuan. Sarrera: 5 euro.

Oñatin jotzeko irrikan

Herrian jotzeko gogo handiz daudela dio Iñigo Ibarrondok Zingira proiektuaren bultzatzaileak, zuzenean aspaldi jo ez dutela eta urduri daudela aitortzen badu ere. Lenao eta Zingira taldeetako kideak aspaldiko lagunak dira: bataren eta bestearen proiektuetan elkarlanean aritu dira. eta bihar agertokian ere horrela egingo dute. Egoitz Olalde eta Ander Etxanizek bi emanaldietan joko dute.

Iruzurrak nola saihestu azalduko dute Pake Lekun

O.E. | OÑATI
Iruzurrak nola saihestu jakiteko hitzaldia antolatu dute Pake Leku erretiratuen elkartean datorren asterako. Martitzenean, hilak 15, izango da, 17:30ean, elkartean bertan.

Bi ertzain etorriko dira hitzaldia egitera, eta banke-txeetan egin behar izaten diren gestioetan edo etxez etxe gai bati edo beste bati buruzko informazioa eskaintzen ari direnen aurrean nola jokatu azalduko dute. Hitzaldia irekia da eta aukera egongo da galderak egiteko.

Miren Arbil Urteaga izango da bake epailea datozen lau urteetan

Martxoaren 3an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, herriko bake epailea Miren Arbil Urteaga Bikuña izatea datozen lau urteetan Oñatiko bake epailea. Bere ordezkaria Mari Karmen Rodríguez izatea ere onartu zuen. Erabakia Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari jakinaraziko diote, izendapena egitea erakunde horren eskumena baita.

Jaiotzak, heriotzak, ezkontza zibilak eta antzerako egiaztagiriak sinatzen ditu bake epaileak, besteak beste.

Dagoeneko zabalik dago udaleku irekietan izena emateko epea

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra izango dira aurtengo udaleku irekiak eta izena emateko epea martxoaren 18ra arte dago zabalik. Aurten ere gaztelekua izango da topalekua eta prezioa 70 euro da umeko. Zaintza zerbitzua ere egongo da; 50 euro da prezioa. Lau eta hamabi urte arteko ume eta gaztetxoak joan daitezke aurtengo udaleku irekietara.

Ludoteka ibiltariak 'jumping'-a eramango du Errementari plazara

Errementari plazan egongo da bihar, zapatua, goizean Txaloka ludoteka ibiltaria, eta bi aukera eskainiko die ume eta gaztetxoek: naturarekin sormen lana egitea eta *jumping*-a probatzea. 11:00etatik 13:30era egongo da. Eguraldi txarra eginez gero, Euskaldun Berria gelan izango dira begiraleak.

Elkartasun afaria egingo du gaur misio taldeak Bidaurretan

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, elkartasun afaria egingo dute gaur, egubakoitza, iluntzean. Hervé-k emango du afalosteko hitzaldia, eta Maliko egoeraz berba egingo du. Bidaurretako fraideen lokalean da hitzordua, 20:30ean. Batzen den dirua misio taldeak Haitin babesten duten proiektura bideratuko da.

Eskolako bidean egitasmoko argazkiak ikusgai astelehenetik

Eskolako bidean zer gustatzen zait? Zer ez? galderen erantzunak argazkietan jaso dituzte herriko ikasleek, eta argazki horien erakusketa astelehenean zabalduko dute. Martxoaren 18ra arte egongo dira ikusgai, kultura etxeko erakusketa gelan, 18:00etatik 20:00etara. Hezkuntza Mahairen egitasmoa da.

Oraindik badaude sarrerak Brahms-en 'Requiem'-a entzuteko

Brahms-en *Requiem*-a entzuteko sarrerak ari dira saltzen poliki-poliki. Hilaren 20an interpretatuko du obra hori Oñatiko Ganbara abesbatzak, parrokiari, 19:00etan. Oraindik, baina, gelditzen dira sarrerak, eta bi modu daude eskuratzeko: Txokolateixia eta www.ganbara.sacatuentrada.es. Prezioa da hamar euro.

Kiroldegiaren abonatu kopuruak %25 egin du gora hamalau hilabetetan

- lazko irailetik hona 462 lagun abonatu dira
- Autofinantzazio maila %65 pasatxokoa da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegiak emaitza ezin hobeak izan ditu azken urtean. Abonatu kopuruak gora egin du, nabarmen, gainera, Udaleko Kirol Saileko ordezkariak jakinarazi dutenez, eta oso pozik aurkeztu dituzte datuok. Era berean, kudeaketa ereduaren gainera hausnarketa abiaraziko dutela aurrean iragarri dute.

530 lagun gehiago

Iazko urtariletik abendura bitartean 420 lagun abonatu ziren, eta gorazko joerari eutsi egin diote 2016an ere; izan ere, martxora artean beste 110 abonatu gehiago daude; hortaz, guztira, 530 dira. "Igoera, batez ere, irailetik aurrera gertatu da; irailaren 7an 2.188 abonatu zituen kiroldegiak eta martxoan 2.650 ditu", azaldu du Asier Muxikak, Kirol teknikariak.

Ibarran eskaintzen dituzten jardueretako partaide kopuruak ere gora egin zuen iazko ikasturtean: ia, %40, hain zuzen ere. "Igeriketa, spinninga, RTX, zumba... jende asko dabil jarduera horietan, eta oso pozik gaude", dio Mikel Uribebarriak, Kirol zinegotziak.

265.000 euroko galerak

Datu ekonomikoei dagokienez, gaur egungo autofinantzazio maila %65ekoa dela jakinarazi dute. Kiroldegiaren gastua guztira da 778.468 euro, eta sarrerak, ostera, 512.713 euro; hortaz, azken urtean izan duen galera da 265.754 euro.



Asier Muxika, teknikaria eta Mikel Uribebarria, zinegotzia. | MIRARI ALTUBE

"Aretxabaletar bakoitzari urtean 38 euro dagozkio galera horretatik", dio Uribebarriak eta gaineratu du: "Hala ere, autofinantzazio maila oso ona da, kontuan hartuta Gipuzkoan dauden hainbat kiroldegi".

Aurtengo erronkak

Aurtengo erronkak ere zehaztu dituzte. Batetik, zerbitzua hobet-

zen joan gura dute eta horretarako abonatuaren iritzia ezinbestekoa deritzote. Hala, gogobetetasun inkesta egingo diete hil honetan bertan: "Orain dela bi urte ere egin zen, eta emaitzak alderatuta ondorioak aterako ditugu hobetzen joateko".

Bestetik, kudeaketa ereduaren gainera hausnarketa abiaraziko dute, 2017an lehiaketara aterako dutelako zerbitzua: "Azken lau urteotako ereduak ikertuko dugu, eredu ezberdinak mahai gainean jarri gero eta Kirol batzordean eztabaidatu. Eredurik eraginkorrena aukeratzea izango da kontua", dio zinegotziak.

Erronka horiekin batera, beste hainbat zehaztu dituzte: informazioa abonatuaren eskura jarri; barne araudia zehaztu eta onartu; eskaintza berritzailea eta anitza bermatu; eta mantentze eta garbiketa lanak hobetu, besteak beste.



Sinadurak jasotzen jarraituko du Erain Debagoiena ekimenak

M.A. | ARETXABALETAKO

Erantzun ezin hobeak jaso du Erain Debagoienak herritarren aldetik, eta sinadurak jasotzen jarraituko du Aretxabaletako lantaldeak. Gaur, egubakoitza, Durana kalean egongo dira 18:30ean hasita. Apirila bukatu artean jarraituko duela bilketak iragarri dute; hurrengo asteotan, Pagaldaixena taberna izandakoa zabalduko dute eguaztenetan, pintxo pote egunean, sinadurak jasotzeko eta mokatutxo bat eskaintzeko herritarrei. Horretarako, herriko gastronomia elkarteak laguntza izango dute.

1.000 sinadura baitz

Arkupeko aretoa lepo beteta zela aurkeztu zituzten joan den zapatuan ekimenaren nondik norakoak, eta ekainaren 12an egingo den herri galdeketa bidean eman beharreko pausoen egutegia. Horri babes emango dioten sinadurak jasotzea da hain zuzen lehenengo lana; Debagoienan 10.000 sinadura jaso gura dituzte eta Aretxabaletan 700 bakarrik behar izanda ere (biztanleriaren %10) erronka da 1.000 batzea. Egun bakarrean, zapatuan, 335 jaso zituzten; hortaz, antolatzaileek uste dute laster iritsiko direla.



Galdeketa babesa agertzeko sinatzen, joan den zapatuan. | M.A.

Aretxarteko merkatariek Ixadebaldeko jeneroa erakutsiko dute kalean

M.A. | ARETXABALETAKO

Joan den zapatuan egin zuten Ixadebalde merkealdien azoka Aretxarte elkartearen merkatariek, baina eguraldiak ez zien batere lagundu; izan ere, postuak Iturrigorri pilotalekuan jarri arren, hotz handia egin zuen eta ohi baino jende gutxiago gerturatu zen.

Hori horrela, hara eramandako jeneroa kalera aterako dute gaur eta bihar, zapatua, eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Merkatariek bakoitzak denda aurrean izango dituzten produktuak, herritarren eskura; arropa dende, esaterako, neguko jeneroa kendu gura dute prezioak beheraino jaitsita.

Gaur du Basotxo erretiratuen elkarteak batzar nagusia

M.A. | ARETXABALETAKO

Egoitzako areto nagusian egingo du Basotxo erretiratuen elkarteak batzar nagusia gaur, egubakoitza. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena 17:00etan. 975 bazkidek dute bertara agertzeko gonbidapena.

Iaz egindako memoriaren eta diru kontuen berri emango dute eta horiek onartuko dituzte lehenengo kontrakorik ez bada. Gero aurkeztuko dute aurtengo gestio plana, eta zuzendaritza batzordeak egindako akordio berrespena ere eskatuko dute. Eta zuzendaritza batzordea osatuko duten kide berriak aukeratzeko dituzte

bukatzeko; hiru lagunek utziko dute hori eta beste hiru lagun sartuko dira. Bukatu aurretik galderak egiteko aukera ere izango dute bazkideek.

ETBko 'Burubero' salora

Bestetik, ETBko Burubero saiora ikusle joateko gonbidapena jaso dute Basotxoko erretiratuek. Apirilaren 1ean, egubakoitza, izango da; autobusa hartuko dute 14:30ean eta itzuliko dira 20:30ean. Izena aurrez eman beharra dago Basotxoko bulegotik pasatuta (astelehenetik egubakoitzera, 11:00-12:00). Egun horretan Kurtzebarri institutu-ko ikasleak ere joango dira.

Bazkideei eskerrak emango dizkie UDAk domekan

M.A. | ARETXABALETAKO

Bazkidearen Eguna egingo du Aretxabaletako kirol elkarteak domekan, martxoak 13. "Urtean zehar babes handia ematen digute bazkideek, eta, zelanbait, eskertu egin gura ditugu", jakinarazi dute. Hala, etzi, hirugarren mailako futbol taldearen partidua ikustera joandakoen artean otarre bat eta UDAko materialarekin osatutako sorta bat zozketatzeko dituzte. Aretxabaletako taldeak Ondarroako Aurreraren aurka jokatuko du eta zuzendaritzako kideek bertaratzeko dei egin dute: "Etorri Ibarra girotzera, taldeak guztion babes behar du eta".



M.A.

Lur-jausiak bidegorria itxi du

Eguazten gaua eta eguen goiza bitartean jausi zen lurra Aretxabaletatik Eskoriatzara doan bidegorrian, eta errepideraino iritsi, aurrean eramandako zuhaitzak eta guzti. Oinezkoak seguru pasatu ahal izateko, Arizmendi Ikastolara zihoazen umeak eta gazteak, besteak beste, ingurua egokitzen jardun zuten udaltzaiek eta ertzainek. Orain dela hiru urte ere antzeko lur-jausi bat gertatu zen handik oso metro gutxira.

Aldarrikapenak, hausnarketa eta ospakizunak, emakumea ardatz

Emakumeen Nazioarteko Eguna dabilta ospatzen zapatua ezkerro, eta jarraipena izango du: bihar Fun Dantz erakustaldia eta etzi Aresko martxa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Martitzenean izan zen Emakumeen Nazioarteko Eguna, baina, Herriko Plazan aldarrikatu zuten legez *–Martxoak 8 egunero izan dadila–*, ekitaldiek jarraitu egingo dute. Kaleko dantzen erakustaldia izango da bihar Ibarra kiroldegian (18:30), eta domekan Aresko martxa egingo dute Aretxabaletatik Eskoriatzara (11:00).

Omenaldiak eta aldarrikapena

Herriko artisen erakusketarekin hasi zituzten Emakumeen Eguneko ekitaldiak joan den zapatuan, eta domekan omenaldien txanda izan zen. Karmele Untzueta aretxabaletarrak eta Pilar Antsoategi arrasatearrak erratz bana jaso zuten feministen eskutik; hala, aitortu gura izan zieten berdintasuna lortzeko bidean egindako ekarpena.

Bestetik, kirolean ere emakumeek zeresan handia dutela erakutsi zuten domekan. UDAk antolatutako hirugarren frontenis lehiaketako finalak pilotalekua bete egin zuen. Ainara Mugak eta Amaia Ariznabarretak irabazi zieten (25-10) herriko ordezkariak, Rosa Ojueli eta Lore Martinez. "Antolatzaileak zoriondu gura ditugu, sekulako lana egin dutelako", adierazi zuten irabazleek.

Martxoaren 8a, oster, aldarrikapenerako eguna izan zen eta Udal ordezkariak, feministek eta herritarrek bat egin zuten emakumeen borroka agerian uzteko. Eta eguaztenean, feminismoaren eta euskaltzetasunaren gainean jardun zuten kontu-kontari Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel kazetariak lagun eginda.

Emakumeak ere bai kirolean

Aste bukaera honetan ere izango dira kirol kontuak. Domekan, Aresko martxa egingo dute Aretxabaletatik Eskoriatzara, 11:00etan irtenda Herriko Plazatik. "Aldarrikatu nahi dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kirolean eta bizitzako arlo guztietan", zioen aurkezpean Lander Goikoetxeak, Ares-



Pilar Antsoategi eta Karmele Untzueta herriko feministen artean. | EKAITZ FILARMENDI



Udal ordezkariak, feministak eta herritarrek elkarretaratzean. | MIRARI ALTUBE



Frontenis txapelketako finalistak. | E.F.



Agirre eta Eskisabel, Arkupen. | M.A.

ko Saskibaloit Taldeko koordinatzaileak. Martxa hasi aurretik, gainera, kirolari izandako emakume bat omenduko dute: Matilde Garai. Gipuzkoako atletismoan zeresan handia izan zuen hark;

1973an Espainiako txapeldunordea izan zen 800 metroko proban, barruko pistan. "Emakume apala eta xumea, gizonen artean korrika egin duena inolako lotsarik gabe", zioten antolatzaileek.

'Juanita Kuxkuxek beldurrik ez' ipuin kontaketa bihar

Eskarmentu handia duen Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971) kontalari ezagunak *Juanita Kuxkuxek beldurrik ez* ipuina kontatuko die lau urtetik gorako neska-mutikoei, bihar, zapatua, 11:30ean, Udal Liburutegian (debalde). Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren bueltako ekitaldien artean dago kontaketa saioa.

Bizkarra ondo zaintzeko argibideak emango dituzte kiroldegian

Ezagutu eta zaindu zure bizkarra izenarekin, David Spine Concept metodoaren berri emango dute martxoaren 18an, egubakoitza, Ibarra kiroldegian, 18:00etan. Hitzaldi teorikoa eta praktikoa izango dela iragarri dute, eta arropa erosoarekin joatea komeni da. Izena aurrez eman behar da kiroldegian bertan (943-03 98 42); azken eguna martxoaren 17a da.

'La chica danesa' eta 'Alvin y las ardillas' filmak aste bukaeran

Einar eta Gerda Wegener artista daniarren istorioa kontatzen duen *La chica danesa* (Erresuma Batua, 2015, 120 min.) filma izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umeek, oster, *Alvin y las ardillas* marrazki bizidunak dituzte bihar eta etzi (17:00).

Euskal film laburrak martitzenean Arkupen

Laburbirak zortzi ekoizpen dakartza; Iker Azkoitia aretxabaletarraren *Semeak*, besteak beste

M.A. | ARETXABALETA


Laburbira, film laburren zirkuituaren hamahirugarren edizioa, Loramendi Elkartearen eskutik iritsiko da oraingoan ere. Euskarazko zortzi ekoizpen datoz martitzenean, martxoak 15, Arkupera (19:00), eta horietako baten egilea Iker Azkoitia aretxabaletarra da.

Genero eta estilo asko

Ordubete inguruko iraupena duen aurtengo sortan hainbat genero eta estiloko lanak daudela jakinarazi dute antolatzaileek; umorezkoak, drama ukitua dutenak, eta baita beldurrezkoak ere. "Hainbat irizpide hartu ditugu kontuan; besteak beste, genero ikuspegia, euskalkia, lurraldetasuna eta euskarekiko sentibilizazioa", diote. Hiru minutu ditu laburrenak eta hamasei, luzeenak. Honako hauek dira: *Zea bingo* (Ane Urkiola); *Erreplika* (Iñigo Gaiton); *Jorrai* (Uda films); *Fishurako bat* (Aitor Gametxo); *Bere bizitzeko bat* (Eritz Alberdi); *Hartz txiki* (The Arlotes); eta *Semeak* (Iker Azkoitia).

Azkoitiaren lana, saritua

Azkoitiaren lanak bikote gazte baten gainean dihardu; izan gura duten seme-alabaren ize-naz eta eman gura dioten hezkuntzaz iritzi ezberdinak dituzte. Halako batean, etxean istripua izango du bietako batek eta bizimodua goitik behera aldatuko zaie. Kontseiluak eta Donostiako Zinemaldiak antolatutako *Euskaraz bizi nahi dut* sariketan profesionalen ataleko lehen saria eskuratu zuen. "Laburbiran egotea aukera ezin hobea da, jende askorengana heltzeko bidea errazten du eta", jakinarazi du Azkoitia.



Iker Azkoitia. | IKER AZKOITIA

Huhezinema jaialdiak filmez beteko du Arkupe eguaztenetik

M.A. | ARETXABALETA

Indartsu hasiko dute bederatzi-garren Huhezinema jaialdia Huheziko kideek; nazioarteko film laburren emanaldiarekin, hain zuzen ere. Eta, gainera, ezustekoz beteta datorrela aurtengo jaialdia iragarri dute.

Donostiako Zinemaldiaren kolaborazioari esker, bi film labor eskainiko dituzte martxoaren 16an, 09:30ean, Arkupen: *Nueva Vida* (2015, Kiro Russo) eta *Volando voy* (2015, Isabel Lamberti). Bi filmak azken Zinemaldian sarituak izan ziren.

Behin filmak ikusita, 11:00etan *master class*-a izango

dute ikasleek aparteko bi irakaslerekin: *Pikadero* filmeko zuzendari Ben Sharrock eskoziarrarekin eta Irune Gurtubai ekoizlearekin. Hain zuzen, Gurtubai Huheziko ikasle ohia da eta Sharrocken lehen film luzea ekoiztu du.

Sari banaketa hilaren 18an

Lehiaketa ere bada Huhezinema, eta aurtan 113 lan jaso dituzte guztira: Basque Culinary Center sailean, hamar; MUko ikasleen sailean, 13; eta sail ofizialean, 90. Finalera hamar iritsi dira eta sariak martxoaren 18an banatuko dituzte.

Halcon bidaiak.com

✓ Aretxabaletatik eta Arrasatetik irteerak

✓ Maiatzaren 17tik 31ra Torremolinosen egonaldia (hegazkinez; eta Arrasatetik autobusa)

Olarte 14 • Arrasate • 943 79 29 88



Sara Beloki eskoriatzarra modelo lanetan, desfilean.



Juani Gonzalezek egindako orratz-lanak.



Modeloa osagarriarekin.



Itsaso Errasti desfilean.



Lourdes Umerez artistaren lanetako bat. | IMANOL BELOKI

Garbiñe Uribe | Kirolari omendua

"Gaur egun, gizonak baino hobeto daude psikologikoki emakumeak"

I.B. | ESKORIATZA

Aresko emakumeen saskibaloitaldeak Areskoren I. Emakume Martxa antolatu du Martxoaren 8aren bueltan. Aretxabaletatik Eskoriatzarako martxa domekan izango da, 11:00etan, Aretxabaletako plazatik irtenda. Ekimenean, herri bakoitzeko kirolari bana omenduko dute, Eskoriatzan, kirolean esanguratsua izan den Garbiñe Uribe kirolaria izango da omendua, egindako lana eta dedikazioa aitortzeko.

Pozik, emango dizuten aitortzagatik?

Bai, nahiz eta hasieran ezetz esan nuen. Ez nuen espero, eta lotsa ematen zidan, baina, azkenean, nolabait, konbentzitu egin ninduten.

Kirolaria bai, baina herriko ekin-tzak antolatzen lanean zabilzta beti?

Azken hamar urteotan antolatzen gehiago aritu naiz kirola egiten baino. Lehen, antolatzeaz gain, parte ere hartzen nuen. Baina gaur egun, herriari lagun-



Garbiñe Uribe. | I.B.

tzen soilik aritzen naiz.

Sasoi batean ez zebilen hainbeste emakume kirolean bueltan?

Agian, lehen, esaterako, atletismoarekiko zaletasun handia zegoen herrian; mendiarekiko ez hainbestekoa.

Nolakoa da gaur egun emakumeen egoera kirolean?

Gaur egun, parte hartze handiagoa dago emakumeen aldetik. Oso fuerteak dira fisikoki, eta psikologikoki gizonak baino hobeto daudela uste dut.

Mendi sailean, ikurra Eskoriatzan

Eskoriatzako Kirol Elkarteko mendi saileko ikur izan da urte askoan Garbiñe Uribe. Federatu nahi izan duten pertsonentzat erreferente da, eta izan da Eskoriatzan. Eskiatzera joateko bidaiek ere antolatu ditu, eta, azken urte hauetan, Gabez Takarraran eta Silbestradie koordinatzen eta, batez ere, horiek egin ahal izateko lanetan aritu izan da. Egindako lanarengatik eta izandako dedikazioagatik, Aresko Eskolak eta bertako gurasoek omenaldia egingo diote.

Mugibili webgune librea ezagutzeko saioa izan da

I.B. | ESKORIATZA

Eusko Jaur-laritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako kirol sailak eta Eskoriatzako Udalak Mugibili egitasmoaren formazio saioa antolatu zuen eguaztenean. Bertan, Mugibiliren aukera eta eskaintzen berri eman zuten, eta bide batez webgunea nola erabiltzen den erakutsi zuten.

Mikel Bringas, Eusko Jaur-laritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako kirol kudea-

tzaileak gidatutako saioa izan zen.

Webgunea nola erabili

Kirol antolatzaile edo erakunde batek bere ekintzak Mugibili webgunean ezarri nahi baditu, izen-abizenak, pasahitza, eta helbide elektronikoa jarri behar ditu soilik.

Doako webgunea da, eta kirol jardueren eskaintzak zabaltzeko erabiltzeko tresna.

Mara-Mara taldea Inkernun izango da zapatuan

Luis Vil gitarra-joleak, Junkal Altzugarai abeslariak eta Igor Artzuaga piano-joleak emenaldia eskainiko dute Inkernu tabernan zapatuan, 22:30ean. Formatu akustikoan izan arren, abesti lasaiak eta gogorrak joko dituzte. Folk, kabaret eta rock estiloen nahasketaz osatutako emenaldia izango da.

'La boda de Betty Blue' antzerkia izango da Zaldibarren domekan

Galder Perez zuzendariaren gidaritzapean, Justi Larrinagak eta Leyre Berrocalek antzeztuko dute intrigazko obra izango da ikusgai domekan Zaldibarren, 19:00etan, lau eurotan. Ikuslea adi mantentzeko helburuarekin, detektibeek heriotza baten inguruko aztarnak bilatu behar dituzte.

Ibarraundi txiki geratu zen martitzeneko ekitaldian

Emakumeen Egunearen harira kale agerraldia ere egin zuten egunean bertan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Egunearen harira udaleko berdintasun sailak Auzoko, Zapatista, Hankamotx eta Amuska taldeekin batera antolatuta, jaialdi bikaina izan zen martitzeneko Ibarraundin. Debagoieneko diseinatzaileen moda desfilea, bertsolariak, musika... izan ziren, besteak beste. Hau guztia, Eskoriatzako emakume artisten lanen erakusketa inauguratzeko.

Txalapartariak eta bertsoek eman zioten hasiera ekitaldiari, eta ongiatorria euskaraz, gaztelaz eta kurduez ere egin zen.

Erakusketa inauguratzeko moda desfilea izan zen Debagoieneko diseinatzaileen eskutik eta modelo lanetan herritarrak ibili ziren. Arrakasta handia izan zuen, eta Ibarraundi txiki geratu zen: Katalin Antxiaren, Itziar Martinezen, Eli Gallastegiren, Laubururen, Ana Parraren, Amaia Alvesen, Auzokoren eta Eskoriatzako Kirol Elkarteko diseinuak izan ziren.

Ekitaldiari amaiera emateko, berriz, kontzertu akustikoa izan zen, eta ondoren, Auzoko elkartekoek tea eta janaria prestatu zuten bertaratutakoentzako.

Erakusketa ikusgai

Emakume sortzaile eta artisauen lanak martxoaren 8tik 18ra bitartean izango dira ikusgai Ibarraundi museoa. Asteazkera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta asteburuan 11:00etatik 13:00etara.

Herriko eta bailarako hainbat artistaren lanak izango dira ikusgai: Ana Larrañaga, Auritz Inurategi, Iraia Arzamendi, Beni Flores, Maria Romera, Nahikari Some, Paloma Martinez, Patricia Ruiz, Izaro Sanchez eta Juani Gonzalezenak, besteak beste.

Edukiontzi organikorako txip banaketa

Martxoaren amaiera aldera jarriko dira edukiontzi berriak Eskoriatzan, eta aste honetan edukiontzi organikorako txartelak banatu dituzte. Organikoaren edukiontziak sarrera kontrolatua izango du, eta, horretarako, etxebizitza bakoitzari txartel bana banatuko zaio. Eguaztenean Huhezin banatu zituzten, herriko auzo jakin batzuentzako, eta egunean eta gaur beste auzo batzuetan bizi direnentzat Ibarraundin. Txartelak jaso ez duenak Ibarraundin jasotzeko aukera izango du martxoaren 14tik aurrera, 10:00etatik 14:00ak arte.





Garazi Larrea eta Alaitz Igartzabal, Udal zinegotziak. | MAIDER ARREGI

Olatu Morea: korrika emakumeen eskubideen alde

Lasterketarekin eta festarekin ospatuko dute Emakumeen Eguna antzuolarrek bihar, zapatua

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Lehenengoz, kirola eta aldarrikapena eskutik datoz Antzuolan. Izan ere, Olatu Morea lasterketa egingo dute bihar, zapatua. Emakumeen eskubideen aldeko lasterketa izango da eta herritar oro dagoela gonbidatuta azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak: "Oinez edo antxintxika eginez

parte hartu daiteke lasterketan. Adin guztietako emakumezkoak zein gizonezkoak animatu daitezke. Nahi duenak oinez ere egin dezake, gainera". Lasterketa 17:30ean hasiko da, Herriko Plazan, baina 17:00etarako plazan egotea komeni dela diote antolatzaileek. "Lasterketa baino lehenago globoak banatuko ditugu.

Globoetan bakoitzak mezu bat idatzi beharko du eta ondoren, lasterketa bukatzean, globoak aireratuiko ditugu", azaldu du Larreak.

Globoak aireratu aurretik, baina, udaletxeko balkoitik aldarrikapena irakurriko dute. Izena egunean bertan eman daiteke, bai parte hartzeko eta baita antolakuntza lanetan laguntzeko ere.

Emakumeen Eguna, egunero

Martxoaren 8rako ekintzak antolatzen dituzten arren, Ongizate zinegotzi Alaitz Igartzabalek azpimarratu gura izan du urte osoan landu gura izaten dutela berdintasunaren gaia: "Berdintasuna lantzeko beharrezkoa da oraindik ere elkarrekin lan egiten jarraitzea, bai emakumezkoek eta baita gizonezkoek ere. Lanean jarraituko dugu, ez da-eta egun bateko edo hilabete bateko kontua soilik".

Mugimendu feministaren gaineko hitzaldia egingo dute hilaren 15ean

M.A. | ANTZUOLAX

Euskal feminismotik, XXI. mendean ditugun erronkak izeneko hitzaldia antolatu du Antzuolako Sortuk. Bilgune Feministako kide bat izango da solasaldian. "Egun gizartean ditugun ereduetatik harago, beharrezkoa ikusten dugu mugimendu feministaren ekarpena ezagutzea eta bultzatzea", azaldu dute. Hainbat gai landuko dira: "Buru-

jabetza feminista; mugimendu feministaren egoera; abiapuntua; XXI. mendeko jokalekuaren analisia; kapitalismoaren birsortzea, patriarkatua, krisia; segurtasuna; bakea, txarrantxa hesiak... besteak beste izango dira hizpide mahai gainean".

Estrategia eta erronkez ere jardungo dute martxoaren 15ean martitzena, Olaran etxean, arratsaldeko 18:45ean.



MAIDER ARREGI

Emakumeen Eguna aldarrikatuz

Martxoaren 8ko elkarretaratzean emakumeen eskubideak aldarrikatu zituzten. Bertan erakutsi zuten gazte txokoko neska-mutikoez egindako kartela ere. "Generoaren gaia landu dugu gazte txokoa. Zapatuan, Olatu Morearen ostean, gaztetxean kontzertua emango dute, 19:00etan", dio Itsaso Garmendiak dinamizatzaileak.



JAGOBA DOMINGO

Erain Debagoiena aurkeztuko dute

Gaur, martxoak 11, Erain Debagoiena ekimena aurkeztuko dute, 19:30ean, Zurrategin. Sinadura bilketa ere egingo dute. Ondoren, kriseiluak zeruratuko dituzte. Mokadutxo egongo da bertaraten direnendako. Otsailaren 27ko aurkezpenean antzuolar talde batek eman zuen babesa; orain, herritar guztiei aurkeztu gura diete ekimena.



Antzuolako gaztetxoak. | JAGOBA DOMINGO

Antzuolarren Kantariko saioa, apirilean ikusgai

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Goiena telebistan, apirilean izango da ikusgai gaztetxo antzuolarrek eta bergararrek Zabalotegin grabatutako Kantariko saioak: apirilak 16 (9:00 eta 16:30); apirilak 17 (10:30 eta 20:00); apirilak 19 (13:30 eta apirilak 22 (19:00).

Argazki galeria ere ikusgai dago Kantariren blogean: blogak.goiena.eus/kantari/2016/03/01.

Gainera, telebistako emisioa amaitutakoan, Kantariren blogean ikusi ahal izango dira saioak oso-osorik.

Instagramen martxan dago Kantariko argazki lehiaketa. Bertan parte hartzeko, igo Kantariko argazkiak bi traol hauekin: #kantari eta #goiena. Parte hartzen duten guztien artean tableta bat zozketatuko da.

OHARRAK

MARTXOAK 8: ZINEA

Gaur, martxoak 11, zinea izango da ikusgai Torresoroan, 20:00etan. Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan antolatuta, *Neska banda* (Girlhood) filma izango da ikusgai, Frantzia 2014-. Paris-ko auzo pobreetan gaztea, emakumea eta beltza izatearen patua da filmaren ardatza. Zuzendaria Celine Sciamma da. Euskarazko azpтитuluak dituen film frantse-
sa da. Sarrera doan.

Plaza-dantzak ikasteko aukera dago Oinarin taldearen eskutik

Plaza-dantzen erritmoak menperatu eta erromerietan dantzatzeko gaitasuna lortu gura dutenendako ikastaroa antolatu du Oinarinekin. Martxoaren 17ra arte dago izena emateko aukera, oinarindt@gmail.com helbidean edo 648 067 986 eta 690 650 106 telefonoetara deituta. Apirilean hasiko da hiru asteko ikastaroa.

Eskualdeko 300 gaztetxo domekako ibilaldi neurtuan

Antzuolari egokitu zaio Deba eskualdeko eskola arteko ibilaldi neurtua antolatzea. Mendi elkarrekin antolatzen dute, Gipuzkoako Mendi Federazioaren eskutik, eta Arrolak du, hortaz, ardura hori aurtan. Hala, eskualdeko 300 gaztetxok ibilaldi neurtua egitea espero dute domekan, 09:00etan, plaza-
atik abiatuta.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Parte-hartze aurreikuspenak bete egin dira aurkezpen ekitaldian

KOMUNITATEA GOIENA | GURE ESKU DAGO
ERAIN DEBAGOIENA | ARAMAIO

Ekitaldiak aise gainditu zituen parte-hartzearen alorreko aurreikuspenak. Bertan, elkartearen nondik norakoak ez ezik, galdeketa gauzatu bitartean eman go diren urratsak ere azaldu ziren. Ekitaldiko aurkezle lanean Joanito Saizarrek, Nuria Fernandez de Arroiabek eta Peru Abarrategi bertsolariak jardun zuten.

Bertaratuek talde argazkia atera zuten, eta, esan beharra dago, giroan poztasuna eta itxaropena zirela nagusi.

Sinadura bilketa

Segidan, sinadura bilketari ekin zioten, mokadutxo bat eta trikitiaren soinu alaia lagun zirela. Parte-hartzaile askok argazkiak atera zituzten #nikbeERAIN traolarekin, ekimenarekin bat egiten dutela erakusteko.



Talde argazkia egin zuten aurkezpen ekitaldian. | ERRAIN DEBAGOIENA

OHARRAK

ALAIK ERRETIRATUAK

Alaiak erretiratuen elkarateak urteko batzar orokorra egingo du datorren egubakoitzean, hilak 18, kultura etxean. Lehenengo deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena 17:00etan. Bazkideak daude deituta bilerara.

BERTSO KUADRILLA

Argantzunen egingo dute Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa-

ren azken saioa, bihar, zapatua. Aramaiok bi talde izango ditu.

JAIETAKO BATZARRA

Jai batzordeak herritarren iritzia jakin gura du San Martin jaiak antolatzeke. Horretarako, batzarra egingo dute martxoaren 14an, 18:00etan, Udaletxean. Idatziz ere bidali daiteke proposamena: itxasokultura@cua-drillazuia.com helbidera.

Ibilgailuen zerga apirilaren 29ra arte ordain daiteke

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea zabalik dago: apirilaren 29ra arte dago horretarako aukera. Ordainketa bankutik helbideratuta dutenei apirilaren 4an kobratuko zaie. Borondatezko epea igarota, kuotek %5eko gainkargua izango dute.

Trikiti eskolak kontzertua eskainiko du gaur, barikua

Gaur, barikua, trikiti eskolak kontzertua eskainiko du, 19:30ean -3 euro sarrerarekin. Bateriaz, gitarraz eta baxuaz osatutako talde batek lagunduta egingo dute ekitaldia; gainera, Xabi Igoa, Peru Abarrategi eta Maria Izaga ere izango dira. Ondoren, afaria egingo dute Añai tabernan.

Adif-ek zundaketak egingo dituen arren, Udala arduratuta

Joan zen egubakoitzean beste lur-jausi bat gertatu zen Untzillan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaion zeukaten beldurra ez da egia bihurtu, eta aste bukarako eguraldi txarrak ez du Aramaioko lur-jausian eraginik izan. Luizia ez da areagotu eta ez da ezbeharrak handitu. Hala ere, egoera oraindik ez da konpondu. Adif hasi da lur-jausiaren zergatia ikertzen: zundaketak egingo ditu.

"Baserria kontrolpean izateak lasaitzen gaitu baina arduratuta gaude ez dakigulako zela bukatuko den hau", azaldu du Lierni Altuna alkateak. Gainera, kezka orokorra da: "Hor hau gertatu bada, ez dakigu gure herritik pasatzen den beste gune batzuetan zer gerta daitekeen", dio.

Bolinburun argi barik

Otsailaren 19an lur-jausia egon zen toki berean, AHTko euste horma bat behera etorri zen aste-bete geroago eta ondorioz Bolinburun argi barik gelditu ziren. Bada, joan zen egubakoitzean - martxoak 4- horma eusten zegoen gerrikoaren zati bat erori zen. Adifek segurtasun langile bat jarri zuen, lur-jausiak izan dezakeen bilakaera jarraitzeko. Lugartegi baserriko bizilagunak etxetik kanpo jarraitzen du.



Martxoaren 4an gertatutako lur-jausia Untzillan. | LEIRE KORTABARRIA

Mozioa eta bandoa

Aramaioko Udalak otsailaren 25ean egindako ohiko bilkuran Lugartegi eta Bolinburu arteko AHTko obretan gertatutakoaren gaineko mozioa onartu zuen. "AHTko gertakaria oso larritzat jotzen du" Aramaioko Udalak eta "ustez amaituta dauden obra batzuetan horrelakoak gertatzea salatzen du". Adifi, AHTko obren arduraduna den erakundeari, eskatu dio, era berean, "lehen-bailehen gertakari honen arriskuak ebaluatu eta neurriak har-

tzeko. "Gertakari honek zuzenean eragiten dion baserriaren egoerari konponbidea emateko", baserriko jabeak "egoera argitu eta konpondu artean bere babesa eta laguntza" ematea, eta oro har, Abiadura Handiko Trenari dagozkion obren "berrikuspena", herritarren eta inguruen segurtasuna" bermatzea exijituz. Mozioa Adifi, AFari eta Eusko Jaurlaritzari bidali diote dagokionari betetzea eskatuz. Mozioan onartutako puntuak jasotzen dituen bando atera du Udalak.

Emakumeen Eguna ospatu dute asteen

Itur-Zuri elkarateak eta Udalak antolatuta, hainbat ekitaldi egin dituzte Emakumeen Egunaren harira. Martxoaren 8an, martitzena, kartel lehiaketako sariak banatu zituzten. Maider Aldai izan da aurtengo irabazlea: irudian, haren ama Olga Parra saria jasotzen Jose Ramon Uriberen eskutik.



LEIRE ESPINOSA

Arabako Haur Abesbatza Txikien Eguna ospatuko dute bihar

A.E. | ARAMAIO

Aramaiok hartuko du aurtengo Arabako Haur Abesbatza Txikien Eguna.

110 ume elkartuko dira Aramaion kontzertu berezia eskaintzeko. Zuzendari lanak egiteko gonbidapen berezia egin diote Teresa Apeztegiari, Iruñeko Orfeo Txikiko zuzendariari.

11:00etarako helduko dira neska-mutikoak Aramaiora. Goizean entseguak izango dituzte eskolako gimnasioan; ondoren, 13:30ean bazkaria izango dute eta 15:00etan berriro hasiko dira entseguen.

Kontzertua, kiroldegian

Kontzertua kiroldegian egingo dute, 18:00etan. Emanaldiaren

ondoren txokolate beroa banatuko dute gaztetxoan artean.

Arabatxo federazioa

Arabako haur abesbatzen federazioa 1991n sortu zuten, lurraldeko haur abesbatzak sustatzeko asmoz. Gaur egun hiru ekintza nagusi antolatzen dituzte: Olenzero, Ostegun Gizena eta Haur Abesbatzen Eguna. Zortzi abesbatzak osatzen dute federazioa; tartean, Aramaioko Papargorri abesbatza dago -zuzendaria: Larraitx Arriolabengoa-.

Haurreskolako hezitzaileek eta gurasoek eskatuta hainbat hobetze lan egin dituzte

A.E. | ARAMAIO

Azkeneko hilabeteetan hainbat lan egin dituzte haurreskolan, haurren heziketa eta egunero-kotasuna hobetzeko.

Terrazan zegoen esponja zaila zen sikitatzeko; ondorioz, lizuna sortzen zen. Esponja kendu eta lurrean ez labaintzeko azulejoak jarri dituzte, eta horma leundu egin dute.

Harraska jarri dute

Sukaldeko ontziak garbitzeko komuneko konketa erabiltzen zuten orain arte; orain, harraska bat jarri dute lan horiek errazteko.

Bestalde, lehen bi komun zeuden. Bada, legeak behartzen duen bakarria utzi dute eta beste kendu egin dute espazio handiagoa izateko.

ELGETA

Domekako lasterketarekin borobilduko dute Martxoaren 8a

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Ikusmina sortu du herritarren artean Martxoaren 8rako Alicia Gartziak prestaturiko argazki erakusketak. Argazki sortak herriko hamazortzi amama ditu protagonista. Martxoaren 8an herriko plazan egindako elkarretartzearen ostean inauguratu zuen erakusketa zeramika gelan. Herriko makina bat emakume agertzen dira bertan. Erakusketa hilabete egongo da ikusgai.

Domekan lasterketa
Domekarako, martxoak 13, berdintasunaren aldeko lasterketa iragarri du herritar talde batek. Lasterketa 12:00etan hasiko da —ordubete atzeratu dute antolatzailleek—, eta ibilbidea da: herriko plaza, Maala parkea, Maala kalea, Domingo Iturbe kalea, San Roke ostea, San Roke kalea, Torrealdea, Salvador ostea eta Salvador plaza.
Adin guztietako bikote mistoak daude parte hartzera deituak. Udaletxean edo botikan aurki daitezke izen-emate orriak. Amaieran, salda beroa eta jokoak egongo dira, herriko plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.



Herritarrak, Martxoaren 8an, Alicia Gartziaren erakusketa ikusten. | L.Z.



Eskolako ikasleek eta irakasleek ateratako argazkia . | ELGETAKO HERRI ESKOLA

'Berdin + Da' aldarrikatu dute eskolatik

Elgetako Herri Eskolan ere Martxoaren 8arekin lotuta ekintza bereziak egin dituzte aurtun. Gaia lantzeko hainbat jarduera egin dituzte ikasleek eta irakasleek. Amaitzeko, guztiek batera, *Berdin+Da* mezua jasotzen duen leloarekin argazkia egin dute.



Udalak kartel berriak ipini ditu txakur-jabeei gogora ekartzeko duten ardura. Ez da kontu berria, baina orain arteko kontzientziazio kanpainen ez dute emaitzarik lortu, eta gero eta gehiago dira kexu diren herritarrak. Herriko kaleak eta, batez ere, berdeguneak txakur-kakaz beteta daudela diote askok, eta egoera onartezina dela.

OHARRAK

KANTSATZEKE
Mendi taldeak bihar, zapatua, egingo du irteera Ganaltora. Argibideak: kantsatzeke@gmail.com.

GARBIGUNE IBILTARIA
Salvador kaleko plazan izango da, eguaztenean, martxoak 16, 10:00etatik 21:00etara.

PODOLOGOA
Erretiratuendako kontsulta martxoaren 17an. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

LEINTZ GATZAGA

Angula kiloaren zozketarako txartelak erosteko azkeneko egunak

Sorango bertso afarirako izena martxoaren 17a aurretik eman behar da

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA
Martxoaren 19an zozkatuko dute angula kilo Labidea saltokian. 20:00etan izango da. Dena den, zozkatzeaz gainera, ikusgai ere jarriko dituzte angulok zozketa aurretik, ontzi batean, bizirik.
Ekimen hori Leintz Gatzagako Korrika batzordearen eskutik egingo dute; izan ere, aurtun Korrika urtea ez izan arren, azken urteotako ohiturari eustea erabaki du taldeak.
Zozketan parte hartzeko txartelak udalerrian bertan daude salgai, Labidean. Baina horrez

gainera, bestelako puntu batzuetan ere izango da erosteko aukera, Eskoriatzan kasu. Gatzagarrak eurak arduratuko dira txartelak saltzeaz.
Txartel irabazlearen jabeak martxoaren 26ra arte izango du saria jasotzeko epea. Zenbaki sariduna zein den Goienaren bitartez jakinaraziko da, pape-reko edizioan eta Interneteko atari *Goiena.eus-en*, eta txartelen saltokietan ere iragarriko dute.
Bestalde, eta angulen zozketaren ohituraren barruan egiten dutenari eutsita, zozketaren

ondoren bertso afaria ere antolatu du Korrika batzordeak, Soran etxean. Afarirako izena martxoaren 17a baino lehen eman behar da: 943 71 53 98 telefono zenbakian. 22 euro ordaindu behar da.
Aurtengo bertsolari gonbidatuak Aitor Mendiluze (Andoian, 1975) eta Aitor Sarriegi (Beasain, 1976) izango dira. Sarriegik, besteak beste, 2011n Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Eta Mendiluzek birritan jantzi du txapel hori: 1995ean eta 2007an.

Aste bukaeran ekingo diote Elgetan herri galdeketa aldeko sinadura bilketari

L.Z. | ELGETA
Erain Debagoiena plataformako Elgetako ordezkariak aste bukaeran abiaraziko dute sinadura bilketa erabakitzeko eskubidearen gaineko herri galdeketa egin ahal izateko. Gaur, barikua, 18:30etik 20:00etara ipiniko dute mahaia plaza inguruan. Domekan ere ipiniko dute, 12:00etatik 14:00etara. "Bailaran topera dabilta sinadurak batzen.

Gu asteburu honetan hasiko gara. 200 baietz!", adierazi dute Elgetako lantaldek.
Ekainaren 12rako iragarri du herri galdeketa Erain Debagoiena plataformak. "Debagoienan 10.000 sinadura lortu nahi ditugu, eta Elgetan 200. Ez da erronka makala! Gogoratu 16 urtetik gorakoek ere sinatu eta bozkatu ahal izango dutela", jakinarazi dute.

Elgeta eta Eibar arteko garraio zerbitzu guztiak hamar minutu lehenago, astelehenetik aurrera

Herritarrek egindako eskaera bati erantzuna emanez hamar minutu aurreratuko dituzte Elgeta eta Eibar arteko autobus zerbitzu guztiak, astelehenetik aurrera. Eibarren linea ezberdinen artean lotura egiteko zailtasunak bultzatu dute aldaketa. Gehienbat, Donostiara ikastera joaten diren ikasleek zuten arazoa. Interesatuak udal webgunean daukate ordutegi eguneratua.

Gaur, barikua, bi ipuin kontalari saioa izango dira liburutegian adin tarte ezberdinetako umeendako

Gaurtik aurrera udal liburutegiko Ipuinen Ordua ekimeneko boluntarioek bi saio egingo dituzte hamabostean behineko eskaintzan. 16:40tik 17:15era 5 urtetik gorako umeendako izango da saioa, eta 17:25etik 18:00etara txikiagoendako. Urte hasieran egindako balorazio bileran adostu zuten boluntarioek egokiagoa izango zela aurrerantzean adin tarte biak bereiztea.

Martxan da Elgetako Aisa taldea; hamaika lagunek eman dute izena, eta astean egin dute lehen saioa

Elgetako Udalak Uemarekin elkarlanean egindako deialdiak harrera ona izan du, eta eguaztenean elkartu zen lehen aldiz Elgetako Aisa taldea. Hamaika lagunek eman dute izena, eta taldea astelehenetan eta eguaztenez elkartuko da, 16:30etik 18:30era. Euskal Herrira etorri berriak direnendako euskara harrera ikastaroak eskaintzen ditu Aisa programak.

Domekan Espaloia kafe antzokian egitekoa zen Sormening tailerra Elorrioren egingo dute

"Gure esku ez dauden arrazoiengatik saioa Elgetan izan beharrean Elorrioren izango da, Txintxirri ikastolan. Gozatzeko, jolas-teko eta sortzeko aukera familiako kideekin, eta beste familia batzuekin! 11:30etik 13:00etara Elorrioko Txintxirri ikastolan".

KOMUNITATEA GOIENA
SORMENING | ELGETA

LEINTZ GATZAGA

Etzi, domekan, emakumea protagonista duen filma

Sampat neskatoa, beste asko bezala, ezkontzera behartu zuten oso gazte zela, eta tratu txarrak eta esplotazioa bizi izan zituen senarraren familiarengandik. Haiengandik ihes egin zuen, eta urteak daramatza emakumeen eskubideen aldeko borrokan.
Istorioren hori du oinarri *Pink Saris* filmak, emakumeen gaineko film zikloaren barruan etzi, domeka, Labidean 18:00etan emango duten pelikula, alegia.
Martxoaren 20an bukatuko da Udalak antolatutako zinema zikloa, *Coria eta Itsaso* filmarekin.

LEINTZ GATZAGA

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik da

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago. Hain justu ere, joan den astean, martxoaren 1ean ordaintzeko epea zabaldu eta apirilaren 30era bitartekoa eman dute. Bi bide daude ordainketa egiteko: udaletxeko bulegora joanda, edo banketxearen bitartez, zergen ordainketa helbideratuta duten herritarren kasuan —epe berean kobratzen zaie haiei ere—. Eta borondateko epearen barruan ordaintzen ez dieten herritarrei, berriaz, gainkarguarekin kobratuko diete zerga.

KIROLA

DUATLOIA

Distantzia motzeko Oñatiko Duatloiaren 25. lasterketa zapatuan

Euskal Herriko zirkuituko bosgarren proba puntuagarria izango da, eta, gainera, Euskadiko duatloi motz txapelketa jokatu da

IMANOL BELOKI | OÑATI

Zapatu honetan, Aloña Mendi Triatloi Taldeak, Gipuzkoako Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako distantzia motzeko duatloia izango da Oñatin. Aurten, hogeita bosgarren edizioa izango da, eta, iaz esprint distantziakoa egin bazen ere, aurten berriro distantzia motzera itzuliko da (9 km - 36 km - 4,5 km). Guztira, 210 duatletak eman dute izena, eta eguraldia lagun izatea espero dute antolatzaileek.

Mikel Larrea lasterketako antolatzaileetako baten esanetan: "Pertsona askok eman dute izena lasterketan, eta, aurten hogeita bosgarren urteurrena izanda, erakusketa prestatu dugu. Lasterketa hasi zenetik gaur egunera arte izan diren babesleen jantzi ezberdinen erakusketa zintzilikatuko dugu plazan".

Ibilbidea Oñatin zehar

Irteera eta helmuga Oñatiko Foruen plazan kokatuko dira. Lehen zatian, bederatzi kilometro antxintxika egin beharko dituzte, herrian zeharreko ibilbideari bi itzuli eginda, eta hirugarren atala 4,5 kilometrokoa izango da, ibilbide berari itzuli bat emanda. Bi atal hauen artean, bizikleta saioa egin beharko dute parte hartzaileek: 18,3 kilometroko herri barneko ibilbide bati bi itzuli eman beharko dizkiote, GI-2630 errepidetik. Hau da, Zubillagako biribilgunetik Elorregira joan beharko dute txirrindulariek, eta hantxe, berri-



Korrikalari taldea iazko Oñatiko Duatloian. | IMANOLS ORIANO

ro Oñatirako buelta hartu beharko dute. Bizikletan egin beharreko tartea bete ondoren, berriro ere 4,5 kilometro korrika egin beharko dute, Foruen plazan kokatuta egongo den helmugara iristeko.

Herri barruko lasterketa

Duatloia Oñatin zehar joango da, errepide nagusira irten barik: "Duela bi urte Deskargatik egin genuen lasterketa, baina zirkulazio arazoak direla-eta aldatu beharra izan dugu. Gainera, beste proba bat dago Tolosan,

eta bietako bati ibilbidea aldatu behar zaio errepide nagusira ez irteteko... askatasun handiagoa izango dugu", adierazi du Mikel Larreak. Hala ere, trafikoan ere eragina izango du lasterketak, eta Oñati-Elorregi noranzkoa itxita egongo da 16:00etatik 17:25etara eta Elorregi-Oñati, aldiz, 16:10etatik 17:35era.

Lasterketa 2016. urteko Euskal Herriko zirkuituko bosgarren proba puntuagarria izango da Euskadiko txapelketan, eta, gainera, Euskadiko duatloi motz txapelketa jokatu da.

Dorsalen banaketa eta irteera

12:45etatik 15:00etara bitartean izango da dorsalek banaketa, eta boxetarako sarrera 13:30etatik 15:15etara bitartean egin beharko da. Bestalde, emakumeen irteera 15:30ean izango da eta gizonezkoena, 15:45ean.

Eskerrak laguntzaileei

Antolakuntza taldeak eskerrak eman nahi dizkie boluntarioei beraien laguntzagatik. "Guztira, 70-80 pertsona inguru izango dira ibilbidean zehar laguntzen, eta hori eskertzekoa da.

IRITZIA

'OÑATI IS OÑATI'

IBAN PEREZ
ANTOLATZAILEA

Urte olinpiarra izan zen 1992a, Bartzelonakoa. Urte garrantzitsua kirol munduarentzat. Aurretik, gure herri umilean, gaur egun Euskal Herrian erreferentea den proba baten ideia aurrera eramatea erabaki zuen lagun talde batek: Oñatiko Duatloia egitea. Ondorioz, martxoaren 12 honetan, Oñatiko 25. Duatloia ospatuko dugu.

Eskerrik asko Oñatiko herriari eta herritarrei. Martxoko tenperaturarekin hotz izatearren, gure proban parte hartzen duten kirolariak berotuta sentitzen direlako zuen animoei esker eta eragindako eragozpenak trafikoaren mailan pazientzia handiarekin agoantatzeagatik.

Eskerrik asko produktu hau gauzatzen laguntzen duzuen guztioi: erakunde publikoak, pribatuak eta, batez ere, boluntarioak. Zuek zarete gure katea puskatu gabe mantentzen duten loturak. Eskerrik asko gure aurretik taldean egon zirenei, bidea erakusteagatik. Kirol indibidual batean, talde-lana eginez nola atera daitezkeen gauzak aurrera.

1992ko ideia hartatik denbora igaro da, eta, zorionez, egindako lanaren ondorioz esan dezakegu: *Oñati is Oñati*.



NERE ARREGI
ANTXINTXIKA

"Zirkuitu hau ez dut ezagutzen. Duela bi urte egin nuen, Deskargatik... igotzen zen bidea zen, ezberdina. Aurten, espero dut hobeto egitea, bizikletako tartea gogorragoa izan arren..."



BEÑAT ARNAIZ
INDEPENDENTEA

"Denboraldiko nire lehen lasterketa izango da hau. Izan ere, azkenekoa Sevillako maratona izan zen. Bada, errepidea siku egotea gustatuko litzaidake arriskuak ekiditeko".



IKER ARKAUZ
ANTXINTXIKA

"Ahalik eta ondoen egin nahi dut. Nire herrian izanda, familiakoen eta lagunuen animoak hartu arren, beti dago urduritasuna. Orain arteko lasterketak motzagoak ziren; ea oraingoan..."



Oñatiko duatloiko sortzaileak Usakon duela 25 urte. | PLACIDO RUIZ

25 urtean hainbat aldaketa

1992an sortu zen Oñatiko duatloia; ordutik, hainbat gauza aldatu dira. Zapatuan, orduko dorsalak, arropa-eta izango dira ikusgai plazan.



Ziklista bat, duela bi urteko lasterketako jaitsieretako baten, lokaztuta. | IMANOL SORIANO

MENDI BIZIKLETA

Lokatzak gogortuko du aurten ere Aramaioko proba

Euskadiko Open Txapelketarako baliagarria izango da domekan Barajuen auzoan egingo duten proba

XABIER URZELAI | ARAMAIO

Azken urteotako ohiturari jarraituz, eta martxoan normalena delako –nahiz eta eguraldi ona egingo duen–, domekan ziklistek lokaztuta amaituko dute Aramaioko 9. Sari Nagusia; izan ere,

azken asteotan euri asko egin du gurean, eta zirkuitua lokaztuta egongo da. Berez, horrek gogortu egingo du lasterketa.

Hain zuzen, joan den asteburuan Erreterian hasi zuten Ope-na, eta bertan erakutsi zuen

herriko ordezkari batek, Ander Bengoak, aurten ere aurrean ibiltzeko entrenatu dela, lehenengo postuan sailkatu zen-eta Open mailan.

11:00etan hasita

Elite eta 23 urtez azpikoekin hasiko da lasterketa, 11:00etan, baina ordu erdi lehenago infantilendako lasterketak antolatu dituzte Orixoleko lagunek. Hala, eliteen ondoren irtengo dira, minutu gutxiako tartearekin, masterrak, gazte mailakoak, emakumezkoak eta kadeteak. .

FUTBOLA

Aretxabaletak sailkapeneko azkena den Aurrera Ondarroari irabazi beharra dauka

Bederatzi jardunalditan ez dute partidurik irabazi Gorka Valleren mutilek

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Gorka Valleren mutilak ez dira oso bolada onean ari azkenaldian. 23 punturekin daude, azkenaurreko postuan, eta duela bederatzi jardunaldi ez dute partidu bat irabazi. Hurrengo jardunaldian domekan jokatu dute, Ibarran, 16:30ean, Aurrera Ondarroaren aurka, eta partidu klabea izango da. Izan ere, ondarrutarrak azkenak dira sailkapenean, eta bi punturen aldea bakarrik ateratzen diote aretxabaletarrek. Denboraldia amaitzeko hamar partidu gertatzen dira, eta hiru puntuak beharrezkoak izango dituzte, zulotik ateratzeko.

Ohorezko erregionaleko Aloña Mendik, berriz, Beti Gazte taldearen aurka lehiatu beharko du etxean. Oñatarrak sailkapenean zortzigarren dauden arren, goranzko bidea hartu dezakete garaipen batekin. Aurreko jardunaldian galdu egin zuten Elgoibarren aurka, eta Beti Gazte taldeak, berriz, 2-0 irabazi zion Martuteneri. Aurkariak garaipenarekin datozen arren, etxean jokatu irabaztera irtengo dira Aloña Mendik taldekoak.



UDako jokalaria baloia gordetzen. | IMANOL SORIANO

Mondra, kanpoan

Preferenteko Mondrak Tolosan jokatu du zapatuan, 16:00etan, eta aurreko asteko garaipenarekin joango dira bertara hiru puntuen

bila. Amaikak Bat liderrarengandik zortzi puntura daude arrasatearrak, eta hauen aurka, berriz, Aretxabaletak jokatu beharko du, zapatuan, Deban.

SASKIBALOIA

MUk Errioxan erakutsi zuen EBAn jarraitu gura duela, eta Natra Aloñak asteotako joera txarra eten gura du

X.U. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak 2016an partidu bakarra irabazi du etxean, eta joera negatibo horri bihar, zapatua (18:00, Iturripe), eman gura diote amaiera. Hain zuzen, kontrario zuzen bat izango dute aurrean, sailkapenean hiru puntu gutxiago dituen Valladolideko Venta de Baños taldea: "Taldeak gogo handia du gure zaleen aurrean garaipen bat lortzeko", adierazi du Josu Larreategik.

Bi garaipen jarraian, kanpoan

Joan den astean Errioxan irabazi izanak (82-96) indarra eman

die zuri-moreei –etxetik kanpora jarraian lortutako bigarren garaipena izan zen–: "Partidu zoragarria jokatu zuen taldeak, kontrarioak ezin izan zuen gure erritmoa apurtu eta lau laurdenetatik hiru guk menperatu genituen".

Natra Oñatik hilabete txarra

Azken hiru asteotako joera txarra eteteko aukera izango du Oñatik saskibaloitza taldeak domeka eguerdian, Mungiaren kontra (12:00, Zubikoa). Mungia hirugarren dago sailkapenean, oñatarrak baino bi puntu gehiagorekin.



'Arejo', Valladoliden kontrako artxibo irudian. | GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Aurrera Ondarroa
Domeka, 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloña Mendi-Beti Gazte
Domeka, 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Zumaia
Zapatua, 16:30. Estala.
Bergara-Zestoa
Zapatua, 16:00. Agorrosin.
Tolosa-Mondra
Zapatua, 16:00. Usabal.
Amaikak Bat-Aretxabaleta
Zapatua, 16:30. Errotazar.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Allerru-Arizmendi
Zapatua, 17:30. Plazeta.
Ilintxai-Mondra
Zapatua, 18:00. Bikuña.

OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Burumendi
Domeka, 12:00. Ibarra.
Mondra-Tolosa
Zapatua, 16:00. Mojategi.
Intxurre-Aloña Mendi
Zapatua, 17:00. Elorri.
Elgoibar-Bergara
Zapatua, 12:00. Mintxeta.

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Aloña Mendi
Zapatua, 11:45. Ipintza.
Tolosa-Arrasate
Domeka, 10:30. Usabal.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eraso Aiara-Aretxabaleta
Martitzena, (3-4) egin zuten.
Mallabia-Eskoriatza
Domeka, 18:00. Udala Kiroldegia.

LEHENENGO MAILA

Ventanas Isu-Pizza Per Tutti
Mondrate
Egubakoitza, 20:55. Lasarte.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Legerreta-Eskoriatza
Egubakoitza, 22:00. Harripila.

GIPUZKOAKO GAZTEAK

Anoeta-Pizza Per Tutti
Mondrate
Domeka, 11:30. Abraham Olano.

ESKUBALOIA

EUSKAL LIGAKO SENIORRAK

Escolapios-Izarraitz taberna
Aloña Mendi
Zapatua, 20:00. Colegio Escolapios.

EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.

Iturritxo Taberna Aloña
Mendi-Urdaibai
Zapatua, 19:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Decotena Pulpo-Bergara
Domeka, 11:30. Lubaki.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Baloncesto Venta de Baños
Zapatua, 18:00. Iturripe.

BIGARREN MAILA

Natra Oñati-Mungia
Domeka, 12:00. Zubikoa.

GIZONEZKO SENIORRAK

MU-Take Orbela
Zapatua, 16:00. Musakola.
Soraluze Bergara-Hernani
Zapatua, 16:30. Labegaraleta.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatzak atsedena

ERRUGBIA

SENIORRAK, 2. MAILA

ART-Iruñea
Zehaztu barik.

PILOTA

ARRASATE

Zapatua, 18:30ean hasita
Arrasate-Zumaia (eskuz binakako kadeteak.)



Andoni Bernal jaurtiketa egiten. | IMANOL SORIANO

ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua, Iñigo Uribarren eta Istar Dapena | Atletak

"Gustura egingo genuke herritarren aurrean atletismo erakustaldi bat, kalean antolatuta"

- Espainiako Txapelketa absolutuan lau onenen artean sailkatu dira, Madrilen
- "Herritarrei atletismoa gerturatu beharko genieke", diote. "Mojategira ez doa inor"

XABIER URZELAI | ARRASATE

Egiten duten horretan gutxi dau-de eurak baino hobeak. Pertika saltoan 4,15eko saltoarekin Espainiako Txapelketatik brontzea ekarri du Malen Ruiz de Azuak. Istar Dapena eta Iñigo Uribarren, ostera, podiumetik pauso txiki batera geratu dira. Mojategiko atletismo faktoriak emandako hiru harribitxi dira, eta ez dira bakarrik, gehiago datoz-eta atzetik. Baina eurek baino txalo gehiago jasotzen ditu Arrasateko Zaldibarko areto futbol txapelketan gola sartzen duenak.

Esango nuke domina batekin itzuli den bakarra geratu dela txapelketan sentsazio gazienarekin. Oraingoan ez duzu gozatu, Malen.

Malen Ruiz de Azua: Ez, ez dut batere gozatu, eta hori da, azken batean, txapelketetara eramaten dugun helburu nagusia, gozatzea. Arazo fisiko batzuk izan nituen zapatuan, eta ez nintzen sentsazio batere onarekin ibili. Eta pena da, oso gorputzaldi onean nengoen eta. Baina halakoak dira txapelketak, hilabeteetako lana egun bakarrean erakutsi behar da, eta beti ez da asmatzen.

Istar, zuk, berriz, gozatu ederra hartu zenuen.

Istar Dapena: Bai, oso gustura ibili nintzen. Pista estalian Espainiako Txapelketa absolutuan debuta egin nuen, eta nire marka berdindu ahal izan nuen (5,05). Ez nuen uste laugarren sailkatuko nintzenik.

Iñigo, zuk domekara arte itxaron behar izan zenuen parte hartzeko.

Iñigo Uribarren: Bai, eta ni ere Malenen antzera ibili nintzen, gozatu ezinka. Presaka lehiatu nintzen, erritmo eta neurri egokia hartu ezinka. Txapelketara bosgarren marka onenarekin (15,81) aurkeztu nintzen, eta laugarren amaitu nuen. Alde horretatik begiraturata ez dago txarto,

baina aurrekoak gehiago estutzeko gogoz geratu nintzen (15,65), eta, aurtun entrenatu naizen guztia ikusita, amorraturata geratu naiz. Hurrengoan beharko du.

Amaitu da pista estaliko denboraldia, eta aire librekoa hasiko duzue; badago alderik?

I.D: Pista estalian saltoa egiteko baldintzak beti dira antzerakoak, temperatura egokia, haize barik... Eta aire librean hori guztia aldatu egiten da. Hala, haizea alde daukagunean marka hobeak lortzen ditugu, eta, berez, denboraldiaren bigarren zati honetan sasoi hobean egoten gara.

Eta hemendik aurrera ez dituzue Donostiara horrenbeste joan-etorri egingo...

I.U: Nik zortea dut, orain Donostian nabilelako ikasten, eta aste barruan han nagoenez askoz ere hobeto moldatzen naiz. Baina gainontzeko atletendako nekagarria da neguan aste barruan Donostiara horrenbestetan joan-etorri egin behar izatea. Izan ere, Mojategin neguan ezin dugu ezer ere egin. Ez dugu pista estalirik, gimnasioa ez dago egokituta...

M.R.A: Hor hausnartu egin beharko dugu ze harrobi gura dugun atletismoan. Izan ere, gazte batek oso garbi izan behar du atletismotik zer lortu gura duen, aste barruan Donostiara bueltaka ibiltzeko. Oso nekagarri egiten da.

Gimnasioa egokitzea egingarria izan daiteke. Baina pista estali batzuk, baduzue ideiarik?

I.D: Frontoian ibili izan gara entrenatzen, astean birritan, koltxonetak, barrak eta bestelakoak eramanda, baina altuera batetik aurrera arriskutsua da salto egitea, ez dago-eta zoru egokirik, eta min hartzeko ez da askorik behar. Horrela ezin gara ibili. Adibidez, frontoietako batean zorian tartana jartzea konpon-



Uribarren, Ruiz de Azua eta Dapena, aste barruan, Goienan. | X.U.

Urrezko bi domina Eneko Carrascalek

Gazte mailakoek, berriz, Salamancan izan zuten Espainiako Txapelketa, eta hor erakustaldi galanta eman zuen Eneko Carrascal arrasatearrak, urrezko bi domina irabazita. Luzera saltoan 7,24 metroko marka egin zuen, eta salto hirukoitzean 15,09 metrokoa; azken marka hori txapelketako errekorra izan zen: "Nagusiekin lehiatu izan balitz bosgarren sailkatuko zen, izugarria da", dio Uribarrenek.



Carrascal podiumean. | A.KANPANZAR

Yeray Varela ametsa bete du

Azken orduan Madrilen lehiatzeko txartela eskuratu zuen Yeray Varela atleta oñatiarrak, eta 3.000 metroko lasterketan Aloña Mendiko elastikoa defendatu ahal izan zuen. "Ahaztuko ez dudan zerbait izan da, bizi osoan gordeko dudana. Lasterketa honetan egon ahal izate hutsa epikoa izan da niretako; onenen kontra lehiatu ahal izan dut, benetako ohorea izan da". Oñatiarra 13.a izan zen. sailkapenean [8.50.05].



Yeray Varela. | ALEXBERASATEGI.COM

bidea izango litzateke, eta uneoro erabiltzeko aukera izatea. Baina hori ez dago gure esku. M.R.A: Bestela, frontoira goazen bakoitzean dena muntatzen eta desmuntatzen ibili behar izaten gara.

I.D: Eta halako instalazio bat ez genuke guk bakarrik erabiliko, gazte asko dabilta atletismoan, eta neguan ez dute askorik egiteko aukerarik izaten.

I.U: Gure atzetik beste batzuk etortzea gura badugu, harrobi bat izatea, negura begira instalazioak egokitu egin behar dira.

Atletismoa askorik jarraitzen ez dutenak ere hasi dira galdetzen ea normala ote den Mojategitik horrenbeste atleta on irteeta. Lana ondo egiten den seinale, ala?

I.U: Nire ustez, Txufi [Fernando Zufiria] da honen guztiaren erantzule. Urteak daramatza Arrasateko atletismoaren alde lanean, eta ondoren, Jonathan Perez eta Mikel Uribealzo nabarmenduko nituzke. Jonathanek pertika-jauzilariak hartu zituen, Mikelek salto hirukoitzekoak eta luzera saltokoak, eta euren lanaren ondorioa gara gu.

Herritar gutxi gerturatzen da, baina, Mojategira atletismoa ikustera. Txalo gehiago jasotzen dituzte Zaldibarren jokatzan dutenak, Mondrako aurrelariak edota MUko saskibaloi jokalariek, zerbait esatearren.

I.D: Atletismoa ez da kirol eza-guna, eta nik uste dut kirol hau herritarrei gerturatu beharko geniola, adibidez, erakustaldiak antolatuz.

Udal ordezkari batzuek begi onez ikusi zuten sare sozialetatik egingako proposamena...

I.U: Ideia oso ona da, eta gu prest egongo ginatke, beste leku batzuetan ere egiten dituzte halako erakustaldiak. Uda sasoi izan daiteke aproposa, adibidez, San Juan jaietan edo.

DUATLOIA

Nere Arregi, Iker Arkauz eta Miren Josune Bikuña Eibarko podiumean

Euskal zirkuituko hirugarren duatloi proba jokatu zuten zapatuan Eibarren –eguraldi oso txarrarekin– eta Gipuzkoako Txapelketa jokoan egon zen proban bailarako hainbat protagonista izan ziren. Nere Arregi hirugarren izan zen, eta beteranoetan Miren Josune Bikuña txapeldunorde; Iker Arkauz ere bigarren izan zen.

XAKEA

Arrasate-Arlutz taldeak azken unean eutsi dio kategoriari

Maila gorenean jarraituko du Arrasateko eta Aretxabaletako xake klubak batu ostean sortutako Arrasate-Arlutzek. Azken orduan lortu dute mailari eusteko behar zuten puntu erdia. Izan ere, asteburuan 1-3 irabazi zioten Conteneo taldeari, eta 13 puntu batu dituzte. Easok 12,5 puntu batu-ta maila galduko du.

ZIKLOTURISMOA

Bergarako taldeak hasi du denboraldia

Ohitura da denboraldia hastea Dorletako ama birjinari lore eskaintza eginez, eta, posible bada, bizikleta gainean joanda. Domekan Lokatzakoek autoan joan behar izan zuten, errepedea elurtuta zegoen eta. Domekero egingo dute irteera –09:00etan plazan–.



LOKATZA

FUN DANTZ! 2016



DANTZA URBANOEN LEHIAKETA
BREAKONSTAGE 2016rako SAILKAPENA JOKOAN

ARETXABALETA 2016
ARETXABALETAKO KIROLDEGIAN

MARTXOAK 12 Larunbata
18:30 Gazteak / Bikoteak
19:30 Lehiaketa nagusia

URBAN: Duckis, B-breath, Walking Breath, Fusion's Noise, Elemental, Knock Out, Bamboo Tribe, Black Diamonds Crew, Urban Döls, Camino Emotion, Camino Boom, RBG, Rest Style, Blue Star, Utopia, Red Poison, Clover Ace...
BIKOTEKA: Ephemere, Broken Heel, iPunto, Double trip, wallahop, mj kids... JUNIOR: Little-K, Cookies, Legacy Breath Strongirls, Fusion Blood, Little-Hop, Hula-hop, Setas con bamboo, The Magestics, More Than Crew, Camino Stars"
African dreams, Modern Princess, On the Staff...

SARRERA:

LEHIATILAN: 5€ // AURREZ: 3€ ARKUPE KULTUR ETXEAN SALGAI



Aretxabaletako
Udala



APIRILAK 16 a. ABRIL // BILBAO ARENA

KULTURA

Kaleko dantza ikusgarrienak agertoki gainean

- Fun Dantz jaialdi urbanoa izango da bihar Aretxabaletan
- Bi talderik onenak Break On Stage lehiaketara joango dira

MAITE TXINTXURRETA | ARETXABALETA

Kaleko giroak hartuko du berriro ere Aretxabaleta. Izan ere, bihar, zapatua, Fun Dantz jaialdiaren hirugarren edizioa egingo dute Ibarra kiroldegian. Break On Stage ekimenak Udalarekin batera antolatzen du egitasmoa, eta, hain zuzen, apirilaren 16an Bilboko Bizkaia Arenan egingo den Break On Stage dantza urbanoen lehiaketarako sailkatuko dira Aretxabaletan ondoen aritzen diren bi taldeak. 200 dantzari baino gehiago etorriko dira bihar. Sarrerak aurrez Arkupen eros daitezke, 3 eurotan; eta 5 eurotan bihar, Ibarako leihatilan.

Honezkero Fun Dantz errota dagoela uste du antolaketa taldeko Ander Garaizabalek: "Sare sozialetan izaten ari den hedapena ikusi besterik ez dago", dio. "Lehen edizioa gauza desberdinen erakustaldi antzeko bat izan zen, baina dagoeneko kontzeptua argi dago: dantza urbanoen lehiaketa bat, non Break On Stagerako sailkapena jokoan dagoen".

Aurten, bi atal izango ditu jaialdiak: lehenengo, 18:30etik 19:30era, 15 urtetik beherako gazteen eta 16 urtetik gorakoez osatutako bikoteen txanda izango da. Horren ostean, berriz, nagusien taldekako atala etorriko da. "Deialdi zabala izan denez eta edonork eman ahal izan duenez izena, egin duguna da mailak desberdinu. Lehenengo, gazteak, eta horiekin batera bikoteak, apur bat orekatzeko, eta ostean, lehiatzera datozenak".

Guztiek dantzatutakoan, 21:00etan sari banaketa ekitaldia izango da.

Hogei talde

Guztira, hogei talde izango dira, Euskal Herriko hainbat tokitatik etorriak: "Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik eta Iruñetik etorriko dira taldeak, baina baita Durangaldetik, Eibartik, Lasartetik Bilbo Handitik...

Taldeen profila askotarikoa izango da, Ander Garaizabalek azaldu duenez: "Alde batetik, erakustaldietan nahiko profesionalak diren taldeak daude; akademia batetik datozenak, esaterako. Baina badaude espontaneoagoak ere, eskoletan baino gehiago kalean elkartzen direnak". Taldekide gehienak gazteak dira, hogei eta hogeita hamar urte bitartekoak, neskak zein mutilak.

Dantza bakarrik ez

Fun Dantzen hainbat alderdi hartzen dituzte kontuan emanaldi bakoitza baloratzeko: "Sinkronia, gaia, musika... ez da bakarrik dantza eginez indar erakustaldia egitea. Esaterako, jantzien aukeraketa edo berritzaileak izatea ere saritzen da". Hori guztia taldeek aurrez landu behar dute.

ESANAK

"Etenik gabeko ikuskizuna da, oso modu dinamikoan burutzen dena"

ANDER GARAIZABAL | ANTOLATZAILEA



laz irabazi zuen Fusion Noise taldea (Bilbo). | IMANOL SORIANO



Berrehun dantzari baino gehiago izango dira Ibaran. | I.S.



Tonu urbanoa izaten da nagusi Fun Dantz-en. | I.S.

Aurreko edizioetan *freestyle* estiloa ere jorratu dute, baina aurten koreografieei eman nahi izan diete garrantzia.

Epaimahai profesionala

Lehiaketak "garrantzia hartu duela" ikusita, epaimahai "espezializatu" eta "neutroa" ekartzea erabaki du antolakuntzak. Zaragozako hiru pertsonak osatuko dute, eta bakoitza talde bateko partaide eta arlo batean aditua da. *Jor-G* urban dance modalitatean aditua da, eta Resistance Crew taldeak dator. *Milki*, berriz, Circle Of Trust-eko partaide da, eta dantza garaikidea da haren espezialitatea. Bukatzeko, Delicious taldeko *Paula*-k vogue, hip-hop eta urban estiloak jorratzen ditu.

Atzeko lana

Parte hartzaileak soilik ez, kanpotik ikusle asko erakartzen duen ekimena da Fun Dantz. 200 dantzaritik gora daude, eta saiatzen dira emanaldi bakoitzaren artean itxaronaldirik ez egiten: "Etenik gabeko ikuskizuna da, oso modu dinamikoan burutzen dena", dio Garaizabalek. Horrek koordinazio lan handia eskatzen du. Baina orain arte ondo moldatu gara".

AINHOA ZAMORA | IAZKO IRABAZLEEN ZUZENDARIA

"Aretxabaletako giroa oso etxekoa da, laguntasun handia dago denen artean"

Bilboko Fusion Noise taldea izan zen iazko Fun Dantzen irabazlea, eta Break On Stage jaialdian izan ziren Europako onenekin batera. Bihar Aretxabaletara itzuliko dira. Ainhoa Zamora da zuzendaria.

Nolakoa da zuen estiloa?

Desberdina. Gure esentzia propioa daukagu. Oso eszenikoak gara, ukitu ilun bat daukagu, eta oso rockeroa. Normalean, lehiaketetara erakustaldiak egitera joaten gara, lehiatzera baino gehiago. Horregatik, izugarria izan zen iaz Aretxabaletan irabaztea, egiten duguna gaur egun bogan dagoenaren oso desberdina baita.

Break On Stageko esperientzia nolakoa izan zen?

Izugarria. Herrialde desberdinetako taldeekin batera geunden. Giro oso urbanoa zen zentzu guztietan. Eta horren agertoki handia, horrenbeste jende...

Zer prestatu duzue biharko?

laz bezala, giro iluneko koreografia batekin gatz, iazkoa baino



A.Z.

ilunagoa, hain zuzen. Irudiari garrantzi handia ematen diogu, jendea lehen unetik harritzeko asmoz. Nobedade moduan, aurten junior talde bat ere joango da gure eskolatik: Fusion Blood.

Zelakoa da Fun Dantzeko giroa?

Euskal Herriko lehiaketen artean, Aretxabaletakoan eta Zarauzkoan giroa oso etxekoa da, familiakoa bezala. Talde guztiek elkar eza gutzen dugu, eta lehiaketa handietan baino laguntasun giro handiagoa dago. Entseguetan, taldeek elkarri txalo egiten diote.

ZATOZ BIG KARTING GORBEIA-ra

ETA EZAGUTU
ESTALITAKO PISTA
BERRIA

/10.000 m² BAINO GEHIAGO:

**KART TXIKIAK 1,30m-TIK GORAKO HAURRENTZAT
BIDE-SEGURTASUNERAKO ZIRKUITUA
BI PLAZAKO KART-AK
SCALEXTRIC GUNEA
DIBERTIMENDUZKO JOKOAK**

/ZABALIK URTEKO EGUN
GUZTIETAN

**FAMILIA GUZTIARENTZAKO
EKINTZAK**

**EUSKADIKO ZIRKUITU
BAKARRA 2 PISTAREKIN**

ordutegia

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
17:00-21:00
OSTIRALETAN
17:00-24:00
LARUNBATETAN
11:00-14:00 17:00-24:00
IGANDE ETA JAIEGUNETAN
11:00-14:00 17:00-22:00

bigkarting.com

BIG KARTING
VITORIA-GORBEIA

Carrefour

BRICO
DEPOT

McDonald's
I'm lovin' it

DECATHLON

Norauto



GORBEIA
centrocomercialgorbeia.com



Irusoin ekoiztetxeko zuzendaritzako partaide Iñaki Gomez, Komunikaldian. | IRATI ELORTONDO

Ikasle eta irakasle ugari izan dira Komunikaldian

Eguaztenean batu ziren Arrasaten 'Nola eman aterabidea ikus-entzunezkoari?' gaiaren lelopean

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Eguaztenean batu ziren Mondragon Unibertsitateko Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasleak Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, urtero izaten den Komunikaldian sei hizlariren esperientzia gertutik ezagutzeko. *Nola eman aterabidea ikus-entzunezkoari?* gaiaren lelopean jardun zuten Leire Apellaniz, Usua Urbieta, Iñaki Gomez, Mikel Alvarez, Kepa Matxain eta Lander Iruin hizlariek.

Emakumeen eta gazteen indarra
Leire Apellaniz igo zen lehenengo oholtzara. Donostiako Zinemaldiko Departamentu Teknikoko zuzendaria eta Señor Y Señora ekoiztetxeko kidea da. Emakumeen garrantzia azpima-

rratu zuen, zuzendari oso gutxi baitaude gaur egun zineman. Publikoko emakumeak zuzendari izatera animatu zituen, berdintasun falta igartzen baitu. Usua Urbieta zinema aretoetako programatzaileak inguruan produzitutako film txikien harrera ona azpimarratu zuen. Bertan ziren ikasle gazteak zinemara joatera animatuz amaitu zuen.

'Amateur' munduan

Irusoin ekoiztetxeko zuzendaritzako partaide Iñaki Gomezek *Loreak* filmean parte hartzeko aukera izan zuen: "Beti ezin izango dugu gustukoena duguna egiten jardun, proiektu txikietan murgildu beharra dugu hasieran; handietan hastea ezinezkoa da". Mikel Alvarez ikasle ohia batu

zen atsedenenaren ostean oholtzara. *Euskal Harriaren ABDak* filmaren sortzaileetako bat izanik, bere esperientziaren berri eman zuen: "Ekoiztutako lehen lana zoragarria izatea ezinezkoa da; hobetzen ikasten da, eta ezin gara larritu lehenengo ederto ateratzen ez bada". Kepa Matxainek *Gure bazka* izeneko elkarrizketa programa sortu zuen, eta ikasleak gustuko dituzten proiektuetan murgiltzera animatu zituen. Azkenik, Lander Iruin kazetariak *Zohardia* dokumentalaren berri eman zuen: "Ate asko jo genituen, baina jarraitu beharreko prozesua da. Lortu genuen gure proiektua aurrera ateratzea, eta hori da garrantzitsuena." Gomendio ugari eman dizkiete ikasleei, eta apuntatu dituzte etorkizunerako.

ONINTZA BELATEGI
HUHEZI-KO IRAKASLEA

"Gomendio ugari eman dizkiete hizlariek"

10 urte daromatza Onintza Belategi Huheziko irakaslea Komunikaldia antolatzen.



ONINTZA BELATEGI

Zer da Komunikaldia?

2006an egin zen lehen Komunikaldia, eta aurtengoa 11. aldia da. Urtero komunikazioarekin zerikusia duen gai bat aukeratzeko dugu ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari diren ikasleei begira, eta hitzaldiak antolatzen ditugu hainbat aditurekin.

Nolakoa izaten da prozesua?

Departamentu guztien artean biltzen gara eta orientazio modura eskaintzeko ideiarekin antolatzen ditugu hitzaldiak. Behin gaia aukeratuta, balizko hizlarien zerrenda osatzen dugu eta deika hasten gara kurtso hasieran. Hizlari ezberdinak lortzen saiatzen gara; aurten, adibidez, neska bat ekarri nahi izan dugu ikasle ohien barruan, baina ez dugu lortu, azkenean. Horrez gain, babesleak lortzeko prozesua ere jarraitzen dugu.

Nolakoa izan da aurtengo harrera?

Sei hizlari etorri dira eta ordu erdi egon da bakoitza. Hitzaldi motzak eskaintzea gustatzen zaigu, ikasleak gehiago kontzentra daitezten. Gomendio ugari eman dizkiete, gainera, ikasleei. Aurten ikasle ohiak ekarri ditugu, eta ikusi da jada hasi direla beraien bidea ereiten. **Datorren urtera begirako ideiak?** Pasa den urtean izan genuen ideia zerrendatik, bat gordeta utzi dugu, oraingoz. Baina oraindik goiz da, eta gaia alda dezakegu oraindik.

Bertsozale Elkartearen bilkuraren ondorioak

I.E | BERGARA

Zapatuan izan zen bilkura, Bergarako Irizar jauregian, goizeko hamaiketan, eta *Europa bat-batean* proiektua nabarmendu zuten.

Proiektu ugari bidean

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen 2016ko batzar nagusia jende asko egon zen. Elkarteko lehendakari Iñaki Muruak zuzendu zuen batzarra eta 2015eko egitasmoen berri eman zuen. Herritarrek euren egoeraren berri eman zuten; gero, sail bakoitzak bere egitekoen azalpena eskaini zuen. *Mintzola*-ren baitan kokatzen den proiektu honez aparte, beste hainbat egitasmo aipatu zituzten herrialdeetako eta sailtako ordezkariak: Bizkaian, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan antolatuko diren txapelketak, gazteen egonaldiaren bertsio-udalekuak, Ahots Baten, eta *Xenpelar* Dokumentazio Zentroaren bilketa indartzeko eta euren egitekoa gizarteratzeko ekintzak. Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa hauek pasa den udazkenean hasi ziren, Leonen eta Bartzelonan egindako topaketa banarekin, eta aurten ere jarraipena izango dute. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzat izango du *Mintzola*-k helburu.

Egitasmoa onartuta

2016ko batzar nagusia izanik, egitasmoa arazo barik onartu zen. Urtarrilean Arabako eta Nafarroako bilkura egin zen eta otsailaren amaieran, berriz, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa egiteko bildu ziren. Aurtengo proiektuak ere ongi bideratu dira.

'Amodioaren ziega' antzezlanak aurkeztuko du Lauka taldeak Oñatin

Santa Ana antzokian izango da emanaldia etzi, domeka, 19:30ean

I.E | OÑATI

Lauka antzerki taldeak *Amodioaren ziega* antzezlanak aurkeztuko du martxoaren 13an Oñatiko Santa Ana aretoan, arratsaldeko zazpi eta erdietan: Aitor preso dago, eta Miren bikotekidea bisitan doakio, aurrez aurreko bisita da; bisean bisekoa. Konturatu gabe pasatzen da denbora ziega honetan, eta amodioa dute eginkizun.

Urtebete biran

Pasa den otsailean ekin zioten birari eta jada 20 emanaldi egin

dituzte Euskal Herri osoan zehar. Herri txiki zein handietan antzeztu badute ere, herri txikietara joatea gogoko dutela dio Eneko Sagardoy aktoreak: "Herri txikietara joatea gustatzen zaigu, oso giro goxoa dagoelako. Oñatira joateko gogoz geunden, eta pozik gaude momentua iritsi delako". Horrez gain, publikoaren aldetik esker ona jaso dutela dio Sagardoyk: "Herriaren aldetik behar handia eta interesa zegoela sumatu dugu intimitatea eta intimitaterik eza plazaratzeko.

Aldarrikapena ere bada egoera horretan dauden pertsonei ahotsa emateko.

Sarrera 10 euro

Sarrerak Santa Ana antzokian bertan egongo dira salgai 10 eurotan. Aurretik erosi nahi izanez gero, *bibe.me* webgunean ere salgai daude oraindik. Etorkizuneko emanaldiei dagokienez, oraindik antzezlanak aurkeztu jarraituko dute: apirilaren 3an Donostian eta apirilaren 22an Villabonan, besteak beste.

Lauka taldea *Amodioaren ziega* antzeztzen. | LAUKA TEATROA

Emon taldeak egin du Oporrak Bakean egitasmoaren kantua

A.A. | BERGARA

Udan basamortuko kanpalekue-tatik Euskal Herrira oporretan etortzen diren haurren aldeko kantua eta bideoklipa egin du Emon taldeak. "Gabonak inguru-
an jaso genuen proposamena. Saharar herrialdearekiko inpli-kazio handia dugu taldean. Aurrez ere elkarre beraren hainbat eki-
menetan izan gara", dio Aritz Alustizak, Emon taldeko kideak. Sahararren egoera jasangaitza eta zama hori arintzeko haurrak Euskal Herrira ekartzearen onu-
ra eta beharra jaso dute Xabier Euzkitzek idatzitako hitzek. Musi-

ka egiterakoan ohiko bidetik jarraitu dutela dio Emoneko kideak: "Jasotako iritzien arabe-
ra, jendearen barrenak mugitzea lortu dugu. Hasieratik genuen garbi umeak gurekin batera kan-
tuan jarriko genituela. Otsailean grabatu genuen Mutrikuko AME estudioan Axular Arizmendire-
kin, eta bideoklipa Joseba Casa-
solarekin Saturrararen".

Emon.eus-en eskuragarri

Egun gutxitan zabaldu da kantua sare sozial eta Whatsapp bidez. "Gustura gaude emaitzarekin, zaleek oso ondo hartu dute".



Mutrikuko AME estudioan kantua grabatzen. | EMON

Zingira: Iñigo Ibarrondoren musika proiektu pertsonala 'Bidaia' lanean batuta


Gaztelekuan aurkeztuko du bihar, zapatua, Sharon Stoner taldeko kideekin

AITZIBER ARANBURURZABALA | OÑATI

Iñigo Ibarrondoren aurreko musi-
ka erreferentziak kontuan har-
tuta, sorpresa handiarekin har-
tuko dute Zingira, haren proiektu berria. "Iritzi eta erantzun oso ezberdinak jaso ditut: Sharon Stoner-ekin konparatuta musika lasaiagoa dela, abestiak oso luzeak direla... Batzuei ez zaie horrenbeste gustatu, baina bes-
te askok, berriz, esan didate proposamen berria ulertu eta gustatu zaiela. Lan oso melodi-
koa denez, entzuleari pazientzia apur bat eskatzen dien musika dela uste dut. Kantu bakoitzaren atzean detaile asko daude. Pope-
tik gertu dauden zatiak daude, instrumentalak ere bai, folk esti-
lora gerturatzen direnak...", dio musikariak.

Naturari lasai abestuta

Sei kantu batu ditu *Bidaia* lanean. Berak sortutakoak dira doinuak eta hitzak, konposatzerakoan Egoitz Olalderen laguntza izan badu ere –Sharon Stoner talde-
ko bateria jolea–. Oñatiko Gaz-
telekuan eta etxean grabatu du eta Sharon Stoner-eko kideak izan ditu bidelagun. "Grabazio prozesua eta konposaketa lanak nahastu egin dira une batzuetan.



Iñigo Ibarrondoren proiektu pertsonala da Zingira. | I.

FITXA

ZINGIRA

BIDAIA

Estiloa: Rock progresiboa.

Autoekoiztua.

Estudio profesional batean egin izan banu, ezin izango nuen horrelakorik egin. Nahi adina denbora hartu dut abestiak lan-
du eta grabatzeko".

Naturari buruz era metafo-
rikoan idatzitakoak dira: berri-
tzeari buruz, muga mugan bizi-
tzeaz, bakardadeaz...


Kutxa berezian aurkeztuta

Zingira.bandcamp.com helbi-
dean, Oñatiko Aker tabernan eta kontzertuetan eskura dai-
teke mimo handiarekin argita-
ratutako *Bidaia*.

'GALDEGAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa. Hauxe da hurrengo saioaren aurrerapena.

Goseren itzuleraz on egitera



Ezkerretik eskuinera: Markel Bengoa (Kurtzebarri eskolako ikaslea), Ines Osinaga (Gose taldeko abeslaria), Alaitz Mendieta, Lur Garai (Kurtzebarri eskolako ikasleak) eta Jokin Bereziartua (aurkezlea). | OIHANE ISASI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hamar urtez trenari egurra "bota eta bota" aritu ostean, 2015eko urrian geldialdia egitea erabaki zuen Gosek. Ines Osinagak *Galdegazte*-n iragarri duenez, Gose bueltan dator. Martxoan hiru kontzertu eskainiko dituzte: lehe-
na hilaren 18an izango da, Anoetako gaztetxean. Hilaren 25ean Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzako egitarauaren barruan joko dute, Stop War Festibalean, Maria Cristina zubian. Eta martxoko kontzertuak amaitzeko, hilaren 27an Gazte Danbadan joko dute, Laudion.

Trikitia jotzen "kasualitatez" hasi zen Osinaga: "Bizitzan gertatzen diren gauza inportante guztiak bezala. Gero, jarraitu egin nuen, eta hori ez zen kasua-
litatea izan... Betidanik gustatu izan zait musika, nire etxean oso giro musikala egon da beti". Trikiti irakaslea da egun, eta "oso gustura" dabilela dio: "Musikaren ostean, nire bigarren pasioa da irakaskuntza. Zorte handia daukat nire bi pasioak uztartze-
ko aukera dudalako. Askok ikas-
ten dut ikasleekin, asko gozatzen dut". Gose sortu aurretik Ekon taldeko kide izan zen: "Ekonek izan zuen oihartzun handiena, eta nire eskolarik handienetakoa izan zen. Baina galdetzen badi-
dazu Goseren aurretik nire ibil-
bide musikalean zein izan den mugarririk inportanteena, Naia-

rarekin batera soinua jotzea izan da. Ines eta Naiara zen taldearen izena; 12 urterekin hasi ginen erromerietan jotzen. Esango nuke agertokira igo ginen lehen aldia Garagartzako jaietan izan zela".

Aretxabaletako Kurtzebarritik

Aretxabaletako Kurtzebarri esko-
lako Markel Bengoa, Alaitz Men-
dieta eta Lur Garai aritu dira elkarrizketatzaile lanetan. "Urdu-
ri" egon arren, "oso esperientzia polita" izan da hirurendako *Galdegazte* saioan parte hartzea. D-SKArga izeneko ska talde bat sortu berri dute Bengoak eta Garaik, eta aholku eske jo dute Osinagarengana: "Benetan sinis-
ten duzuen hori egiten baduzue, lan erdiak eginak dituzue". Gai-
nera, Osinagak egunen baten taldearekin kolaboratzeko pro-
posamenari baiezkkoa eman dio saioan bertan.



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA
Eguaztena, martxoak 16
22:00etan.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zubillaga (Oñati). Eraikuntza berria. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, 35 metro koadroko terraza. 115 metroko lorategia. Garaje itxia. Igogailua garajetik. Guztiz jantzita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 04 06 14 edo 665 72 18 54

102. EROSI

Bergara. Erdialdean etxebizitza erosiko nuke. Hiru logelakoa eta garajearekin. 653 29 37 04

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Herri erdialdean bi logelako etxebizitza berria ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 31 37 45

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza bila gabiltza. Gela bakarrekoa, bikoa edo hirukoa. Bikote euskalduna. Eskerrik asko. 664 54 53 37

Arrasate edo Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 688 71 55 53

Arrasate. Bi logelako etxebizitza behar dut errentan, ahal bada, erdigunean. 688 29 97 05

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, prezio onean. 698 47 41 33

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350 euro ordain ditzaket. 632 77 35 38

Bergara. Etxebizitza bila nabil. Gela bakarrekoa edo bikoa, eta igogailua duena. 697 86 48 91

Bergara. Euskaldun bikote batek etxe bat hartuko luke errentan. Berdin da txikia bada ere. 649 65 06 39

La Pineda edo Cambrils. Bergarako familia bat gara eta abuztuan 15 egunez apartamentu bat hartuko genuke errentan La Pinedan edo Cambrilsen. 680 17 33 61

Oñati. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki haOnTara: 639 00 35 57

Oñati. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 2002tik bizi naiz Oñati eta lan kontratua daukat. Bakarrik nago hiru seme-alabekin. 635 70 69 83

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Santakurtz 24an, garaje itxia salgai. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 78 27 84 edo 661 45 17 05

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. 24 metro koadroko garaje itxia ematen da errentan Alkabieta kalean, kanposantu aldamentean. Ate automatikoak ditu. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 635 72 64 08 edo 657 79 65 54

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 130 metro koadroko lokala salgai erdigunean. Hainbat autorendako garaje moduan erabiltzeko lizentziarekin. 60.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 80 92 89

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokala ematen da errentan alde zaharrean, Artekale 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. Deitu zenbaki honetara: 645 00 71 46

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ANTZUOLA

Ile-apaintzailea behar da.
943 76 63 33

Ospitalera joateko laguntzailea. Hilean 4-5 aldiz gutxi gora behera, Txagorritxu eta Gurutzetako ospitaletera familia bat garraiatu eta laguntzaile lanak egiteko pertsona bat behar da. Arrazoi kulturalak medio, emakumea izan behar da. Deitu zenbaki honetara: 637 13 16 23

402. ESKAERAK

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean laguntzaile bezala lan egingo nuke. Emakume esperientziaduna. Ordu-tegi aldetik, arazo barik. 617 20 59 43

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Umeak edo nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean lan egingo nuke. Bertako emakume esperientzia handikoa. Ordu-tegi aldetik, arazo barik. Eskerrik asko!. 647 10 58 72

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Sukalde garbiketan esperientzia daukat. Gozoki dendan, nagusi eta umeak zaintzen edota atariak garbitzen ere bai. Hiru urteko esperientzia dut zerbitzari lanetan. Presazkoa da. 676 44 85 58

Arrasate. 48 urteko emakume euskalduna, etxetzeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Telefonoa: 605 71 50 14 (Mari-bel)

Arrasate. Bertako emakumea, euskalduna, orduka edo egun osoz lan egiteko gertu: umeak edo nagusiak zaintzen zein etxeko lanak egiten. 688 66 76 91 edo 943 79 60 89

Arrasate. Mutila gertu nagusiak edota laguntza behar duen jendea zaintzeko. Esperientzia dut. 632 08 57 69

Arrasate. Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. 655 15 36 59

Arrasate. Orduka lan egingo nuke garbiketak egiten edota nagusiei laguntzen. 698 47 41 33

Bergara. 47 urteko emakume esperientziaduna etxeko lanak eta garbiketa lanak egiteko gertu, goizez nahiz arratsaldez. 647 51 52 80

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordu-tegi aldetik ez daukat arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Arratsaldean hasi, eta baita etxean bertan bizi izaten ere, lan egingo nuke. Aste-buruetan ere lan egiteko gertu nago. 699 66 33 63 (Marlen)

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | saillkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/saillkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

Debagoiena. Banatzaile, gidari, mezulari, dendako kuxan edo apalak betetzeari, zerbitzari, margotzen edota etxeko langile moduan jarduteko gertu nago. Autoa daukat. 634 29 33 69

Debagoiena. Emakume bat gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko lan egiten. Esperientziarekin eta erreferentziekin. 653 81 17 64

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Arduratsua naiz eta lege-agiriak ditut. 631 96 30 87

Debagoiena. Emakumea pertsonak zaintzen lan egiteko gertu, arratsaldeetan. Etxean bizi izaten edo kanpo-langile gisa. 632 82 14 45

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua daukat eta zaintza lanetan arituko nintzateke, orduka edo egunetz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 61 89 96 (Mari)

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientziadun mutila pertsonen zaintzan lan egiteko gertu, orduka. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 94 31 59

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 66 13 22

Debagoiena. Etxeak garbitu, lisatu, umeak zaindu, nagusiak zaindu eta kalera lagundu, tabernako sukaldean lagundu eta abar egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 84 41 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, zaintzan. Arrasaten bizi naiz. 697 22 80 04

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 28 81 56

Debagoiena. Etxean bertan bizizizaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 46 41 76

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 17 39 35 (Gloria)

Debagoiena. Etxean bertan bizizizaten lan egingo nuke. Esperientzia dut nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 47 71 72

Debagoiena. Etxeko eta base-riko lanetan, nagusiak zaindu edo paseoan laguntzen zein denetarikoko garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95 (Judith)

Debagoiena. Etxeko eta base-riko lanetan, nagusiak zaindu edo paseoan laguntzen zein denetarikoko garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95 (Judith)

Debagoiena. Garbiketak egiten edo zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Orduka edo eguneari zehar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 30 24 68

Debagoiena. Garbiketak egiteko gertu nago. Orduka eta jardun osoz. Esperientzia dut. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 29 32 64

Debagoiena. Garbitzaile profesionala naiz eta lau urtez lan egin dut horretan. Gainera, barran eta sukalde laguntzaile ere aritutakoa naiz. Nagusiak zaintzen ere lan egin dezaket. Kontratuarekin egingo nuke lan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625 99 75 99

Debagoiena. Gizarte laguntzailea naiz eta umeak eta nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Umeak zaintzen esperientzia dut. Autoa daukat. 686 59 28 41

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak edo denetarikoko lanak. 632 77 35 38

Debagoiena. Lan bila nabil. Lan ezberdinak egiten gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 05 58 21

Debagoiena. Lan egingo nuke umeak eta nagusiak zaintzen. Orduka ere bai. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 34 70 53

Debagoiena. Leuntze lanetan esperientzia duen mutila lan bila: automozioan, autoen llantak, tronpeten piezak eta abar. 631 05 41 08 / 943 04 77 58 edo arjungr2013@outlook.es (Arjun)

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketak egiten edo sukaldean laguntzaile ere lan egingo nuke. 685 64 85 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, mekanikari, ostalaritzan eta abarrean. Ikasketak ditut. Kontratuarekin. 674 50 83 61

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak edota garbiketak egiteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izanda. Erreferentziak aurkez ditzaket. 39 urteko neska nikaraguarra naiz. 631 72 38 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko zein sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetarako gertu nago. 632 97 78 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 61772 94 98 (Rosario)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan eta sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Manikura egiten ere bada- kit. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 71 55 53

Debagoiena. Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 86 46 60

Debagoiena. Neska euskalduna prest nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Klinikara laguntzaile titulua- rekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 82 69 68

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 86 57 26

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 12 30 22

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 689 10 48 38

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordu-tegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 84 78

Debagoiena. Neska nagusi zein umeak zaindu eta garbiketa lanetarako gertu. Orduka, goizez, arratsaldez edota gauetz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 04 77 99

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen 6 urteko esperientzia daukan emakumea, etxeko lanetarako edo pertsonak zaintzeko prest. Aurretik lan eginda- ko familiarekin hitz egiteko aukerarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 00 30 33

Debagoiena. Taberna edota elkar- teak garbitzen eta pertsona nagusiei janaria prestatzen lan egingo nuke. Bertako platerak prestatzen dakit. Elkar- teak era- biltzeko titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625 28 38 11

Debagoiena. Zaintza lanetan arituko nintzateke ordu-tegi guz- tietan: etxean bizizizaten, orduka, gauetz edo baita ordezkapenak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 12 43 25

Debagoiena. Zerbitzari moduan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. Erre- ferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 29 11 23

